



Mikel NIEVE
Italiako Giroan
etaparik
menditsuenaren
garaile → 51

Herriko bestak

Arizkun, Doneztebe, Erratzu, Berroeta...

BERA → 25

Kaxerna Gaztetxearen 5. urteurrenako ospakizunak

LEGASA → 37

Bertizarana Eguna ekainaren 11n

BAZTAN → 45

Arartekoaren bulegotik aholkularien bisita

ZUGARRAMURDI → 47

Sorginaren Eguna ekainaren 18an



Ituren eta Zubietako guraso eta irakasleek ez dute amore eman nahi

Oraingoz Hezkuntza Departamentuaren aldetik ezezkoa izanda ere, Zubietako gurasoek etxetik hurbilago duten Iturengo Eskolara joateko eskubidea aldarrikatzen segitzen dute eta Iturengo Eskolako ikasle-irakasleek haur kopuruagatik dagokien bigarren tutorea aldarrikatzen dute.

ITUREN-ZUBIETA → 35



Ospakizuna
ekainaren 28an
DENEZ-
TEBEN

ARKUPEAK ERRETIRATUEN ELKARTEA | 3.000 bazkide baino gehiago 45 herritan

25 urte adinekoentzat bestak, bidaiak eta animazioa sortzen

ERREPORTAJEA → 4-5



HERRIZ HERRI → 10

Dena prest alkate-zinegotzi berriek kargua hartzeko larunbat honetan

Azken orduko ezustekoren bat izan ezean, Baztanen Bilduk eskuratuko du alkatetza, Beran Aralarrek eta Etxalarren Herri Taldeak.



ELKARRIZKETA → 3

Amelia Lizasoain, Itsasuko Arrokarai ikastolako

Ikastola berria ari dira altxatzen Itsasun. Gobernuaren laguntzarik gabe baina adoretu.



Laguntzaileak: **ALTYATENEA JATETXEA • ARLEGUN ETXEA • ARNOA JATETXEA • AZETA JATETXEA • BAR MARINAN OSTATUA • BENTA ALTHY • BENTA ANSALES • BENTA ANTON • BORDAXURIA LANDETXEA • CARRELAGES BENGOTXEA • ETXELERKUA GAUNATOGIA • GRAGANA ATERPEA • IERRIKO OSTATU-JATETXEA • IMARTEA LANDETXEA • KATTALIN JATETXEA • NAFARROAKO RURAL KUTXA • SUELDUGIA LANDETXEA • TOMARENEA LANDETXEA • URTXOLA JATETXEA • YAREN ASEGURDIAK • MALMO**

Sortzez Donamariakoa den arren, azken bi urteotan Itsasun (Lapurdi) bizi da Amelia Lizasoain eta Itsasuko Arrokkagarai ikastolako gurasoa da. Ikastola berria da, Kanbokoa tiki

gelditu zenean zabaldua. Halere, oraindik ikastola izanen den eraikina obratan dago, eta Seaskak errentan hartutako etxe batean ematen dituzte eskolak. Pozik eta ilusioz ari

dira lanean gurasoak, baina Frantziako Gobernuaren laguntzarik gabe, gastu haundiari egin behar diote aitzin. Egoera zein den zehatzago kontatu dio TTIPI-TTAPari.

Amelia LIZASOAIN | Itsasuko Arrokkagarai ikastolako gurasoa

«Gu ere euskaldunak gara eta gogo eta ilusio berarekin ari gara lanean»

G. PIKABEA | DONAMARIA

Ikastola berria da Itsasuko. Azaldu historia...

Kanboko ikastolak sobe-
ra haur zituen eta orduan
hasi ginen mugitzen. Ber-
te ikastola bat irekitzeko-
tan, non ireki aztertu zen
eta haur gehienak Itsasu-
koak zirela eta, Itsasun
egitea erabaki zen. Ezpe-
leta, Luhuso eta Itsasu-
ko gurasoak bildu eta
Arrokkagarai ikastola elkar-
tea sortu genuen 2008-
an, Itsasun ikastola bat
eraikitzeko asmoarekin.
2010eko irailean egin ge-
nuen ama ikastolara le-
hen sartzea 17 hurrekin.
Halere, orain dauden to-
kia ez da behin betiko
ikastola, Seaskak erren-
tan hartutako etxe bate-
an baitaude eta denak
gela bakar batean. Ika-
stola izanen den eraikin
berriko obrak hasiak di-
ra eta hurrengo urtean
sartuko dira haurrak hor.
SIVOM herri elkargoaren
erabakiari esker sartuko
dira haurrak eraikin ber-
rian, Udalak herriko ber-
te eskolen ondoan utzi-
tako lur eremu batean.
**Zaila da ikastola aitzin-
nera ateratzea?**

Lan haundia egin behar
da. Seaskatik obrak anto-
latu eta finantzatzeko dira
baina ikastola barreneko
materialak, altzariak, pin-
tatu eta hori dena guk
egin behar dugu gure
kontura. Ikastola berri bat
irekitzeko lotutako gas-
tuez gain, ikastolako la-



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Amelia Lizasoain sortzez donamariarra da, baina Itsasun bizi da azken bi urte hauetan.

guntzailearen (ASEM)
postua mantentzeko di-
rua ere behar dugu. Le-
henbiziko urtean izan ge-
nuen postu horretarako
laguntza baina aurrean
ordaindu behar dugu, eta
15.000 euroko gastua da.
Horregatik diru sartzeko
kanpainak ireki genuen.
Otsailean kantaldi bat
antolatu genuen, martxoan
kontzertu bat eta maiatzean
besta herriko bat.
Nafarroaren Egunean ere
lanean aritu ginen. Ekai-
nean Irukasko lasterketan
lan egitea pentsatzen
ari gara eta uztailean ea
posible den Ezpeletako
lasterketan aritzea. Ahal
dugun toki guztietan lan

IRAKASLEAK

«Frantziako Gobernuak ez baditu irakasleak ematen, Seaskak ordaindu behar ditu eta Seaskak ez du nahiko diru»

GASTU HAUNDIA

Gastu haundiei egin behar diete aitzin Ipar Euskal Herriko ikastolek. Itsasun, ikastola berria martxan paratzearen gastuez gain, irakasle laguntzailea gurasoek ordaindu behar dute. Informazio gehiagorako: itsasuko-ikastola@orange.fr

egiten saiatzen gara. Txe-
kez edo transferentziaz
diruz laguntzeko ere es-
katzen diogu jendeari. 20
guraso gara eta beti di-
rua biltzeko lanean ari ga-
ra, baina badugu gogoia
eta ilusioa.

Frantziako Hezkuntza Ministerioak 2009an Seaskarekin akordioa sinatu zuen irakasleak esleitzeko...

Bai, baina irakasle goa murriztu egin dute. Egoera hagitz larria da, Gobernuak ez baditu irakasleak ematen, Seaskak ordaindu behar dituelako eta Seaskak ez du horretarako nahiko diru. Momentuz, 17 irakasle or-

daintzen ditu eta ezin du gehiago eta gurasoak nahiko lan badugu bertze ere. Gure itxaropenak bakarra Eusko Jaurlaritza eta egiten dugun lana dira. Azken urtean ez da Jaurlaritzatik deus sartu, eta orain erran digute baietz, joan den urtean eman ez zutena emanen dutela. Eta Frantziako Gobernutik ez da deus heldu. Ikastola guztietan 3.000 bat haur izanen dira eta laguntzarik gabe zaila da, baina ez dugu etsiko.

Lehen maila irekitzeko asmoa ere baduzue...

Heldu den urtean lehen maila ireki nahi dugu. Ez bada irekitzen, Kanboko ikastolatik aurrean etorri diren ikasleek beriz ikastolaz aldatu beharko dute lehen urtea egiteko. Irekiz gero, 30 hurrekin hasiko dugu ikasturtea eta urtean zehar, bederatzai haur tiki sartuko dira. Bi zikloetako irakaskuntza ziurtatzeko bertze irakasle bat behar da.

Zer eskatuko zenuke?

Jendeari Lapurdi ere hemen dagoela erranen nioke. Denak euskaldunak gara, guk ere ikastolan eta etxean euskaraz egiten dugu eta gogo eta ilusio berarekin ari gara lanean. Gutaz ez ahazteko eskatuko nuke eta gu Hegoalderajoa ten garen bezala, eurek ere honat etortzeko. Denak ongi etorriak izanen dira.



ARGAZKIA: ARKUPEAK ELKARTEA

Arkupeak Elkarteak aurten egin duen azken irteera Portugalera egindakoa izan da. Argazkiko kuadrillak parte hartu zuen ateraldi honetan.

ELKARTEAK → 3.000 BAZKIDE BAINO GEHIAGO DITU GAUR EGUN

25 urte bete ditu eskualdean Arkupeak erretiratuen elkarteak

Ekainaren 28an Arkupeak eguna ospatuko dute Donezteben. Herriko besten hasieran suziria pizteko ohorea izanen dute aurten.

1986an lau lagunek sortu zuten Arkupeak elkartearen Donezteben. 25 urte beranduago, Nafarroako mendialdeko eta Gipuzkoako Bidasoaldeko 45 herrietako 3.000 bazkide baino gehiago ditu. Mende

laurdeneko ospakizuna prestatzen ari dira ekainerako. Elkartearen sortzaileetako bat eta urtetan presidente izan den Felipe Ganboak kargua utziko du eta Pedro Bañaresek ordezkatzeko du.

TTIPI-TTAPA

Mende laurden pasa da 1986. urtetik. Mende laurden pasata Arkupeak jubilatuen elkarteak bere gerizpean 3.000 bazkideetik gora ditu 45 herri banaturik. Donezteben abiatu zen, inguruko herrietara hazi eta

zabalduz. Lau bazkidearen artean sortu zenak 3.000 lagun baino gehiago biltzen ditu gaur egun. Malerrekatik, Baztan eta Bortzirietara zabaldutako. 1992an elkarte zitzazkiren Leitzako jubilatuen Nafarroaren iparraldeko herrietan adinekoak in-

tegratzen eta dinamizatzen egiten du lana, Irundik hasi eta Urdazubiraino. Adinekoen bizi kalitatea hobetu nahian.

Aktibitate ugari antolatzen dituzte, horien artean gehienak bidaiak izaten dira. Egun pasako bidaiak izaten dira ge-

hienak baina munduan barrena ere ibili dira. Bertzeak bertze, Kuba, Estatu Batuak, Argentina eta Europako herrialdeetan barrena.

2010ean Nafarroako Gobernuak banatzen dituen 'Nafarroako Karlos III.a Prestuaren Gurutzea' kondekorazioa jaso zuen egindako ibilbide eta lanagatik.

ARO BERRIA

Garai berri baten hasiera izanen da aurten. Felipe Ganboak lehendakari izateari utziko dio eta Pedro Bañaresek hartuko du lekukoa. Felipe Ganboaren lana handia izan da, ahal duen guztia egin izan du elkartearen alde. Bai taldea antolatuaz eta baita ahal zuen lekuetan diru laguntzak lortuz.


Pedro Bañaresek Arkupeak egunaren ondok hartuko du kargu berria. Tarte honetan taldea eta funtzionatzeko modua ezagutzen ari da. Garai berrietara egokitzea garrantzitsutzat jotzen du. «Horren arabera joa-

nen gara guzak aldatzen» dio Bañaresek. Izan ere jubilatuen eta pentsiodunengana ere iritsi da krisia eta diru laguntzak ere nabarmen murriztu zaizkie. Hala ere Bañareren helburu nagusia «jubilatuek euren denbora librean zereginak izatea eta jendearen parte hartzea bultzatzea da». Horregatik segituko dute guzak antolatzen «Ekonomikoki garai apalak datoz eta baliabide propioetara egokitu behar harko dugu».

ZILARREZKO EZTEIEN OSPAKIZUNA

Hogeita bost urte ez direnez egunero betetzen, besta handi eta berezia antolatu dute ekainaren 28rako. Goizean meza izanen dute San Miguel eskolako frontoian. Meza ondok aurten 85 urte betetzen dituzten bazkideak omenduko dituzte urrezko eztaiak ospatzen dituzten senar emazteekin batera.

Luntxaren ondok kirol erakustaldia izanen



ILUSIOA

«Herritik ateratzeko bidea ematen dio jendeari eta horrek ilusioa sortzen du»

Isabel ETXEBERRIA
Goizueta, 61 urte

Elkarreak herritik ateratzeko bidea ematen dio adineko jendeari eta horrek izugarriko ilusioa sortzen du. Gaztetan ez genuen horretarako aukera handirik izan eta orain aprobetxatzen ari gara, disfrutatzeko bide bat da. Niri gehien gustatzen zaidana elkarren arteko armonia da, elkar ezagutzeko modua eskaintzen du. Behar bada kultur mailan herrietan kurtsillo batzuk edo zerba-it antolatzea da Arkupeak elkarteari falta zaiena. Jendeari gustatzen zaio, erretiratzan denean aisialdirako zerba-it izatea. Etorkizun ona ikusten diot elkarteari. 3.000 sozio baino gehiago ditugu, jendea lanerako gogoarekin dago.




ZAULI ETA ANIMOSO

«Arkupeak elkartearen gimnasiari esker zauli eta animoso mantentzen gara»

Maritxu MARTIKORENA
Bera, 85 urte

18 bat urte ditut Arkupeak elkartean. Gimnasiari esker zauli eta animoso mantentzen gara eta hori eskertu behar diogu Arkupeak elkarteari. Eginahalak egiten ditugu zerba-itetan aritzeko, ehoziri lanak erakusten ditut, akordeoia jotzen... Niri gimnasia gustatzen zait batez ere, astean bitan elkartzen gara eta hori hagitz gauza ona da. Ateraldi aunitz egiten ditugu, alde guzitarra, eta sosak joaten dira ustekabe. Ni normalean ez naiz joaten, baina hori ere polita da. Etorkizunera begira ongi ikusten dut elkarrea. Jende aunitz bada horizena emana eta bizia baduela iruditzen zait. Ahalik eta gehiena segituko dugu.




BIDAIARIA

«Bidaia luzeetara ateratzea maite dut, aunitz ikasi eta jendea ezagutzen duzu»

Teresita BIDART
Urdazubi, 55 urte

Bidaietan jendea ateratzen gara eta horrek aunitz ematen digu. Nik maite dut bidaia luze horietara ateratzea, jende aunitz ezagutzen duzu, lagun berriak egin eta aunitz ikasten duzu. Ameriketara izan naiz, Argentinan, Kuban eta Estatu Batuetan... Hemen zaila da elkartzea, aunitz heldu garelako. Zerba-itara apuntatu eta gero etorri behar duzu Doneztebera edo Elizondora. 25. urteurrenarekin aldaketa aunitz izanen da. Hasteko, Felipe Ganboak uzten du eta denborarekin ikusiko da nola segitzen dugun. Gauza batzuk aldatu beharko dira, ikusiko dugu nola egiten dugun denon artean, saiatuko gara.



GOZAMENA

«Ateraldietan nola gozaten duten ikusita aunitz disfrutatzen dut»

Rosa MENDIBURU
Elizondo, 62 urte

Elkarreak gauza pila bat ematen digu erretiratu, ni behinpin hagitz kontent naiz egiten duenarekin. Gauza arras polita eta beharrezkoa da. Ni bidaietara ez naiz aunitz joaten, ez dutelako zoz posible. Baina eguneko ateraldietan parte hartzen dut eta aunitz disfrutatzen dut ondokoak nola gozaten duten ikusita. Gimnasiara jendea gustora eta ilusioarekin etortzen da. 25. urteurreneko eguna ere polita izanen dela iruditzen zait. Gure aitzinetik lanean aritu direnek merezi dute gure errekonozimendua. Ondotik heldu garenok ere haiek egin duten hainbat egitea da gure ilusioa, baina zail izanen dugu.



BILDU ETA SOLASTU

«Jubilatuoi biltzeko eta solasteko aukera ematen digu, bestak eta bidaiak egiteko»

Mª Isabel MITXELORENA
Doneztebe, 78 urte

Arkupeak elkarreak jubilatuoi biltzeko eta solasteko okasionea ematen digu, bestak eta bidaiak egiteko... Urtero aunitz egiten dira, egun batekoak, luzeagoak... 85 urteko eta Urrezko Ezteiak egiten dituztenei egiten zaion omenaldiak ere aski politak dira. Gehien gustatzen zaidana bidaiak dira, baina orai ez naiz joaten. Arkupeak elkartean hainbetez herrietakoak biltzen gara eta ezin dugu kurtsilloak eta horrelakoak egin, herri batera mugitu beharko baitzen jendea. Iruñean informatika edo jostungintza ikastaroak egiten dira, denak bertan bizi direlako, baina guk eremu zabala hartzen dugu eta zailagoa da.

da eta aspaldiko kirolari omenaldia eginen dute. Juan Inazio Retegi, Julian Retegi eta Elias Pierola pilotariei eta Mikel Mindegia aikolarari. Ondotik kiroldegian bazkaria eginen dute eta bazkal ondotik Jalisko Band taldearekin euskal abestien kantaldia eta dantzaldia izanen dute.

Eguna elkarrekin pasata Doneztebeko beste hasiera ematen dien suziria piztuko dute Arkupeak Elkarrekoek.

URREZKO EZTEIAK 2011

Jose Saizar eta **Teresa Telletxea** (Areso); **Agustin Dagerre** eta **Asunción Otxoteko** (Bera); **Jose Arrieta** eta **Mª Jesus Pueyo** (Elgorriaga); **Juan Marisko** eta **Mª Karmen Etxebertz** (Erratzu); **Jaime Lopez** eta **Luisa Arenaz** (Irun); **Juan Irazoki** eta **Mercedes Arburua** (Zugarramurdi)

OHOREZKO BAZKIDE IZENDATUKO DITUZTE

Amaiurko **Bernardo Rekalde**; Arantzako **Inaxi Iparragirre** eta **Felix Jorajuria**; Arraiozko **Mercedes Juanikotena**; Berako **Miguel Artieda**, **Matias Irazoki**, **Maritxu Martikorena**, **Felisa Maia**, **Damaso Rozas** eta **Lino Telletxea**; Elizondoko **Miguel Nuñez**; Eratsungo **Mikaela Barberia**; Etxalarko **Martin Indaburu**; Igantziko **Miguel Dorronsoro**; Irungo **Martin Andueza**; Leitzako **Bernardino Aierdi**, **Joakina Azpiroz**, **Hilaria Etxeberria**, **Demetrio Salbarredi** eta **Katalina Villabona**; Lesakako **Mercedes Zabalozuazola**; Oizko **Juana Anso**; Sunbillako **Francisca Agesta**, **Francisca Iriarte** eta **Maria Zubieta**; Urdazubiko **Isabel Jaimerena**.



Nire txanda
Luis GARDE

Parakaidistak Donezteben

Jakin ongi dakit gaztelaniazko *paracaidista* hitza euskaraz *jauslaria* dela, baina barkatu behar harko nauzue erdarakada erabiltzeagatik. *Jauslari* hitza erabiltzen badut, baten bat etorriko zait erranez "eske tu basko no se entiendo". Beraz, gaurkoz *paracaidista* eta ez *jauslari*. Politikan, *paracaidista* bat zera da: hauteskundeetarako zerrenda batean aurkezten dena, aurkezten den herrian inork ezagutu gabe. Kasu honetan, PPko zerrenda Donezteben. Badugu alderdi ilustre horretako zinegotzi bat.

Euskara eta emakume batzordeak kentzeko proposamena ez zitzaidan gustatu

Ez dut uste zutabe hau irakurriko duzunik, baina badaezpada ere ongi etorri. Zorionak zuen programa euskaraz ere bidaltzeagatik. Hori bai, bertan egin zenuen proposamen zehatz bakarra, udal euskara eta emakume batzordeak kentzea, ez zitzaidan deus ere gustatu. Are gehiago hori egiteko inolako arrazoirik eman ez zenuenean. Baina demokrata naizen aldetik, zure arrazoiak eta herrirako proposamen berriak entzuteko gogoz nago. Laster arte.

Ezpala

Aitor AROTZENA

Giltza zertarako?

Azken hauteskundeetan ikusi da irabaztea baino inportanteago dela giltza izatea. Nafarroan, erraterako, bozka gehien ateratu dituen UPNk, sendo segitzen duen NABaik edo indarrez sartu den Bilduk baino, garrantzi gehiago dauka inoiz baino botu guttiago izan dituen PSNren erabakiak. Berak dauka giltza eta jakina, giltzak atek izteko edo irekitzeko erabil daitezke.

Nabarmentzekoak



Josu SANJURJO
Lesakako bertsolaria

14-18 urte arteko Nafarroako eskolarteko bertsolari txapelketa irabazi du. Orain, ekainaren 18an Agurainen jokatu den Euskal Herriko txapelketa hartuko du parte.



Fernando ANBUSTEGI
Elizondoko idazlea

Miranda de Argako Euskararen Egunaren barne egindako Erdialde literatur sariketan lehen saria irabazi du elizondarrak maila nagusian, *Kristine* izeneko idazlanarekin.



Mikel NIEVE
Leitzako txirrindularia

Espainiako Vueltan egindako balentria kasualitatea ez zela erakutsiz, Italiako Giroko etaparik menditsuena irabazi zuen, kasik zazpi ordu terdi bizikleta gainean eman ondotik.

Atzera begira → 1997.06.19 / TTIPI-TTAPA 208. zbk



Bi kolore familia bakarreen

Izenburu horren pean, beraien bikotea Latinoamerikan ezagutu duen jendearengana jo zuen TTIPI-TTAPAK. Ezkondu, batzuk familia osatu eta bertan bizi dira orain. Batzuentzat, «berokia jartzeak bere xarma» izanik ere, eguraldia zen somatu zuten aldaketarik handiena eta «goitik beheiti begiratu bai, baina arrazakeriarik ez» zutela nabaritu zioten. Han ligatzea errexagoa edo pobreziatik eskapo etortzen direla diotenei erantzunez, amerikar hauek «han jendea irekiagoa» dela eta «bertatik ateratzeagatik balitz Estatu Batuak hau baino aberatsagoa da eta askoz hurbilago dugu» erantzun zuten.



Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • **Egoitza** Anduettzeta, 12 • 31760 ETXALAR

Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • info@ttipi.net

Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Publizitatea** Usosa Vicente, Kulturkari SLU **Berriemakileak** Esteban Arotzena, Juana Mari Sazar, Kontxi Klaber, Ainhoa, Arantxa eta Maider Ansa, Asier Imaz, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Aitzuri, Joseba Urrotz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maite Oteiza, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Eneko Mitxeo, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Iñaki Telletxea, Joanes Garcia...

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Etxalar, Leizta, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarteak, Bortziritetako Euskara Mankomunitatea, Malerreko Zerbitzu Mankomunitatea

2011ko harpidetza sariak

Hego Euskal Herria37€	Europa55€	Baztan, Urdazubi eta Malerreka31€
Ipar Euskal Herria55€	Amerika eta Australia123€	Leizta15€



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



Euskarabideak diruz lagundutako aldizkaria



Kolaborazioak

Etorkizuneko irizpideak jorrazteko aukera

Jokin APEZETXEA (Bortzirietako Jendarte Zerbitzuak)

Azken hamarkadetan zehar, hainbat aldaketa harri-garri ikusi ditugu lanean eta gizartean. Horien adibide dira emakumezkoak lan-merkatuan era masiboan sartu izana eta hezkuntzara heldu izana. Aurrerapauso horiek direla eta, askok emakumezkoen eta gizonetzkoen arteko ezberdintasunak laster desagertuko zirela pentsa genezakeen, baina hori ez da horrela izan. Berdintasun «formalaren» eta «legalaren» estalkiaren azpian desberdintasun handia dago.

Gizartearen egiturak oinarri androzentrikoetan finkatuta daude oraindik, biztanleriaren erdia emakumezkoek osatu arren, munduko pobrezia %80a biltzen dute, baita analfabetismoaren, langabezia eta jarduera ezaren indizerik altuenak. Emakumeek esparru publikoan parte hartzeko prozesuarekin batera ez da gertatu gizonek esparru pribatuaren parte hartzeko prozesurik. Horrez gain, ez dira sortu behar diren zainketa zerbitzuak. Ondorioz, emakumezkoek oraindik etxeko lanetan ardua osoa beren gain uzten duen rola betetzen segitzen dute. Emakumeen eta gizonen ohituren eta arduren aldaketek epe ertain eta luzeko prozesuen emaitza izan behar dute. Zainketa-erren etika berria eratu behar da. Etika berri horretan balioztat hartuko da emakumeek eta gizonek batera hartzea bere gain esparru pribatuko ardurak.

Orokortasunetik hurbiltasunera pausua emateko, Bortzirietako Oinarritzko Jendarte Zerbitzuen Mankomunitateak, 2005. urtean ikerketa bat burutu zuen bertako emakumeen egoera aztertzeko. Ikerketa honen emaitzetan oinarrituz 2006. urtean, Ekintza Positiboko Plana diseinatu zen. Planaren ardatz garrantzitsuenetako bat uztartzea edo kontziliazioa izan da, bi itunetan (2007-2008 eta 2009-2010) 19 entitatek parte hartu dutelarik. Garatutako Berdintasun Politikaren oinarriak hiru izan dira: **sensibilizazio jarduerak** (hitzaldiak eta filmak martxoaren 8 eta azaroaren 25 egunen inguruan, *ardurak banatu* diptikoen banaketa, *merkatariak kontziliazioaren alde* kanpaina), **formazio saioak** (generoa, aitatasuna, erantzukidetasuna, hezkidetzeta) eta **zerbitzuen sortzea** (jubiloteka, jantoki zerbitzua eskoletan eta haur txokoa). Aurten, alde batetik, egindako lanaren balorazioa edo autokritika burutzeko asmoa dugu eta bertzetik, guretzat garrantzitsu eta funtsezkoena dena, etorkizuneko jorrazteko behar diren irizpide eta lehentasunak finkatu nahi ditugu. Prozesua udazkenean izanen da eta parte hartzea Bortzirietako biztanle eta eragile ezberdinak gonbidatuko ditugu (ikastetxeak, guraso elkarteak, talde politikok, gazte elkarteak, kirol elkarteak...). Beraz, udazkeneko prozesuan parte hartzea animatzen zaituztegu!

«Etorkizuneko jorrazteko behar diren irizpide eta lehentasunak finkatu nahi ditugu aurten. Prozesua udazkenean izanen da eta parte hartzea Bortzirietako biztanle eta eragile ezberdinak gonbidatuko ditugu»

Errauskailurik ez

Xanti BEGIRISTAIN MADOTZ (Iruñea)

Zaborren kudeaketa ona, garrantzitsua bezain konplexua da. Gaur egun bizi garen mende-baldeko mundu edota gizarte aurreratu hauetan, gero eta gehiago kontsumitzen da, eta, ondorioz, sortarazten den zabor kopurua ere gero eta handiagoa da, ikaragarri handia da. Izugarria. Planetan, dagoeneko, oso arazo larri eta serioa dugu gai honekin.

Nik uste dut, funtsezko gauza batzuk, behintzat, gero eta garbiago daudela. Alde batetik, mundu osoan saiatu beharko genuke gero eta zabor gutxiago sortarazten. Nola? Ba, esate baterako, enbalatzeak, paketatzeak, bilgarriak (plastikoak, paperak, kartoiak, zurak, eta bat eta beste), eta abar sinplifikatuz. Erosketak

egiterakoan, etxetik poltsak, janari-ontziak, e.a. eramanez. Gero, ahal den eta balio duen guztia, berrerabiliz: poltsak, ontziak, zaku-toak, tresnak, jantziak, makinak, botilak... Jarraian, birziklatu ahal diren zabor eta material guztiak, birziklatuz. Horretarako, ikertu eta garatu beharko dira hautabide, alternatiba eta aukera guztiak: bereizketa, atez ateko bilketa, bosgarren edukiontzia, konpost egitea, e.a. Hiri eta herri bakoitzak ikusi beharko du, kasu bakoitzean, zer komeni den eta zein den biderik eraginkorrena. Azkenik, adituen arabera, ba omen dago zaborren ehuneko jakin bat, ez handiena, birziklatu ezin dena, konparaziora, ospitaleetako material eta hondakin batzuk, produktu kimikoak, medikuntzakoak, farmaziakoak, ikerkuntzakoak, e.a. Antza denez, horiek erre, besterik ezin omen da egin beroiekin. Baina, kontuan hartuta, erraustu ondoren, kearen bitartez zabaldu eta hedatu egiten direla, pertsonentzat oso kutsagarriak diren produktu eta gasak, nik pentsatzen dut, erraustegiak jartzekotan, jarri beharko lirakeela pertsonengandik ahal eta urrutien, eta, jakina, enpresek izan beharko lukete publikoak, eta baita beren kudeaketa ere, inork izan ez dezan tentaziorik negoziatzeko pertsonen osanaren bizkarretik.

Laburbilduz, errauskailuak, ahalik eta gutxien, urrutien, publikoak eta baita beren kudeaketa ere.

«Enpresek izan beharko lukete publikoak, baita beren kudeaketa ere, inork izan ez dezan tentaziorik negoziatzeko pertsonen osanaren bizkarretik»

«Laburbilduz, errauskailuak, ahalik eta gutxien, urrutien, publikoak eta baita beren kudeaketa ere»

Irakurleak mintzo

Elizondoko plaza modernitatearen erakusleihu gisa

Javier
QUINTANO IBARRONDO
Elizondo

Elizondon plaza ederra genuen, zabala, soila, xaloa, arrunta eta maitatua. Gure plazak kiosko tradizionala zuen eta harlauza luzeko harrizko zola, higatua eta zahartua, konponketa handia behar zuena.

Elizondon, orain, plaza berria dugu, herriki-debatzuk «autobus geltokia» deitzen dutena eta, bertez batzuk, «gasolindegia». Jauregiz inguratutako plazako eremuan, administrazio gune horretan, herrikoia eta besta ospakizunetarakoan, isilik eta ia ohartu gabe modernitatearen bertsio erdipurdikoena sartu dute. Modernitate hori aurrekontu mugatuekin eta aldebaka deigarria izan nahi duen udal gehiengoaren eskutik heldu bada, guttitan betegarri eta asegarri.

Eraikina egiten eta haren bolumenak gorputza hartzen ari ziren neurrian, noizbehinkako eta ohiko bisitariak plaza ikusita ezinezko zera galdegiten zigiten: nola utz dezakezue halako zerbait egiten? Nori bururatu zaio? Eta gu, pixka bat nahasirik, zer erantzun ez genekielako gelditzen ginen.

Akaso, modernitate-

an sartzea hori zen: oinarriak galtzea. Akaso, modernitatean sartzea plaza berriak ez dakigu zein lehentasunezko beharri erantzuten ziola itxuratzea zen eta, itxuratze horretan, herritarrek prozesu demokratiko eta parte hartzailean egitasmo deberdinak alderatu ginitzakeela pentsatzea, Arizkuneneako erakusketan egokiena iruditzen zitzaigun diseinatu bozkatuz. Akaso, gaizki ulertutako modernitate hori, tradizionala zakarrago edo leunago hautsiz zebilen ustezko funtzionalitatea zen.

Baztanen inor ez da lehen zena eta inork ez zuen erran erran zuena

Lander SANTAMARIA

Entzun eta isil, baiezko biribil. Bertze deusengatik baino gehiago, horregatik, eta bat sinplekeriekin aspertua dagoenean, «inongo talde politikorik» ordezkatzeko ez duten Baztango herrietako alkateei erantzuteko beharra sentitu dut. Izan ere, euren arabera, «ezker abertzaleak ez du ordezkapenik Baztango Batzar Nagusian». Babegira, badirudi denak oker gaudela orain arte egin duten ibilbide ideologiko, politiko eta publikoaren inguruan eta euren diru ukatzen dute-



Bota bertsoa

Kotte PLAZA (Baztango bertso eskola) • Neurria: Hamarreko handia

Badator uda

Udaberriak azken arnasak gure lurra aparretan eguzkia gogotik lanean euria utziz zorretan euliak, erleak ta sugeak ez daudela oportretan jendeak terrazetan bisitak baratze ta belarretan uda garaia badatorrela nabari da bazterretan.

Udak atea irekitzeareguzkia da testigu hondartzak, hare ta olatuak jendez betetzen hasi du herriko bestak gogoz harturik gorputzak zenbat kastigu nahiz langabezi, krisi luzean herria egon gatibu garai polit hau disfrutatzeak indarra emango digu.

nak. Ematen du, garai hauetan inor ez dela beti izan dena eta bakoitza arras librea dela nahi duen txaketa janzteko. Hor konpon bakoitza bere ideia eta egingakoekin.

Niri axola zaidana eta egia dena –inork ezin duelako ukatu Batzar Nagusiko bilkura guztiak bezala grabatua dagoelako–, Udalariegin dako eskaera da: «esleipen zuzenak I.A.E. ren alta Baztanen emandako enpresendako izatea» (hitzez hitz) eta «lehiaketa eta enkante publikoen baremoetan I.A.E. ren alta Baztanen edukitzeari lehentasuna ematea» (hau ere hitzez hitz hartua).

Proposamen honen «defentsan» bereziki herrietako hiru alkate atarra ziren (horietako batak bakarrik sinatua zuten idatzia) edozeinek (grabaketak ez du gezurrik erraten) sutan, era ezegokian eta oihuka egin zutela pentsatuko lukeen moduan. Horrelako jarreretara ohitua

nagoen arren (ikusitazineko bilkureko akta ere, antzekoa pasatu baitzen), gogaitu egiten naute. Baina ez nuke deus ere erranen eskaera «ezjakintasunez edo intentzio txarrarekin» egindakoa dela pentsatuko ez banu.

Eurei zuzentzen naitzaie eurek izan zirela oihuka aritu zirenak, eta ez gainerakoei, eta benetan sentitzen dut ukituak sentitu izan badira. Ez zen nire asmoa eta sentitzen dut. Baina erran eta idatzi nue nari eutsi egiten diot, badakitelako, edo jakin beharko luketeelako, eskatu zutena ezin dela egin. Horregatik, «(elkartasuna adierazi dioten alkateak) erran zuena baztandar aunitzen buruan dago eta bai sinatu zutenen buruan ere» erranari buruz, aurkeztezina eta burugabea dela adierazi nahi dut, baita arras larria eta arriskutsua ere. Baina ez orain eta ez etorkizunean ere, ez dut inola ere onartuko bizi-

tzaren aitzinean hutsik gabeko jarrera izan duen lagun eta kide bati errespetua galtzea, iraintzea edo faltsuki salatzea. Hori egin zen, sutuki eta modu penagarrian, eta bertzei bezala horrek sumindu ninduen eta horregatik ez naiz isilik geldituko, ez da oihuka niregan eta ez dator bat nire izateko moduarekin. Elkartasuna jasotzeko presazko bilaketak berretsi egiten didate, autoreak, zuzendu beharrean, bere jarrera ezegokiaz jabetu direla eta babesa emanez es-tali nahi dutela. Hor konpon, bakoitza egiten duenaren arduradun da eta oraindik gehiago sinatu duenean.

Oharrizko harrobieren (?) inguruan «arreta desbideratzeko estrategia» eta Udalariekin «indarra kentzea» erraten dutenei, «gaia behar bezala aztertzea» eratu zen komisioren gestioen emaitzen eta horri esker egin diren irabazien esperoan egoteko

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta:

info@ttipi.net

Posta:

Anduetzeta, 12 31760 ETXALAR

Tel.:

948 63 54 58

Faxa:

948 63 54 57

Irakurleak mintzo

aholkatuko nieke. Ospatzekoa da «ez gaituzte interes politiko eta ekonomikoek mugitzen» adierazte hori eta euren alkate lagunaren (nire aldetik, nirea ere bai) hitzak «akaso» «deskontestualizatu» egin zirela errate hori (dotorea!). Txiste ona da. Eta nola ez, lagun haundiak.

Nahasten dituzue, behar ez diren gauzak

Josu GOIA ETXEBERRIA
Bera

Jose Juan Lanz Apeztegia eta Javier M^a Irazoki Agestari erantzunez.

Zuen kartaren zati batean ongi diozuen bezala, «Zalaingo Industrialdearen urbanizazio lanak ez zituen Berako Udalak egin, poligono-promotoreak baizik».

Eta halaxe da: edo uste duzue ni inozo bat naizela eta partikular baten lanak Udalaren meritu bezala zabaltzen aritzen naizela?

Nire artikuluan, toki faltagatik, ezin nituen aipatu Berako Udalak egin dituen lan guzti-guztiak banan-banabaina, zuek, Zalaingoak izanik, ez zineten akaso oharitu poligono zaharreko bide bat breaztatu zela, egoera penagarrian zegoen bidea, 6 enpresa baino gehiagori eragiten ziona? Edo, beharbada, ez duzue sudur puntatik haratago ikusten?

Horrexegatik, urbanizazio berriaz egiten dituzuen galdera guztiak bertze norbaitentzat izanen dira, ez baitira nire ardurakoak. Baina, nire pentsakeraz funtsik gabeko ondorioak ateratzen dituzuenez, zera erranen dizuet:

1. Niri ez zait batere gustatzen nola geldituen urbanizazio berria.

2. Sekulako disgus-

tua hartu nuen Botxo eta Javier Mariren etxearen arteko arbola bota zutenean.

3. Nire iritzian, bide zaharraren trukean egin zen bide berria errespetatu beharko litzateke eta berdegune bezala utzi bide horretatik eta karretera artean gelditzen zen tartea.

4. Nondik ateratzen duzue nire agintaldian «...Zalaingo auzoak atzera egin zuela industrialdeari dagokionez, bertze zenbait irregular-tasun urbanistikorekin batera»?

Hori asmatu egin duzue, nire agintaldian ez baitzen egin poligono berria eta industrialdeko eremua ez baitzen batere aldatu guk onartu genituen arauekin, gainera baldiz jendea urtean egon zirenean arau horiek legeak behin bakarrik egotea eskatzen duenean. Kritikak bertze norbaiti egin beharko zenizkioten, ez niri.

Baina hanka sartze-

ak leporatzen dizkidazuenez (arrazoirik gabe), oroitaraziko dizkizuet nireak diren meritu batzuk zuen auzoarekin zerikusia dutenak: ni izan nintzen barianteari bi kurba marraztu zizkiona, karretera ez zedin pasatu auzotik hurbilegi eta Verkoleko nabe baten erdia ez eramateko. Lortu genuen, bertze zinegotzietekin batera, parkea auzoaren esku uztea eta ni alkate nintzenean egin zen frontoia. Uste duzue zutek nik baino gehiago egin duzuela zuen auzoaren alde?

Jakinen duzuen bezala, Filosofia eta Teologia ikasi nituen eta ikasgai horien barnean daude Logika, Etika eta Morala, bertzeak bertze. Nire bizitzan ikasgai horietatik nahikoak eman ditut eta ez zarehinek zuek izanen hori galaraziko didazuenak.

Badaude bi esaera zahar *el que no sea cofrade que no tome vela* eta *excusatio non peti-*

ta... acusatio manifesta. Zuen burua aipatuztat jotzen baldin baduzue... zerbaitengatik izanen da. Artikulua idatziz nuenean ez nintzen zuetaz oroitzen.

Denok dugu agintariak kritikatu eta gure eskumenak defenditze-ko eskubidea baina, beti egiarekin. Nire artikuluan zein esalditan ikusi duzue eskubide horiek ukatzen ditudala? *Quidquid recipitur, ad modum recipientis recipitur* (Ulertu dena, norberaren ulermen-ahalmenaren arabera da). Behin aukeratua izateko eskubidea kendu zidala Espaniar Estatuak orain zuek askatasunez hitz egiteko eskubidea kendu nahi didazue. Egin irribarre! Irria ona baita osasun fisiko eta mentalerako. Eta begira non... orain osasunari buruzko ikasgaiak ematekotan nago, Arrazoimenaren Psikologia eta Psikologia Esperimentala ere ikasia bainaiz.

PSIKOBIDE PSIKOLOGIA ZENTRUA

TERAPIAK: Bakarkakoa - Bikote artekoa - Familiarra
HELDUAK - HAURRAK - NERABEAK:

Era guztietako arazoak eta gaixotasunak tratatzen ditugu
IKASKETA TEKNIKAK eskolan arazoak dituzten haurrentzat
GURASOENTZAKO LAGUNTZA TALDEAK: Talde terapiak

Lehenengo kontsulta dohainik, deitu eta informa zaitez!!

Kolon Pasealekua, 64 beheka • 20301 - IRUN
Tel. 689 639 543 • www.psikobide.com



HAUTESKUNDEAK

MAIATZAREN 22A → UDAL ETA FORU HAUTESKUNDEAK

Azken orduko aldaketarik ez bada, erabakita dago nor izanen diren alkateak

Larunbatean eginen da kargu hartzea

TTIPI-TTAPA

Maiatzaren 22ko hauteskundeek mapa politiko berria azaleratu dute gure eskualdean eta nagusitasuna Bilduk bereganatu du nabarmen, bai Nafarroako Parlamentura (eskualdeko botoen %40,41 eskuratuta) eta bai Bildu aurkeztu den udalerriei begira ere.

Herriz-herriz, larunbatean, hilak 11, hartuko dute kargua alkate eta zinegotziek. Baina **Arano, Beintza-Labaien, Donamaria, Elgorriaga, Iturren** eta **Urrozen**, sei hilabete barru izanen dute hauteskundeen bigarren deialdia, honetan ez baita zerrendarik aurkeztu.

BAZTAN

Duela lau urteko datuekin alderatuz, igo egin da partehartzea, %62,5etik %72,14ra. UPNk baino 37 boto guttiago lortu ditu Bilduk eta bosna zinegotzi izanen dituzte. NaBaik, aldiz, gainbehera nabarmena izan du eta zinegotzi bakarralortu du. Ezkerra taldea da ordezkari izanen duen hirugarren indarra, bi zinegotzirekin. Boto gehien UPNk izan arren, babiliteke alkatetza Bilduren zatitza izatea, Ezkerrak edo NaBaik bere alde egiten badute, noski.

BERTIZARANA

Andres Etxenikeren taldeak galduta egin du alka-

tetza Bilduren mesedetan eta horrela, Antonio Erregerena izanen da alkate larunbat honetatik aitzinera. Duela lau urte zerrenda bakarriazetatik hiru izaterako aldaketak partehartzea igo egin zuten (%70ekoa izan zen) eta aurten ere, bi zerrendekin, igo egin da: %72,33koa izan da.

BORTZIRIAK

Hauteskundeen aitzinetik, jakina zen **Aran-tzan** zein izanen den hurrengo alkatea: Bilduren izenean aurkeztutako Jaime Iturria. Partehartzea altua izan ohi da Arantzana baina aurten duela lau urteko %84,20tik %72,58ra jaitsi da.

Beran ere Bilduk lortu du nagusigoa, baina zinegotzi kopuru berdina eskuratu du Aralarrekere, 60 boto guttiagorekin. EAJk aitzineko agintaldiko bi zinegotzietatik die eta lehen aldiz aurkeztu den UPNk zinegotzi bat eskuratu du. EAJk Aralar larko Marisol Tabernaren alde bozkatuko duela iragarri du eta, beraz, bera izanen da alkate. Partehartzea %64,84koa izan da.

Etxalarren bortz zerrenda aurketu ziren eta hiruk lortu dute zinegotziren bat: Herri Taldeak eta Independenteeek hiruna eta Etxalar Aitzinerak bat. UPNk eta PPNk ez dute zinegotzirik lortu partehartzea altua izan den hauteskunde hauetan (%81,25).

Talde bakarrarekin, **Igantzin** ere jakina da



zein izanen den alkate. %72,53ko partehartzea izan duten hauteskunde hauen ondotik, Lourdes Ibarluzea (Herri Taldea) izanen da alkatea.

Lesakan EAJk galduta egin du historikoki izan duen nagusitasuna eta Bildu gailendu da, sei zinegotzi eskuratuta. EAJk, berriz, bortz izanen ditu. Hurrengo alkatea, beraz, Bilduko Pello Etxabide izanen da. Partehartzea %71,52koa izan da.

LEITZALDEA

Aresoko alkatea (talde bakarra aurkeztuta) Areso Eraikiz-eko Ur Algero izanen da. Lehiarik ez izateak partehartzea jaitsi egin du 2007ko hauteskundeekin konparatuz. Orduan, EAE-ANV lege kanpo utzita, CDN eta Areso Eraikiz sartu ziren lehian eta partehartzea %84,43koa izan zen eta aurten, %72,57koa.

Goizuetako alkatea Bilduko Pablo Miranda izanen da, aurkeztutako talde bakarraren zerrendaburua, alegia. Duela lau urte, lau botoko aldeak erabaki zuten alkate-tza EAE-ANV eta Elkartasunaren artean. Lehenak eskuratu zuten. Baina aurten lehiarik gabe irabazi du Bilduk, eta partehartzea 73,87koa izan da.

Leitzan ere Bilduko Oier Eizmendi izanen da alkate, 11 zinegotzietatik 9 Bilduren zatitza izan baita, bertzeko taldeei alde nabarmena ateraz. Beste biak Silvestre Zubitur

(DNE-NEE) eta Jose Miguel Goikoetxea (UPN) izanen dira. Partehartzea %71,38koa izan da.

MALERREKA

Donezteben EAk eskuratu ditu bederatziz zinegotzietatik zortzi (Miguel San Miguel izanen da alkate) eta kanpoko jendearekin osatua egon arren, PPNk zinegotzi bat erdietsi du. 2007an baino bi boto gehiago eskuratu ditu EAk, eta 107 PPNk. Parte-hartzea %68,41ekoa izan da.

Eratsunen igo dena partehartzea izan da. Duela lau urte partehartze ttikienetako bat izan zuten (%43,25) baina aurten %61,29raino igo da. Talde berria aurkeztu da eta horietan Francisco Mari Retegi izan da bozkatuena. Baina zerrenda irekia izaki, hautagaiek botaketa eginen dute alkatea izendatzeko.

Ezkurra da hauteskundeotan partehartzerik eskasena izan duen eskualdeko herria: %53,75ekoa. Duela lau urteko taldeak segituko du lanean eta botorik gehien Julian Gogorzak eskuratu ditu. Baina alkate hautagaien botaketa ere erabakiko da.

Oizen azken hiru agintalditan alkate izan den Alberto San Miguelk batu ditu boto gehien, baina partehartzea hagititxia izan da: %59,35. Zerrenda irekia denez, hautagaiein esku dago alkatearen izendapena.

Saldiasen igo egin da aurten partehartzea, %57,89tik 73,04ra. Hautagaieetatik gehienak berriak dira eta horietan bozkatuena Jacinto Dominguez izan da. Hautagaien artean erabakiko da zein izanen den alkate.

Sunbilla da partehartze eskasa izan duen bigarren herria: %59,16koa. 2007an, EAE-ANV lege kanpo utzita, EA eta Sunbildarrak taldeen artean banatu ziren udal karguak (6 EAk eta 1 Sunbildarrak). Aurten, Bildu baino ez da aurkeztu eta honen buru Amets Inda.

Zubietan, duela lau urte ez zen zerrendarik aurkeztu, baina honetan bisartu dira lehiak: Patxi Mitxelena oraingo alkatearen taldea eta Jose Jabier Juanikorenarena. Lehenbizikoak lortu du nagusitasuna, partehartzea %79,92koa izan den hauteskunde hauetan.

XARETA

Urdazubin ez dira gauzak aldatu. Urtume eta Azkar taldeen arteko lehiak, azken hau izan da nagusi, duela lau urte baino 14 boto gehiago eskuratu. Hortaz, Santiago Villaresek segituko alkate izan da. Partehartzea altua izan da aldi honetan ere, %89,78koa.

Zugarramurdin Evaristo Mentaberri izan da bozkatuena baina zerrenda irekia denez, hautagaiein esku dago alkate nor izanen den erabakitzea.

2011

BESTAK

Arizkun / Erratzu
Doneztebe



Etxetresnak

Sukalde eta bainugelako altzariak

Miguelena

ONGI PASA BESTAK!



T. 948 450 925 | M. 677 525 292 - 677 525 324 | Ameztia zeharkarrika, 1 | 31740 DONEZTEBE



**BAZTANDARRA
KOOPERATIBA**
Baserritarren zerbitzurat
Tel: 948 453310 - 948 453375 • Faxa: 948 456201
Ordoki Auzoa - ARIZKUN



BERRO-BIDE
Nekazaritza eta industria
luzerako konponketak, salmentak
eta aldiaketa
Tel: 948 483 423
Ordoki - ARIZKUN



Dutarimuno
Ekologikoki ekizitutako arruizteak
Ongi pasa berria bestak!!
Dutaria baserria - ARIZKUN - T616 756 359



JAURENA
Cantineria - Dantzerak
Telefonokak:
948 453 451
819 514 048
Ordoki Ind. - ARIZKUN

ongi pasa bestak!



**BAZTANGOIZA
TAILERRIAK**
Auto, kamioi eta nekazaritzako makineriaren
konponketa eta salmenta
Ordoiki 31713 Arizkun
BAZTAN (Nafarroa)
T.F. 948 453 493
**JOHN DEERE
ZERBITZUA**



ongi pasa
bestak!
TASKA
DOLAETXEA
T. 948 453 002 | ARIZKUN




Ondikol

ARIZKUNgo bestak EGITARRAUA



Ekainak 22 asteazkena **BESTEN HASMENTA**

12:00 Dianak, TXUPINAZOA eta "gazteen luntxe". **13:30** TXOPO GORATZIA. **14:00** Txopo gazteak eta endako bazkarie frontonian. **17:00** GINKANA herritarren artean. **20:00-21:30** Dantzaldie AGERRALDE akordeoilariarekin. **21:30** Baztan Zopak. **00:30** Dantzaldie AGERRALDE akordeoilariarekin. **05:30** Ziztor jatea.



Ondikol

Ekainak 23 ortzeguna **SAN JUAN BEZPERA - HAURREN EGUNE**

10:00 Dianak. **10:00** Haurrendako PUZGARRIEK eta JOKUEK. **14:00** Haurrendako bazkarie. **17:00** Haurrendako PUZGARRIEK eta JOKUEK. **17:30** TXOKOLATADA. **18:00** Kantaldie. **19:00** Trikipoteo. **20:00-21:00** Dantzaldie AGERRALDE akordeoilariarekin. **Ilunabarrean** SUEK ta mamuru erre-tzea. **22:00** Gaita eta zortzikoa. **00:00** Dantzaldie AGERRALDE akordeoilariarekin. **05:30** Zinger jatea.

Ekainak 24 ortzilerie **SAN JUAN EGUNE**

10:00 Dianak. **11:00** MEZA NAGUSIE. **12:00** Mutildantzak. **Ondotik** Herriko luntxe. **14:00** KUADRILLEN BAZKARIE (gazte eta zaharrak). **17:00** Pilota partidak. **19:00** TORTILLA PATATA lehiaketa. **20:00-21:00** Dantzaldie TRIKITEENS taldearekin. **22:00** MUTILDANTZA eta GAITA. **23:00-01:00** SKATU eta EGURRA TA KITTO kontzertuak. **01:00** Dantzaldie TRIKITEENS taldearekin. **05:30** Gasna jatea.



Ondikol

Ondikol

Ekainak 25 laurbeta **ZIKIRO JATEA**

10:00 Dianak. **12:00** MUS IÑEZTURE. **14:00** ZIKIRO JATEA. **Ondotik** Poteo Igandea txarangarekin. **20:00** KARAOKEA. **22:00** MUTILDANTZA eta GAITA. **00:00** Dantzaldie TRIKIDANTZ taldearekin.



Ondikol



ERRATZUKO bestak EGITARAU

Ekainak 28 asteartea BEZPERA EGUNE

18:00 Herritarren arteko futbito partida. **20:00** Txupinazoa eta ezkil jotzea. **21:30** Baztan Zopak Kastanean. **Ondotik** dantzaldia FRANTXISKO akordeolariarekin.

Ekainak 29 asteazkena SAN PEDRO EGUNE

10:00 Argi soinuak. **11:00** Meza Nagusia. **13:00** MUTILDANTZAK plazan eta LUNTXA Kastanean. **17:00** Herritarren arteko GINKANA. **20:00** Mariatxiak plazan: TXUTXIN IBAÑEZ Y LOS CHARROS. **21:30** MUTILDANTZAK, gaita eta larrain dantza. **22:30** SU ARTIFIZIALAK. **00:00** Dantzaldia MENDIBERRI taldearekin.



Ekainak 30 ortzeguna HAURREN EGUNE

10:00 Argi soinuak. **11:00** HAURRENDAKO JOSTETAK. **13:00** Haurren eta gurasoen BAZKARIA Kastanean. **15:30** HAURRENDAKO JOSTETAK. **17:30** HERRITARREN ARTEKO II. DESAFIOA: Izpegira bizikletan. Han Trikitilaria eta haurren txokolatada. **20:00** dantzaldia JOSETXOK alaiturik. **21:30** MUTILDANTZAK, gaita eta larrain dantza. **22:30** Dantzaldia IPARLAN, PANPI PORTUGAL. **00:00** Dantzaldia JOSETXOK alaiturik.

Uztailak 1 ortzileria

10:00 Argi soinuak. **11:00** PILOTA PARTIDAK Gorostapolon. **12:00** BERTSO POTEOA : Aimar Karrika, loar Tainta, Jokin Uranga eta *Ministro*. BIZKARGAIN fanfarreak alaiturik. **14:00** ZIKIROJATEA frontoian. **Ondotik** Dantzaldia FRANTXISKO akordeolariarekin. **20:00** Erreprezaliatuen aldeko KONZENTRAZIOA plazan. **21:30** MUTILDANTZAK, gaita eta larrain dantza. **23:00** KONTZERTUAK Zubipunta ostatuan. **00:30** DJ Alkape eta DJ Grande.



Uztailak 2 laurbeta

10:00 Argi soinuak. **11:00** APERITIFA. **14:00** Piki-nikia Merenderuan, **Ondotik** kalejira Iban eta Joxek alaiturik. **18:00** PILOTA PARTIDAK Etxelebert pilotalekuan. Lau eta erdian: AGIRRE - BENGOTXEA VII eta Binaka: MIKEL GOÑI-GOÑI II / PATXI EUGI-EULATE. **20:00** GAZTELU taldearen emanaldia Elizan. **20:00** Dantzaldia AIERRIK taldearekin. **21:30** MUTILDANTZAK, gaita eta larrain dantza. **00:30** Dantzaldia AIERRIK taldearekin. **Ondotik** Gaixoa Gu!

ALBANTZENA
Sanh Dendarista
OSTATUA-DENDA

Ongi pasa berriko bestak!

Albantzenea etxea, ERRATZU - tel: 948 453 112

KASTONEA
LANDETXEA
OSTATU-JATEXEA

Ongi pasa bestak!

91714 ERRATZU
948.561.393 - 434.933.760
www.kastonea.com - info@kastonea.com

IPARLA
OSTATUA

EGUNERO GOSARIAK

948 453 112
Adarrei buruzko - ERRATZU

PANPI PORTUGAL, ekainaren 30ean 22:00etan

ALEMAN ZERRATEGIA, S.L.

- Teñiturako estrukturaak, duglas, pinua, haritza
- Tanima
- Portxeak tamaina egokian
- Laminatuak eta KVH (zura zertifikatua)

Frantziako errep. zig • ERRATZU • 948 453 173

ZUBI TUBUS
PUNTA ATUUA
ERRATZU USTARRAZ

restaurante · jatekua
BIXTA-EDER

OSTIRALA, LARUNBATA, IGANDEA
ETA BESTA EGUNETAN IREKIA

Ongi pasa bestak!!!

948 453 358 • 690 335 327
Azpilkuetako errep. - ARIZKUN
www.bixtaeder.es - bixtaeder@hotmail.com

BERATARRA ERAIKUNTZAK

Leitzako b. 66 - 8. blokea 2C
DONEZTEBE

Jose Ignacio Maritorena Larralde
670 489 337

ONGI PASA BESTAK



ERRINTZE



OSTATIVA

*Aurtengo
bestak umore
ederrean
pasatu*

Merkatarien karrika 28
☎ 948 451826
DONEZTEBE



RUIZ

okidegia • autozerbitzua

T. 948 450 037 F. 948 450 037 • Nagusia, 15 • DONEZTEBE
E. fernando@donezpan.e.telefonica.net

AMAIUR
mobiliario de cocina y baño

ETXETREKAK | PISUAK | ETXERAK | KOPURKIALTZAK
DEKORAZIOK | ARRAU-ERROTATZAK | GELAREN ARTXO KOKOPAZIOK



Rosa Seminario, 13
DONEZTEBE SANTESTEBAN ☎ 948 450 400
info@mueblesamaiur.com



DONEZTEBE SANTESTEBAN | Tel. 630 779 636
puntosantesteban@gmail.com

Husqvarna Robin

**MIGUEL ANGEL
LACAMBRA, S.L.**


CONFORT
auto
tu taller personal

Aparan Ind. 3 | 2.atea | DONEZTEBE
948 451 968 | 687 736 969

ONGI
PASA
BESTAK

Clinica Dental IRURITA RUBIO

ORTODONTZIA



INPLANTEAK



Dr. Iturza Rubio (Kol. 241) • Ortodontziako Masterra • IAOko kidea (International Association for Orthodontics)

Dr. Jose Luis Irurita (Kol. 340) • Ahoko Implantologia eta Periodontziako Masterra

- Rx. Panoramikoa
- Kirurgia
- Protesiak
- Periodontzia
- Endodontzia
- Hortz-zuritzea
- Odontopediatria
- PADI (Haurren hortzak zaintzeko programa)

DONEZTEBE | Rosa Seminario, 19 esk. 948 450 267 LEITZA | Manuel Lasarte, 7esk. 948 610 713

DONEZTEBE

ekainaren 28tik
uztailaren 2ra



ttipi-ttapa | 544 zbk
2011.06.09

15

Lorena ALMANDOZ | Erreka dantza taldeko partaidea

«Aurten lehen aldiz dantza saioa San Pedro egunean egingen dugu»



Lorena Almandoz gazteak ttikitatik izan du dantzarako zaletasuna. Kanpora ikastera joan zen arte aritu zen Erreka Dantza Taldean. Denboraldi batez herrian ez da dantza talderik izan, baina orain dela lau urte lehen dantza taldean ibili ziren batzuk elkartu eta berriz hartu zuten martxa. «12 laun elkartzeko gara astean behin».

Urtean zehar hainbat emanaldi eta ekitalditan hartzen dute parte: Eguberrietan, Errekaren egunean, eskualdeko jai desberdinetan... «Urtetik urtera ekintza gehiagotan parte hartzen joan gara». San Pedroan, urtero bezala, «Trapatan dantzatzeko dugu elizako atarian eta aurten lehen aldiz arratsaldean ordu beteko emanaldia eskainiko dugu». Bestak hurbil daudela ikusita orain astean bitan elkartzeko hasi dira, saio borobila egin nahi dutelako. Emanaldi horrek bezperako parranda baldintzatzen duen galdetuta «talde osoak dugu zalantza berdina, baina besta pixka bat egingen dugu».

Burrumba eguna da Lorenarentzat bestetako egunik bereziena. «Gazteak elkartu, bazkaldu, dantzatu eta kantatu, giroa ezin hobea da». Azken urteotan aste tartean izan da «kanpoko jende aunitziki ez da egoten da eta egun onena izaten da besta egiteko». Baina aurtengoan San Pedro eguna ere berezia izanen da arratsaldeko dantza emanaldiarengatik «beraz, bi egun aukeratu nitzuke, Burrumba eguna eta San Pedro eguna».

Doneztebeko beste ez zaie deus falta Lorenaren ustez. «Aurten egun asko dira eta tarteko egun batek atsedenez eguna izan beharko luke». Bere proposamena «atsedeneko egun hori egin eta bertze egunetan gauza gehiago antolatu».

Besta Tikiak maite ditu baina San Pedroen zain egoten dela ez du ukatzen. «Neguan inauterik edo kinto bestak kenduta ez da besta aunitziki izaten herrian eta uda hasierako lehen besta hauek gustora hartzen dira».

Hainbat herritako udako besten aperitiboa dira Lorenarentzat Doneztebeko San Pedroak «etortzen denak giro paregabea eta herri giro bikaina izanen ditu zain».

goldea
La Derra s.l.s.
ongi pasa bestak!
Tel./fax: 948 451 780
e-mail: goldeala@nafarroa.net
P.I. Industrial Auzoa, 1
3000 Doneztebe (Nafarroa)

MATTE ilcapa indiegia
Solarium-a
GIZON ETA EMAKUMEENDAKO
Mourges Etorbidea, 4
© 948 451 780 - DONEZTEBE

MAYLIN OSTATUA
Dng. yosa bestak!!
Bokadilloak • pintxoak • plater konbinatuak
Parrokia, 15 DONEZTEBE • T. 948 45 03 66

Juantxo San Miguel
Iturgintza • Kalefakzioa
gasa
T. 948 450 866 • 626 112 415
Elizagabea, 2 • 31740 DONEZTEBE

ARRATE E/TETIKA ZENTROA
DENONTZAKO
ESTETIKA PROFESIONALA
• System dermatologic
Maria Galland 60€/49€
• Manikura iraunkorra 30€
• Pedikura iraunkorra 35€
• Mantxak kentzeko 60€
elafara zahala!
ESKATU PREZIOEN ZERRENDA.
berta elafentik gora!
Intzakardi, 7 | DONEZTEBE (Nafarroa) | 948 450 284

Doneztebe auto-eskola
A1 - A - B - BTP
C1 - C eta E
karnetak ateratzen
ahal dira
Besta onak pasa!
☎ 948 451 929
Leitzako errepidea, 2 behea - DONEZTEBE



arozena ostatua

gosariak eta bazkariak
 T. 948 450 443
 Leitzako errep., 84 - Doneztebe

ANTONIO ARTAZCOZ GOÑI

 • Loteria primitiva
 • Kimietak
 • Pelukeroa
 T. 948 450 081
 Merkatarien karrika, 8 • DONEZTEBE


BLAS
Liburudenda

 Eskolako materiala
 Egunkariak • Aldizkariak
 Gazokiak
 948 450 269
 Parrokie 1
DONEZTEBE

SALDIAS HARATEGIA

 Bertako haragi
 freskoetan espezializatuak
 Etzeko talarra

 Karrika Nagusia, 19 • 948 450 191 • DONEZTEBE


GONZALO FERNANDEZ LAMANA y A.T., S. CV.
 Ingeniaritza tekniko industrialak
 • Bulego teknikoak: proiektuak, obra zuzendaritzak, etab...
 • Instalazio elektrikoak
 • Etzako eta industriako elektrizitatea
 • Expressen mantenimendua, etab...
 Etxegunea, 5 - DONEZTEBE. Tel/Fax: 948 450758

Sampi Aragón, S.A.
MARKA GUZIEN KONPONKETA
 Mekanika | Elektrifikatzea | Txapa | Pintura

 948 450 354 | DONEZTEBE
 sampiaragon@telefonica.net
ONGI PASA BESTAKI

TABERNA ZAHARRA

UDABERRI-UDAKO MODA
 Gizon eta emakumeendako arropa-denda
 Gortinak eta etxerako arropak
 Merkatarien karrika, 11
DONEZTEBE
 Tel. 948 450 007


CTV ALBAITARITA ZENTRU TEKNIKOA
ONGI PASA BESTAKI
 Rosa Seminario, 15 • DONEZTEBE
 T. 948 450 591


Red Nasursa
 OFICINAS COMARCIALES
 ESKUALDE MAILAKO
 BULEGODUN BARRA
 Etxebizitza eta hirigintzari buruzko
 Aholkularitza teknikorako
 Eskualdeko bulegoa
 Herritarrendako zerbitzuak
 Udalendako zerbitzuak
 Tel. 948 456 103 • Fax: 948 451 320
 baztan-bidasoa@nasursa.es • www.nasursa.es
 Merkatarien karrika, 6 DONEZTEBE

IBARROLA
 Haurrendako arropa
 0-14 urte
 Parrokie 100 • Doneztebe
 948 450 443
LARUNBAT ARRATSALDE TAN IREKIA


Mendaur Motor

 Autoen konponketa eta salmenta
 Txapa eta pintura


 Leitzako bidea • DONEZTEBE
 Tfnoa: 948 450 333

616 513 497
Pitti ESKABAZIOAK

GARRAIOAK, ESKABAZIOAK, KONTENEDOREEN ZERBITZUAK

 Kontenedoreak: 5 m³ - 7 m³ - 12 m³ - 30 m³
Mota guztietako hondakinak biltzen dira
 Tel/Fax: 948 45 13 89
 Ezpelura, 1 • 31740 Doneztebe (Nafarroa)
www.pittieskabazioak.com
 pittieskabazioa@terra.es



DONEZTEBEko bestak EGITARAUA



Ekainak 28 asteartea BEZPERA

10:30 OMENALDIA 85 urtetik goitikoendako eta urrezko eta platinozko ezteiak egiten dituztenei. **MEZA** pilotalekuan. **13:00 KIROL-ERAKUSTALDIA**. **15:00 BAZKARIA**. **Ondotik** Dantzaldia. **20:00 SUZIRIA**, Herriko Etxetik. **Ondotik** karrika-dantza CORCOR txarangak eta Txistulariek alaitua. **00:30-03:30** Dantzaldia GAUBELA taldearekin.




Ekainak 29 asteazkena SAN PEDRO EGUNA

09:00 Diana CORCOR Txarangak girotua. **11:00** Done Petri Apostoluaren omenezko MEZA NAGUSIA. MENDI ABESBATZAK Lorenzo Perosi Presbiteroaren 'Missa Secunda Pontificalis', Hilarión Eslavaren 'Tu es Petrus' eta José Antonio Irigoyenen 'Agur Doneztebe' abestuko ditu. BANDERA-DANTZA, Trapatan eta bertze dantza tradizional batzuk, Erreka Dantza taldearen eta Doneztebeko Txistularien eskutik. **11:00** ERRALDOIAK eta BURUHANDIAK, Txistularien bandak lagunduta. **13:30** APERITIBOIA, Herriko Etxeko Behealdean. **17:30** MUSTXAPELKETA. **19:00** EUSKAL DANTZAK, Erreka Dantza taldearen eskutik, Bear zana pilotalekuan. **20:00-22:00** Dantzaldia LAIOTZ taldearekin. **22:15** ZEZENSUZKOA eta JAPONIAR BONBAK, Bear Zana pilotalekuan. **00:30-03:30** Dantzaldia LAIOTZ taldearekin.



Ekainak 30 ortzeguna GAZTE BURRUNBAREN - TTIKIEN UDALA

09:00 Diana CORCOR Txarangak girotua. **11:00** Ttikien Udalarri Ongietorria. **Ondotik** Alkate ttikien eta haren zinegotziek SUZIRIA botako dute. Erraldoiak eta buruhandiak, txistulariek lagunduta. **11:30** MEZA, ttikien Udalbatza buru dela eta Erraldoiek, buruhandiek eta txistulariek lagunduta. **Ondotik** EUSKAL DANTZAK, Dantzari Ttikien Dantza taldearen eta Txistularien eskutik. Buruhandien herriko karriketan barna. **12:00** TRIKI-POTEOA, Gazte Burrunbarekin. **14:00** Gazte Burrunbaren BAZKARIA. **Ondotik** Dantzaldia. **14:30** Ttikien Udala aukeratzeko parte hartu duten haur guztiendako BAZKARIA. **16:00-20:00** Haurrendako KARTak eta PUZGARRIAK, Bear Zana pilotalekuan. **20:00** Ttikien Udalbatzak bere agintaritzak utziko du Herriko Etxean; Ttikien Udalbatzako DIPLOMA BANAKETA. **21:00** TXISTOR-JATEA, Santa Luzia Plazan. **20:00-23:00** Dantzaldia AIERRIK taldearekin.



OLAZAR aroztegia S.L.

- aroztegi metalikoa
- itxiera metalikoak
- aluminio aroztegia
- estruktura metalikoak
- zerrailgintza
- galdaragintza
- ate baskulaztaileak
- ate automatikoak

Aparan Ind, 1
948 456 183
Mugikorra:
649 139 365
DONEZTEBE



Mutuberria Alimentación S.L.



Aliprox




T. 948 456 152
Zazpigarutze, 8
31740 DONEZTEBE
mutuberria_alimentacion@hotmail.com

TITI BAR
ongi pasa bestaki
Amezia, 7 - 948 450 271 - DONEZTEBE

maria
leapaindegia
T. 948 450 922
Zazpigarutze, 6
Doneztebe

ILEA ALISATZEKO AUKERA DESBERDINAK
- Lisatze japoniarra
- Lisatze brasiltarra
- DHA. Keratina tratamendua. Osagai kimikorik gabe, ilea berreskuratzesaz gain, hidratazioa lortzeko

ILE- LUZAPEN ITSASGARRI BERRIENAK

ILE APAINGARRIAK
[ezkontza, jaunartze eta ospakizunetarako apaingarri berriak]

LOREAL INNOA
Amoniakorik gabeko ile-tinduek

KERATIN
INNOA
DHA TECHNOLOGIES

esarte

Santiago 83 B bajo
31700 Elizondo
T 948 581 907
www.precocinadosesarte.com

DONEZTEBE
ekainaren 28tik
uztillaren 2ra

Pablo ELIZONDO | Erreka kirol elkarteko kidea

«Bezperako afarien ondotik giro bikaina izaten da herrian»



Erreka Kirol Taldeko kidea da Pablo Elizondo. Urte batzuk badira kirol taldeko zuzendaritza utzi zuenetik **«baina beti nabil taldearen inguruan. Laguntza guztia esker onekoa izaten baita horrelakoetan»**. Erreka Kirol Taldeak hiru eremu nagusi ditu, eskubaloia, judoa eta pilota. **«400 bazkide inguru gara elkartean, horrek erran nahi du osasuntsu gaudela»**.

Urtean zehar hainbat aktibitate antolatzen dituzte Erreka Kirol Taldeak. Mendi ibilaldiak, herri krosa, Errekaren Eguna, udako kirol eskolak, pala txapelketa... Antolatzen dituzten jarduera multzoak garbi erakusten du ez direla geldirik egoten diren horietakoak.

San Pedroako egunik politena **«bezpera izaten da. Egun horretako afaria da gehien gustatzen zaidana»**. Herriko jendea elkartzen da afaltzera eta giro bikaina izaten delako gozatzen du Pablok. Politena eta bereziena desberdintzen ditu, bereziena, San Pedro eguna delako Pablorentzat.

Ez luke ezer aldatuko San Pedroetatik. **«Beti antolatu daitezke gauza gehiago bestetan baina, orain, krisia dela eta, ez dago gehiago eskatzerik»**.





Aurtengo bestak, ordea, desberdinak izanen dira berarentzat. Aita izan denetik lehen San Pedro bestak izanen ditu aurtengoak. «Bestak bizitzeko modua aldatuko zait, baina saiatuko naiz moldatzen besta pixka bat egiteko».

Besta Ttikiak sortu zirenean antolatzaile taldeko kide izan zen. «San Miguel auzoko bestak egiten ziren. Besta horiek desagertu zirenean asteburua hutsik gelditu zen eta Besta Ttikiak sortu genituen». Nahiz eta Besta Ttikien sortzaile taldean egon, ez du zalantzarik egiten San Pedroak edo Besta Ttikiak aukeratzekoan, «San Pedroetarako ohitura gehiago izaten dugu eta horiek dira nire kuttunenak». Norbait zalantzan balego, Doneztebeko bestetan parte hartzera gonbidatu nahi du jendea Pablok. «Giro bikaina izanen da eta lehen aldiz datorrena berriz ere etorriko da».



Juanotena
zurgindegia
• Ateak • Eskalera • Lelhoak •
Zurgin lanak orokorrean
Leizako bidea, 35 • Tfno: 948 450 211 • DONEZTEBE

DONEZTEBE
ESTALUNTZA MAKINA ETA
ZEHARBUZUN ALOKAERIA
OWE PASA BESTAK
948 450 714
31740 DONEZTEBE

Mendiburu
aziendak • tratantea
Angi pasa
horrilo bestak!
608 676 221
948 450 084
DONEZTEBE

KONTXA

Gasolindegia



✓ Deitu eta egun berean edo biharamunean eramanen dizugu etxera



Angi pasa bestak!

T. 948 450 272 • F. 948 450 810 • DONEZTEBE

MARIA MILAGROS ELGEZUA
ABOHATUR

ONGI PASA BESTAK!

Parrokia, 7 beheak
31740 DONEZTEBE
Tel eta Faxa: 948 450 781
Mugikorra: 687 425 839
miege@elgezuamail.com

LANTEGIAH PARTHULARIAH

Santa Luzia Plaza, 2
31740 DONEZTEBE
T. 948 451 752
M. 609 418 097
info@zarbo.net
www.zarbo.net

zrb.net
informatika

ONGI PASA BESTAK!

Adinduentzako egokitutako telefono berriak
Ehizarako eta muturreko baldintzetan lan egiteko mugikorrak

MARTIN-IBARRA



Forja artistikoa · Aroztegia
forjamartin@baztanbidaso.com

M. 669 068 622
T. 948 393 280 · F. 948 393 279
Oteiza auzoa, 4 · 31740 DONEZTEBE



DONEZTEBEKO UDALA

DONEZTEBEKO BESTAK 2011

Ekainaren 28tik uztailearen 2ra
Doneztebeko Udalak
besta zoriontsuak
opa dizkizue
herritar eta bisitari guztiei




AGUSTIN SAN MIGUEL
AZPIROZ
EGITURA METALIKOAK

- Ateen automatizazioa
- Ata metalikoak, baskulagariak, lerragariak, bi orrikoak
- Biaranda eta hesiak
- Ata sektionaletan sukera zabala
- Telaturako kafia mota guztiak; panelak, eta telaren imitazioak
- Fatxadetanako txapak

Leitzako errep. 68 · DONEZTEBE
948 450 224 · 629 328 550

Merkaopari
www.merkaopari.es

Made in Euskal Herria



Etor zaitez ikustera
Euskal Herrian egindako artikulu berriak
Hauak eta askoz gehiago Merkaopari dandan



Ki kider
le. ni. um

Tarima eta parket
Flotagarriak


T. 948 456 010 F. 948 456 148
DONEZTEBE
www.industriaskider.es

ZABALA

korinetarako sistemak
Bertako zurak eta inportazioak

Oihan ustiaketak
Zerrategia eta sekaderoak

T. 948 450 135 · F. 948 450 498
www.maderasabala.es · DONEZTEBE



Kimetz
Belardenda

- Dietetika eta nutrizioa
- Dieta pertsonalizatuak, Grasa eta likidoen kontrola.
- Masajeak: terapeutikoa / osteopatia / reflexoterapia / kiromasajea...
- Naturopatia / iridiologia / bach loreak / quantum / terapia emozionala...
- Bioenergetika / medizina txinatarra (akupuntura)...
- Apiterapia

BESTA ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUET

Lorea Agirre Iribarren
Nutrizio eta Dietetikan Diplomadua

Leitzako errep. 3 beheak
31740 Doneztebe

Tel. 948 451 473
kimetzbelardenda@hotmail.com



Marquesa
LENTZERIA

LENTZERIA KORTSETERIA BAINUA

ONGI PASA BESTAK!

Parrokia, 11 · DONEZTEBE · 948 45 01 12
Jaime Urreus, 43 · ELZONDO · 948 581 301

DONEZTEBEko bestak EGITARRAUA



Uztailak 1 ortzirala

09:00 DIANA, Doneztebeko txistulariek girotua. **11:00** BURUHANDIAK, herriko karriketan barna. **11:00** ESKUBALOI-PARTIDA, Erreka Kirol Elkartearen eskubaloi-eskolak antolatuta. **12:00** GORRITI eta BERE ANIMALIEN SAIOA, Bear Zana pilotalekuan. **17:00** MEZA eta Jesusen Bihotzaren PROZESIOA. **18:00** ESKU-PILOTAKO eta ERREMONTE jaialdia, Erreka Kirol Elkartearen pilota-eskolak antolatuta. **20:00-22:00** Dantzaldia TRIKIDANTZ taldearekin. **01:00-04:00** Dantzaldia TRIKIDANTZ taldearekin



Uztailak 2 larunbata

09:00 Diana CORCOR Txarangak girotua. **11:00** TXU-TXU TRENA, herrian barna, eta PUZGARRIAK, IGERILEKUAN. **11:00** BURUHANDIAK, herriko karriketan barna. **11:00** PLATER-TIROKETA, Ehiza Elkarteak antolatuta. **14:00** HERRI-BAZKARIA. **20:00-22:00** Dantzaldia JALISKO BAND taldearekin. **22:30** SU ARTIFIZIALAK. **01:00-04:00** Dantzaldia JALISKO BAND taldearekin.



ARIN
ASEGURUAU

DONEZTEBE
Ongi pasa bestak!

BERA

Parrokia, 21 | DONEZTEBE | T. 948 450 266 - F. 948 450 617
Eztegara, 26 | BERA | T. 948 625 259 - F. 948 625 264

Angie
ENGLISH ACADEMY

- Itzulpen lanak
- University of Cambridge azterketara aurkezteko prestakuntza
- Eskola-laguntza
- 2011/2012 kurtsoarako matrikulazio epesa zabalik, plaza mugatuak

AURTEN OSPATZEN DITUGU 20 URTE MALERREKAN
Ongi pasa bestak!

Elizagibela, 7 beheak - 31740 DONEZTEBE
T. 626 908 076 - angieacademy@gmail.com

EDERKI tailerra

PEUGEOT

Peugeot eta Citroën
Agente Ofiziala

24 orduz grua zerbitzua

CITROËN Hidraulika "fatigabileren" moldaketa

Leitzako bidea - 948 450525 - DONEZTEBE

ZERGALAN
aholkularitza

Zuen negozioen paper guztietaz arduratuko gara: kontabilitatea, zergak, langileak, eraikuntzaren formakuntza, ...

www.zergalan.es
ongi pasa bestak!

Eliza kalea, 22 - 31740 DONEZTEBE (NA)
Tel. 948 450 395 - Faxes. 948 451 304

KULTURA

BERTSOLARITZA → FINALA

Sari andana lortu dute eskualdeko gaztetxoek Nafarroako Bertsopaper lehiaketan

Kategoria guztietako lehen sariak Leitza, Lesaka eta Berara joan dira

TTIPI-TTAPA

Emaiza bikainak eskuratu dituzte eskualdeko neska-mutikoei Nafarroako Bertsazole Elkarteak hezkuntza arautuan antolatzen duen bertsopaper lehiaketan. Saridun gehienak eskualdekoak dira, Bortzirietakoak, baztandarrak eta leitzarrak, zehazki.

SARIDUNAK

Lehen Hezkuntzako bigarren zikloko dagoeneko, Leitzako Erleta ikastetxeko Xabat Ilarregi Marzolek eskuratu du lehendabiziko saria; Lesakako Tantiurumairu ikastolako Uxue Mesa Garmendiak bigarrena eraman du eta Baztan Ikastolako Oier

Ariztegi Elizondok hirugarrena.

Lehen Hezkuntzako 3. ziklokoen artean, Tantiurumairu ikastolako Paulo Ramos Zumaldek irabazi du lehiaketa eta Erleta ikastetxeko Beñat Altzelai Canflanca eta Joanes Ilarregi Marzolek sailkatu dira bigarren eta hirugarren, hurrenez hurren.

DBHko 1. eta 2. kurtsoko ikasleen artean, lehendabiziko saria Berako Labiaga ikastolara joan da, Urki Txoperena Elosegirentzat izan baita; hirugarren postua ere Bortzirietan gelditu da, Berako Toki Ona institutuko Xabat Matxikote Seinenzat izan delako.

DBHko hirugarren eta laugarren mailako kategorian, lehendabiziko saria Toki Ona institutuko Ainara Etxabide Sagarzazurentzat izan da.

Eskualdean gelditu ez diren sariak Etxarri Aranatz, Iruñea eta Barañainera joan dira.



ARGAZKIA: BERTSOZALE ELKARTEA

Bertsopaper lehiaketako sariak banatu dira Baztan-Malerrekan

Nafarroako Bertsazole Elkarteak hezkuntza arautuan antolatzen duen bertsopaper lehiaketaren barne, Baztan eta Malerrekako bertsopaper sarien banaketa egin da berriki. Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailan, lehen saria Baztan Ikastolako Oier Ariztegi lortu du eta eta 5. eta 6. mailan Doneztebeko San Miguel eskolako Uxue Ibarrolak. DBHko 1. eta 2. mailan, Doneztebeko Mendaur institutuko Jon Aldabek hartu du lehen saria eta 3. eta 4. mailan, Lekaroz institutuko Sukil Etxenik.



ARGAZKIA: BERTSOZALE ELKARTEA

Bertsopaper lehiaketako sariak banatu dira Bortzirietan

Nafarroako Bertsazole Elkarteak hezkuntza arautuan antolatzen duen bertsopaper lehiaketaren barne, Bortzirietako bertsopaper sarien banaketa egin da berriki. 3. eta 4. mailan lehendabiziko saria Lesakako Tantiurumairu ikastolako Uxue Mesarentzat izan da eta 5. eta 6. mailako lehendabiziko saria ikastetxe bereko Paulo Ramosentzat. DBH 1 eta 2. mailan, Labiaga Ikastolako Urki Txoperenak eskuratu du sari nagusia eta 3. eta 4. mailan, Toki Ona institutuko Ainara Etxabidek.



ARGAZKIA: BERTSOZALE ELKARTEA

Bertsopaper lehiaketako sariak banatu dira Leitzaldean

Nafarroako Bertsazole Elkarteak hezkuntza arautuan antolatzen duen bertsopaper lehiaketaren barne, Leitzaldeko sarien banaketa egin da berriki. 3. eta 4. mailan Erleta eskolako Xabat Ilarregi izan da lehen saria eraman duena; 5. eta 6. mailan ikastetxe bereko Beñat Altzelai; DBH 1 eta 2. mailan, Amazabal institutuko Martxel Intxausti izan da irabazle eta 3. eta 4. mailan institutu bereko Ibai Zugarramurdi.

F. LANCHAS
Akutoladorea eta berriztatzailea
Parket eta parket flotatzaila
jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 607 406 781



Club Más Por ti
Gehiago Zuzergatik Kluba

Erosketa berrien %15 puntu
trukagarritan Nafarroako
Kutxaren eta Rural Kutxaren
bezeroentzat*

Lortu puntuak/euroak
Gehiago Zuzergatik Klubeko
bazkide eginda

Erosi eta lortu euroak Nafarroa
osoko ia 200 saltokitan

% 15

Informazio gehiagorako
eta alta emateko, deitu
948 01 01 31 zenbakira edo
sartu www.clubmasporti.com
webgunean

**EKAINAREN
6TIK 20RA**

Eta, horrez gain, opariak ere
zozketatzen ditugu zuzenean:
**EROSKETA-TXARTELAK,
BIDAIK ETA SENDA VIVAKO
SARRERAK****

*Promozio honek ekainaren 20ra arte iraungo du edota
aurrekontua agortu arte (71.000 €). CANen edo RURAL
KUTXAREN datafonostan finantzia-bartela erabiliz ordaintzen
duten CANen edo RURAL KUTXAREN bezeroentzat soilik.

**Zozketaren oinarriak hemen: www.clubmasporti.com



KULTURA

BERTSOLARITZA → FINALA

Josu Sanjurjo nagusi 14-18 urtekoen Nafarroako Eskolarteko Txapelketan

Euskal Herriko txapelketarako txartela eskuratu du

TTIPI-TTAPA

Josu Sanjurjo bertsolari lesakarra nagusitu zen maiatzaren 27an Txantrean jokatu zen 14 eta 18 urte bitarteko Nafarroako Eskolarteko Bertsolari Txapelketako finalean. Hamar bertsolari gazte aritu ziren lehiaran eta lesakarra gailendu zen. Manolo Arozena bertsolariak eta Nafarroako Bertsozale Elkarteak lehendakari ohiek jantzi zion txapela.

Bigarren postua Irati Majuelo iruindarrarentzat izan zen eta bi bertsolari hauek izanen dira Nafarroako ordezkariak ekainaren 18an Agurainen jokatu den Euskal Herriko Eskolarteko Txapelketan.

Parte hartu zuten bertsolarien artean berze hiru izan ziren eskualdekoak: Amaia Elizagoien (Ornoz), Mikel Telletxea (Lesaka) eta Sukil Etxenike (Narbarte).

Ekainaren 5ean, bertalde, 14 urte bitarteko Eskolarteko Txapelketa egitekoa zen Larraintzarren, Nafarroako Bertso Eskolen Eguna barrenean.



14-18 urtekoen Nafarroako Eskolarteko Txapelketan parte hartu zuten bertsolariak.



UTZITAKO ARGAZKIA

Baztan-Bidasoaldeko bertso paper lehiaketako sariak banatu dira

Banatu dira XXIV. Baztan-Bidasoaldeko bertso paper lehiaketako sariak. **A mailan**, lehen saria Lesakako Ane Telletxearentzat izan da (*Apeza maritua*) eta bigarrena Igantziko Maiana Seinenzat (*Margoketa*). **B mailan**, Azkaineko Aitor Etchechur-Servier izan da garaile (*Oharkabean*) eta bigarren saria bitan banatua gelditu da: Doneztebeko Jon Aldabe (*Hilketa gertatu da*) eta Beatriz Maritorenarentzat (*Bearzana frontoia*) izan baita. **C mailan**, Aitor Arotzena lesakarrarentzat izan da sari nagusia (*Miraria Lourdesen*) eta bigarrena loar Tainta lesakarrarentzat (*Gernika*).

**OPORRIK HOBERENAK NAHI DITUZU?
AURRERATU ETA AURREZTU.**

IRLAK 362€	KARIBE 950€
TENERIFE Apt. 100 Florida*** 100 112 € Colonilla las Vegas**** 100 429 €	PUNTA CANA R. Marina Park**** 100 108 € R. Marina Tropical Suite Oceanic 300 1.819 €
LANZAROTE Jantzi. 1.000 Baitosha 100 382 € R. Baitosha Plaza**** 100 422 €	RIVIERA MAYA R. Blue Laguna**** 100 999 € R. Grand Terrace Oceanic Suite**** 100 1.092 €
BRASIL 881€	JAMAICA R. Blue Stone Bay/Manoaha Bay**** 100 1.287 € R. Club Oceanic Bay**** 100 1.243 €

INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK:
Eztegara 22, behea.
31780 BERA Navarra
Tel. 948.631.388 . E.mail:
bera.1266@viajesiberia.com

Baiez joan

VIAJES IBERIA

UDALA → HIRIGINTZA

Altzate inguruko hirigintza planaren aldaketa behin betiko onartu du Udalak

Horrela, 18 BOE eta aparkaleku gehiago egingen dira

TTIPI-TTAPA

Altzaten 56 bizitza eta 162 aparkaleku egiteko aukera emanez, hirigintza planaren aldaketa behin betiko onartu du Udalak. Erabakiak eremu horretarako lehendik aurreikusia zegoen egitasmoan aldaketak ekarri ditu, aparkaleku eta bizitza gehiago egingen baitira.

Lehenago, Babes Ofizialeko sei etxebizitza aurreikusiak zeuden eta onartu berria den plan aldaketarekin, guttienez 18 egingen dira eta etxebizitza kolektibo libreak 38 izanen dira –lehen 18 ziren aurreikusiak–. Altzateko aparkaleku

arazoak moldatzeko, aparkaleku kopurua ere igo egingen da. Guztira 88 aparkaleku publiko eta 84 pribatu eraikitzeke asmoa dago –lehen 86 publiko egitea zegoen aurreikusia–.

Josu Irtzoki alkateak adierazi digunez, «erreak bazterrean eremu berde zabal bat egingen da eta eremu hau Altzate karrikarekin lotzeko oinezko bide bat ere bai». Zubi batzuk ere aldatu beharko direla gaineratu digu alkateak, uholdeen ondorioz sor daitezkeen arazoak ttitikitzeko. Bajuetan bititzak ere izanen dira eta «ez da bajo komertzialik aurreikusi».

Bertzalde, lehen zortzi bifamiliar eraikitzea aurreikusia zegoen, baina aldaketa onartu ondotik, ez da bakar bat ere



UTZITAKO IRUDIA

Itxura hau hartuko luke Altzate inguruak, hirigintza plan aldaketaren arabera.



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Bertso musikatuak ikastola eta eskolako neska-mutikoen eskutik

Baztan-Bidasoaldeko Bertsopaper lehiaketaren sari banaketa egunean, ikuskizun ederra eskaini zuten Labiaga ikastola eta Ricardo Baroja ikastetxeko ikasleek. Bertso musikatuak eskainiz saio polita atera zitzairen.

Kaxerna Gaztetxearen 5. urteurreneko ospakizunek igandera arte segituko dute

Bortz urte bete ditu aurten Kaxerna Gaztetxeak eta urteurrena behar bezala ospatzeko hainbat ekitaldi egiten ari dira astelehenaz geroztik. Igandera bitarte izanen dira gehiago ere. Asteartean, hilak 7, 18:00etan haur jolasak eta 19:00etan pailazoak izanen dira. Asteazkenean, 18:00etan Palestinari buruzko hitzaldia izanen da eta 21:00etan herriko produktuekin afaria. Ortzegunean, 18:00etan pin pon txapelketa egingen da eta 21:00etan zinea. Ondotik, zorrunka gaua izanen da. Ortziralean, euskal dantza taile-

rra egingen da 18:00etan eta 22:00etan trikitixa gaua eta irrintzi lehiaketa. Egun haundia, halere, larunbatekoa, hilak 11, izanen da. 10:00etan mural margotzea egingen da; 12:00etan euskal presoan aldeko topa; 14:00etan urtebetetze bazkaria (txartelak Errekalden eta Katakun salgai, ortzegunera arte bortz eurotan); 18:00etan kalejira-potea egingen da; 20:00etan makarrodada afaria eta 21:00etan kontzertuak Whiskey mama eta talde sorpresa batekin. Igandean, azkenik, 18:00etan kontzertu sorpresa izanen da.

izanen. Hori izan baita aldaketaren oinarria. «Herrigunea ez genuen egokia ikusten etxebizitza

bifamiliarrak eraikitzeke, lur aunitz okupatzen dutelako eta ez delako eredu jasangarria herrigunean egiteko. Hauen salneurria ere hagitz altua da. Horren orde, bizitza dentsitate gehiago sartu da, lurra hobeki aprobetxatzeko asmoz», azaldu digu Irtzokik.

Altzateko bestak

Ekainaren 17tik 19ra bestak ospatuko dituzte Altzaten.

Bide hezkuntza

Istripuak eta ondorioak izenburupean Toki Ona Institutuko DBH1-eko ikasleek bide hezkuntza landu zuten joan

den hilabete bukaeran. DBH3koek, berriaz, Mapfre Fundazioaren *Segundu batean zure bizitza aldatzen da* filma ikusi eta mahai-ingurua egin zuten Semper autoeskola, Mapfre Fundazioko kide eta Foru Poliziarekin.

Ikastaroak Semper autoeskola eta Mapfre Fundazioaren eskutik egindako sentsibilizazio kanpainaren barruan egingen dira.

Realeko bufandak

Realzaleak biltzen dituen Genaro Taldeak bufandak atera ditu. Zortzi eurotan eros daitezke Xuga ostatuan.

LESAKA

HEZKUNTZA → IKASTURTE BUKAERAKO OSPAKIZUNAK PREST ESKOLAN ETA IKASTOLAN

Ikasturteari adio erranen diote Irainen eta Tantirumairun

Hilabete osoan egiten ari diren ekitaldiak hilaren 21 eta 25eko bestekin borobilduko dira

Aitor AROTZENA

Ikasturtea agurtzen hasiak dira herriko bi ikastetxeetan zenbait ekitaldi direkin. Irain eskola publikoan, 6. mailako ikasleek *Herodoto* antzeslana eskaini zuten ekainaren 3an eta ekainaren 10ean, bide hezkuntza saioa antolatu dute goizean zehar. Ikasturte bukaerako besta, berriz, ekainaren 21ean egingen dute. 09:00etatik 13:00etara herri kirolak, jokuak, txistorrada, sari banaketa eta bertze ekintzak izanen dituzte.

Tantirumairu ikastolan, ekainaren 1ean Txoko Txiki ipuin eta ilustrazio lehiaketako sari banaketa egin zuten. Ekainaren 17an, Pipergorri aldizkaria argitaratuko dute eta ikasturte bukaerako besta ekainaren 25ean izanen dute. 11:30etik aitzinera, guraso eta laguntzaileek paellak prestatuko dituzte eta gero paella jatea eta bertzelako animazioak izanen dituzte.



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Haurren Eguna arrakastatsua suertatu zen

Irain ikastetxe publikoko eta Tantirumairu ikastolako guraso elkarteek elkarlanean antolatutako Haurren Eguna ederki ospatu zuten herriko neska-mutikoei. Komentu inguruan jarritako puzgarri, bizikarts eta garai bateko jokuetan ibili ziren, eguzkia lagun. Arratsaldean musika eta berendua izan zuten.



ARGAZKIAK: TELLETXEA

Beti Gaztek iguera bai, baina finala ez

Bere multzoko lehen sailkatua izanik, Ohorezko Mailara igotzea lortu du Beti Gazteko talde nagusiak, denboraldi bikain baten ondotik. Bertze multzoko irabazlearen kontra, Urolaren kontra, finala jokatu zuen maiatzaren 21ean Beasainen, baina 1-0 galdu zuen. Beraz, ezin izan zuen denboraldia txapeldunaren titularekin borobildu. Kadete mailako taldeak ere iguera lortu du aurtien.



Pertsonaia

Josu SANJURJO

Nafarroako Eskolarteko bertsolari txapelketa irabazi du

14 eta 18 urte bitarteko Nafarroako Eskolarteko Bertsolari Txapelketako finala jokatu zuen maiatzaren 27an Iruñean. Hamar bertsolari gaztek hartu zuten parte Txantreako Euskaldunon Biltoki Elkartearen egin zen saioan eta Josu Sanjurjo lesakarrak lortu zuen lehen postua. Manolo Arozena bertsolariak eta Nafarroako Bertsosale Elkartearen lehendakari ohiak jantzi zion txapela aurtengoan txapelketa nagusian ere parte hartu duen bertsolari gazteari. Bigarren postua Irati Majuelo iruindarrarentzat izan zen. Bi bertsolari hauek izanen dira Nafarroako ordezkariak ekainaren 18an Agurainen jokatu den Euskal Herriko Eskolarteko Txapelketan. Sanjurjorekin batera, Mikel Tellexea Antzizar ere arituzen finalean.

XATURETXEA
JATETXEA
T: 948 637 260 - LESAKA

IRU BIDE
Estrategia - Asaketa
Barrutik, 3^{er} Lesaka
Tel: 948 637 127

BOZZ-AID
LAVANDERIA
Barrutik, 1^{er} 948 6370 - LESAKA

JARRIE - LOZTEGIA
948 630 786
Aitzate, 19 - BERA

BIDASOA
TERMINAL - PERTSONAK
BOSTERAK - AUTOMATENAK
MOBILITATEA - BERRPONTEA
T.F. 659 971 442
BERA



ARGAZKIA: NEREA MITXELTORENA
Liztor beltzen kabia.

GIZARTEA → ERLEEN KONTRA EGITEN DUTE

Liztor beltzen hiru kabi berri aurkitu dira

Horrelakoren bat ikusiz gero, 112ra deitu behar da

Irune eta Itsaso

Otsailean liztor beltzen kabi haundi hura aurkitu zenetik, martxoan eta apirilean liztor beltz aunitz harrapatzea lortu da tranpei esker. Halere, orain hiru kabi tiki agertu dira; Elizaldeko bordako aleroan, Kanposantu ondoko Arrasate etxean eta Lapitzeko

bizkarreko egur etxolan. Golfeko pilotaren taimainakoak dira, kolore xurikoak eta azpian 12 mm inguruko zuloa dute. Bertan lehendabizi bortz ume ateratzen dira eta 15 inguru hazitzen direnean zuhaitz puntara joaten dira kabi haundia egitera. Hemendik jendearen kolaborazioa eskatzen da, norbaitek horrelako kabi bat ikusiz gero, berehala 112ra dei dezan. Liztor beltzak erleetan kalte haundia egiten du eta ezinbertzekoa da herritarren laguntza.



ARGAZKIA: IRUNE ELIZAGOIEN

Komunioak

Maiatzaren 20an komunioak izan zire herrian. Azken urte hauetako jaunartze kintarik haundiena izan zen, 10 neska mutilek egin baizuten: Uxue Iturria, Leire Iribarren, Uxue Telletxea, Olaia Iturria, Pablo Leiza, Xabier Iparragirre, Maria Martin, Rafaela Gomez, Xabier Telletxea eta Andoni Otxoteko.

Igerilekuen irekiera

Ekainaren 18an ikusiko dugu aurten lehen aldiz igerilekua jendearentzat zabalik. Egutero zabalik izanen da, abuztu akabera arte, eta betiko moduan bestetako egunetan itxita izanen da. Herriko bi kutxetan egonen dira salgai bonoak.

Haurren eguna

Kurtso akaberarekin batera aurtengo Haurren Eguna ekainaren 19an ospatuko da. Goizean frontoian erakusketa antolatuko da eskolan abarrek. Ipuin tokiak ere ez du hutsik eginen: ikasle guztiek idatzitako ipui-



ARGAZKIA: AINTZANE OLLOQUIEGUI

Nafarroako bertsopaper lehiaketa

Aurten, urtero bezala, eskolako 3.zikloko ikasleek Nafarroako bertsopaper lehiaketan parte hartu dute eta 6. mailako Andoni Iribarren Indaburu eta 5. mailako Ainhoa Telletxea Iparragirrek aipamena jaso dute.

nak paneletan izanen dira irakurgai. Eguerdian bazkaria izanen da frontoian Guraso Elkar- teak antolatua. Apuntatzeko Guraso Elkar-

teko juntakoei abisatu behar da ekainaren 10a baino lehen. Eta 16:30ean, Udalak antolatuta *Musika tresnen fabrika* antzerkia izanen da.

IGANTZI

UDA → EKAINAREN 15ETIK IRAILAREN 15ERA

Heldu den asteazkenean hasiko da igerilekuen denboraldi berria

Irailaren 15era
arte egonen
dira irekita

42 euro ez erroldatuek.
• 4-10 urte: 17 eta 28 eu-
ro ez erroldatuek.

EGUN BATERAKO

- 18 urtetik gora: 5 euro.
- 11-18 urte: 3,50 euro.
- 4-10 urte: 2,50 euro.

BI HILABETE

- 18 urtetik gora: 33 eu-
ro erroldatuek eta 56 eu-
ro ez erroldatuek.
- 11-18 urte: 21 euro eta
35 euro ez erroldatuek.
- 4-10 urte: 14 euro eta
24 euro ez erroldatuek.

HILABETE BAT

- 18 urtetik gora: 21 eu-
ro herrian erroldatuek eta
ez erroldatuek 35 euro.
- 11-18 urte: 17 euro eta
28 euro ez erroldatuek.
- 4-10 urte: 11 euro eta
19 euro ez erroldatuek.

15 lagunetik gorako
taldeentzat eta familia
ugariarentzat deskontuak
izanen dira.

Biltokitik eskerrak

Nafarroako Kutxaren
*Zuk aukeratu, zuk eraba-
ki* ekimenean dantza tal-
deari laguntzeko proiektu-
a aurkeztu zuen iaz Bil-
toki elkarteak. Eta jen-
dearen erantzuna ona
izan dela ikusita, eske-
rrak eman nahi izan dituz-
te proiektua aukeratu du-



ARGAZKIAK: JOXEAN ORTEGA

Haurren Egunarekin emanen diote ikasturteari bukaera eskolan

Ikasturte bukaera hurbiltzen ari da eta horren seinale, eskolako neska-mutikoak kanpaldiak egiten ari dira. Donostia, Beire, Lizarra, Zuaza... Hainbat txoko ezagutzeko aukera izan dute aurten ere. Halere, ikasturtea bukatu aitzinetik ateraldi eta ekitaldi gehiago izanen dituzte. Ekainaren 17an, Leurtzako urtegiara joanen dira eguraldi ona egiten badu eta txarrarekin Bertizko Natur Parkera. Ekainaren 21ean, beriz, Haurren Eguna eginen dute. Bertzeak bertze, puzgarriak izanen dira eta horrez gain, eskola utziko duten seigarren mailakoei agurra eginen zaie. Guraso Elkarteak antolatuta, ikasle eta irakasleentzako bazkaria eginen da gero.

ten guztiei. 5.832 euro bildu dira eta zatirik haundiena dantza taldearentzat joanen da.

Aurten, bertze proiektu bat aurkeztu du Biltokik, elkarterako kafe-makina industrial berria eros-
teko, hain zuzen.

BTT jaitziera

Hasiera batean, uztailaren 30ean egitekoa zen Xabi Telletxea zenaren izena hartuko duen BTT jaitziera, baina egunez aldatzea erabaki du Biltoki elkarteak: uztailaren 23an eginen da. Xehetasunak aitzinerago.

Guraso Elkarteak

Guraso Elkarteak bile-
ra orokorra ortziraletan,
hilak 10, eginen du
(16:30). Doako haurtzain-
degi zerbitzua izanen da.



ARGAZKIA: JOXEAN ORTEGA

Sarituak literaturan

Hainbat sari eskuratu dituzte herriko gaztetxoek berriki. 10 urte dituen Maiana Seinek, erraterako, bi sari irabazi ditu: Baztan-Bidasoaldeko bertsopaper lehiaketan A mailan bigarren saria eskuratu du eta Miranda Argako Euskararen Eguneko ipuin sariketan lehenbiziko saria. Miranda de Argako lehiaketan Naroa Arriada herritarra ere saritua izan da, hirugarren sariarekin. Eskolak, beriz, aipamen berezia jaso du lehiaketa horretara aurkeztutako lan kopuru altuagatik.

Karsuk[®]
Muebles de cocina
Meubles de cuisine
Sukaldeko aitziariak

Karlos Pombar Sainz

C/Sara 1 bajo local C
31780 Bera (Na)
T/F +34 948 625 430
M +34 699 884 084
info@karsuk.eu
www.karsuk.eu

elika
Dietetika eta elikadura

- Aholkularitza dietetiko eta nutricional
- Dieta personalizatuak
- Dietak longebiduzen atzeratze
- Elikadura heziketa
- Dietak osasun berri
- Espirituak egoki erabiltze ereduak
- Tratamenduak eta aholkularitza
- Herentzako aholkularitza

Izasko Aduzua Larri
Itza, 6 behe - BERA - Tel. 948 631 283 - elikabera@hotmail.com

LABE ZAR

Tel: 948 631 076 - BERA

BAR Botxo OSTATUA

Zelaiin • BERA • 948 630 052

HEZKUNTZA → IKASTURTE BUKAERA

Ikasturte akaberako jarduera osagarriak egiten ari dira eskolan

Kanpaldiak, ateraldia eta ipuin kontalaria izanen dituzte

Nerea ALTZURI

Ikasturtea atzo hasi genuela ematen badu ere, bukaerara ailegatu gara. Eskolan abudo oporrak hartuko dituzte. Urtero bezala, oporren aitzinetik ekimen batzuk eginak dituzte baina oraindik ere eginen dituzte.

Maiatzean, Donostian, Lizarran eta Beiren kanpaldiak izan dituzte Igantzi, Etxalar, Bera eta Lesakako lagunekin. Ekainari begira jarriz, aste honetan hirugarren ziklokoak Zuazan ibili dira hiru egunez Bortzirietako gainerako herri eskoletako ikasleekin.

Heldu den astelehenean, ekainak 13, bigarren hezkuntzakoak Bartzelonara joanen dira ikasketa bukaerako ikas-

bidaian. Hilaren 19ra bitarte izanen dira Katalunia aldean.

Bertzalde, ortziral honetan, eskolan bertan ingelesezko ipuin kontalaria izanen da. Eta azkenik, ekainaren 21ean, ikasturte bukaerako txangoa eginen dute.

Kargu aldaketa larunbatean

Larunbat honetan, ekainak 11, hartuko dute kargua udal berria osatuko duten zinegotzi eta alkateak. 10:00etan izanen da, Herriko Etxean.

Eskerrak aunitz Bilduren izenean

Datu onak lortu ditu Arantzako Bildu taldeak udal hauteskundeetan. Partehartzea %72,58koa izan da eta botoen %95,65 bereganatu du Bilduk. Eta emaitzarekin kontent, Arantzako Bilduren lantaldeak eskerrak eman nahi izan dizkie maiatzaren 22ko udal eta



ARGAZKIA: AITZIBER ALMANDOZ

Goizuetara ateraldia

Maiatzaren 28an, Ekaitza Elkarteak antolaturiko mendi ateraldia izan zen. 15 lagunek egun ederra pasatu zuten Goizueta aldean. Harat ailegatu eta dutxatu ondotik, bertako elkarteetan ederki aski bazkaldu zuten. Arratsaldean, etxerako prest zeudela autobusean sartuak, goizutarrek autobusetik aterarazi eta poteatzera gonbidatu zituzten. Giro ederrean ibili ziren eta arratsean bueltatu ziren herrira.



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Organu berriaren inaugurazioa

Joan den maiatzaren 29an, eguerdiko mezan organu berriaren hotsak aditu ahal izan ziren. Mezaren ondotik, oroirgarri gisa argazki hau atera zen.

foru hauteskundeetan Bilduren alde egin zuten herritar guztiei. Euskal Herri mailan ere, hagitz emaitza onak eskuratu

ditu Bilduk Arantzán eta horregatik ere eskerrak eman nahi ditu. Ibilbide berria gogotsu eta ilusioz hasteko prest dago

eta bide batez, edozein herritarren hitza aditzeko eta iritzia jasotzeko prest daudela jakinarazi dute Bildutik.

fitotecnia
www.fitotecnia.es

- Aholkularitza teknikoak
- Lore hari eta bulboak
- Luma
- Produktu fitosanitarioak
- Herbizidak
- Fungizidak
- Akarizidak
- Abonoak
- Baratzeko landare eta haziak
- Sasoineko loreak
- Grow shop

Bidasoa, 66 | Bera (Nafarroa)
(0034) 948 631 333 | fitotecnia@fitotecnia.es

A

aterpe
Aldegarri jantzerako lekua

T. 948 634 179
ARANTZA
www.arantza.net

ZOANSA

SEAT
VW
HYUNDAI
Audi

MARKA GUZTIAK KONPONKETA
Banarta, 2 - Alkaiaga industrialdea
LESACA (samiara Beratik)
Tel. 948 625 555 - Faxa: 948 625 505

GIZARTEA

LANA → 100 URTE EGIN DITU SINDIKATUAK

Mila afiliatu ditu ELA sindikatuak eskualdean

Mendeurreneko
erakusketa
Beran izan da

TTIPI-TTAPA

Maiatzaren 25ean egin zen Beran, ELA sindikatuaren mendeurreneko erakusketa ibiltariaren aurkezpena. Beran egin zuen Nafarroako lehengeldialdia erakusketak, sindikatuak ehun urteetan egin dituen hainbat aldarrikapen erakutsiz eta eskualdean izan diren lan gatazketan ateratako argazkiekin. Egun bateko erakusketa izan zen eta Beratik Sakana-rako bidea hartu zuen.

Berako agerraldian Xabier Perez Bidasoaldeko ELAko ordezkaria, Mitxel Lakuntza Nafarroako ELAko koordinatzailea eta Joxe Mari Arribillaga

eskualdeko ELAko ordezkaria solastu ziren. Arribillagak eskualdeko ELAren historia azaldu zuen: «eskualdeko lehen sindikatuen mugimenduak Lesakan eta Beran eman ziren. Bortzirietatik zabaldu zen ELA Malerreka eta Baztanera, 2. sektoreko enpresak sortu ahal». Enpresa ttikien egoerarekin ere kezkatua agertu zen, bereziki eraikuntzakoekin.

Perezek oraingo krisi ekonomikoaren larritasuna aipatu zuen «sindikatuak eta ELA mende batean lortu dutena galtzeko arriskuan gaude». Eta Lakuntzak ELAren 100 urtetako ibilbidearen errepaso egin zuen, bai Euskal Herri mailan eta bai eskualdean ere. Gaur egun, ELA 1.000 afiliatu ditu eskualdean.



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

ELAk prentsaurrekoa eskaini zuen maiatzaren 25ean Beran.



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Guk Independentzia! aldarrikapena Lesakan LABen eskutik

«Murrizketak bakarrik heldu zaizkigu eta hauekin moztu behar dugu gure herria ezkeretik eraikitzen hasteko». Hori aldarrikatzeko, *Guk independentzia!* lelopean egun osoko egitaraua antolatu zuten ekainaren 4rako.



GRUPO TANATORIO TALDEA
IRACHE
MALDAERREKA S.L.

LEKUNBERRI
BERA | SAN JOSE
ELIZONDO | BAZTAN

LEITZA | 948 61 09 64 (SALAKO TELEFONOA)
LESAKA | 948 62 75 77 (SALAKO TELEFONOA)
BETELU | 948 51 34 67 (SALAKO TELEFONOA)
DONEZTEBE | SAN PEDRO | 948 45 19 14 (SALAKO TELEFONOA)
ELIZONDO | BAZTANDARRA | 948 58 02 50 (SALAKO TELEFONOA)

24 ORDUKO TELEFONOA
948581959 | 948637404

| TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTI ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA
| LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

OSPAKIZUNAK → AURTEN SUNBILLAN

Malerrekako Gazte Eguna ekainaren 18an eginen da

Goizean
goizetik
ekitaldiak
izanen dira

Maider PETRIRENA

Aurten Sunbillak hartuko du inguruko gazteak elkartuko dituen eguna. Ekainaren 18an egingen da Malerrekako Gazte Eguna eta ohi bezala, goizean hasiko dira ekitaldiak.

- 11:00etan gosaria herriko plazan.
- 11:30ean haurrentzako jokoak.
- 12:30ean hitzaldietabaida Marasmaren inguruan.
- Ondotik, bazkaria Ulibeltzak elkartean.
- Arratsalde, kale animazioa fanfarreakin.
- 22:00etatik aitzinera kontzertuak plazan: Askatu. E.T.S., Sutan eta Aierrik taldeekin.

Bazkarirako txartelak 10 eurotan egonen dira. Iturburu ostatuan eta Malerrekako Gazte Asanbladaren egoitzan eman daiteke izena.

Igerilekua laster zabalik

Igerilekua ekainaren 15etik irailaren 15era bitarte egonen da irekia, 11:00etatik 20:00etara. Lan egiteko bortz lagunek eman zuten izena eta horien artean hiru aukeratu dira. Denek sorosle akuatiko titulua

zeukatenez, esperientzia eta bertze titulazioak kontuan hartu dira eta ondorioz, hiru hauek hartuko dute igerilekua: Miren Mangado Oianarte doneztebarrak, loritz Mitxeltorena Amunarriz elizondarrak eta Alix Gereka Amunarriz iturendarrak.

Aldaketa ttiki bat egon da aukeratzeko moduan. Orain arte Udalak muga bat jarri ta, interesatuek proiektu bat entregatzen zuten eta horren arabera ematen zieten ala ez. Orain, berriz, hiru hauek kontratatuko dituzte sorosle konbenioaren barrinean turnoka, beti ere igerilekuan bi egon daitezten. Dagozkien oporrak izanen dituzte baita igande bat libre ere.

Bonoak Nafarroako eta Rural kutxetan egonen dira salgai.

PREZIOAK

- 6 urte arteko haurrek dohainik izanen dute.
- 6 urtetik 12 urtera: hiruhilabetekoa 20 euro, hilabetekoa 15,50 euro eta egunerokoa 3 euro.
- 12tik 18 urtera: hiruhilabetekoa 26,50 euro, hilabetekoa 22,50 euro eta egunerokoa 3,50 euro.
- 18 urtetik aurrerakoek: hiruhilabetekoa 39 euro, hilabetekoa 28 euro eta egunerokoa 4,50 euro.

Igeriketako ikastaroen tarifak eta orduak igerilekuko arduradunek paratuko dituzte.



ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA

San Migelen irudia bisitan

Aurreko alean jarri bezala, maiatzaren 29an etorri zen Sunbillara San Migel Goiaingeruaren irudia, 18:00etako mezan. Meza ondotik, Basilio apaiza, bere laguntzaileekin, hilabetero komunioa ematera joaten den etxeetara joan zen.



ARGAZKIA: BIDAL IBARRA

Mendi irteerak

Mendi ateraldiek ez dute etenik herrian: ekainaren 5ean Larunera egitekoa zen irteera, eta ekainaren 19an, Trinitate Eguna dela eta egun polita eta handia dela aprobetxatuz, Mendaurrera joanen dira. 08:00etan aterako dira plazatik. Argazkia aurten Irubelakaskora egindako irteerakoa da.

ZUBIONDO
Jatetxea
lagardotegia jatetxea
Alasta karrika
BERA NAFARROA

sarobe
gocotegia olinotegia
Ez da eztegiara 25 baje
1948 63 08 99
www.sarobe.net

José I. Gonzalez Enguita
Dantzariak
berrikook eta futaadak
tel. 666 235 466

DONEZTEBE

OSPAKIZUNAK → EKAINAREN 17AN ETA 18AN

Ekitaldiz beterik dator gero eta indar haundiagoa duen Errekaren Eguna

Eskubaloi talde haundietako jokariak etorriko dira

TTIPI-TTAPA

Aurten ere Erreka Kirol Elkartek bere eguna izanen du. Denboraldia modu ezin hobean akitzeko, gero eta indar haundia hartzen ari den Errekaren Eguna ekainaren 18an izanen da. Halere, ekitaldiak bezperatik hasiko dira.

EKAINAK 17, ORTZIRALA

- 20:00etan Zineman: Errekako mendigoizaleen eskutik *Andinismoa Ekuadorren* proiektioa.
- 22:00etan Mus Txapelketa Santa Luzia plazan.

EKAINAK 18, LARUNBATA

- 09:30ean Errekaren harrobiko neska-mutilen eskubaloi partidak.
- 11:30ean kadete nesken partida kiroldegian: Erreka-Ultzama.
- 12:00etan judo erakustaldia kiroldegian.
- 16:00etan kadete mutilen eskubaloi partida.
- 17:00etan Erreka B taldea bere garaian jokalaria izandakoen aurka.
- 18:15ean Erreka eta Izarren Taldearen partida. Izarren Taldean Anaitasuna, Bidasoa eta San Antonioko taldeko jokariak ariko dira.
- Dantza taldearen era-

kustaldia izarren partidaren atsedendian.

- 21:00etan Santa Luzia plazan afari herrikoia. Txartelak Titi ostatuan hilaren 15era arte.
- Gauerditik aitzinera, gaupasa izanen da Jalisko Band taldearekin.

Musika Eskola

Musika Eskolak ikasturte berrirako matrikulazio epea ireki du. Aurten 6 urte betetzen dituztenetik aitzinerako ikasle berrientzat da deialdia eta ortziralean, hilak 10, akituko da izena emateko epea. Musika eskolan egin beharko da, 16:30etik 20:00etara.

Amaia Iraola Cirque du Soleil-en

2009ko apirilean, Agorreta Musika Eskolako irakaslea den Iñaki Diegez izan zen Cirque du Soleil-en proiektu batean sartu zena. Orain,



UTZITAKO ARGAZKIA

Lapurreten aitzinean, merkatariak konponbide eske

Herriko saltoki, ostatu, zerbitzu-enpresa eta etxebizitzetan lapurretak ugaritzen ari dira, kasu batzuetan toki berean zazpi aldiz lapurtzeraino. Horren aitzinean, ordea, ez dela konponbiderik aurreikusten salatu dute Doneztebarrak merkatarien elkarteko kideek. «Babesgabetasunari administrazioaren eta segurtasun indarren laguntza eza gehitu behar zaio —diote merkatariak—. Segurtasun indarrek beren aktetan gertatutakoa jasotzen dute, baina aldi berean ez dela aurrerapausorik ematen eta ez dela inor atxilotzen ikusten dugu». Horrez gain, «dendari eta herritarrekiko larderia eta probokazio egoerak gero eta ohikoagoak direla» adierazi dute, eta honek «babesgabetasun eta bidegabekeria sentsazio handia» sortzen duela. Hala, konponbidea eskatuz, sinadura bilketa abiatu dute eta herritar eta inguruko herrietako biztanleei zuzendu zaizkie horretan laguntzeko, «administrazio, entitate eta erakundeei arazo latz honen berri emateko». Gaineratu dutenez, «herritarrok eta dendariok zergak ordaintzen ditugu, herriotan ekonomia sortzen laguntzen dugu eta herritarren arteko bizikidetzak egokirako ekonomikoki eta sozialki parte hartzen dugu. Gu ez gara zaindu beharreko objektuak, babestu beharrekoak baizik». Bide batez, «egoera konpontzeko konpromisoak, benetako egoera ezagutzen dela ziurtatzeko jarraipena eta gauean segurtasuna indartzeko bitartekoak» eskatu dituzte.

berriz, Diegezen bidez, Amaia Iraola herritarrek gauza bera egin du eta Cirque du Soleil-en ikusizunetan parte hartze-ko aukera izanen du.


Ikasturtea akitzean

Egun gutti barru hartuko dituzte oporrak San Migel eskolako eta Mendaur institutuko ikasleek. Eta ikasturteari bukaera emateko, jaialdia antola-

tu dute Lehen Hezkuntzakoentzat hilaren 21ean. Guraso Elkateak ekarriko duenaz gain —aitzinekoetan aparra, pailazoak... antolatu izan ditu—, dantza emanaldia izanen da. Horrez gain, A eredu irakasle izan den Rosa Apeztegiak erretiroa hartuko duela-ko, omenaldia egingen zaio. Bigarren Hezkuntzakoek, berriz, ikastur-

tea akituko duten egunean, ekainak 17, hamaitakoa egingen dute

Bertzalde, azken egunetan ateraldiak egitekoak ziren: Haur Hezkuntzakoak Donostiako hondartzara joatekoak ziren, Lehen Hezkuntzako 1. ziklokoak Santa Leokadiara, 2. ziklokoak Getariko hondartzara eta 3. ziklokoak Landetako ur parkera.



OSPAKIZUNAK → ITURRIAREN INGURUAN

Dena prest dago larunbat honetan eginen den Uritzako bestarako

Goizean prestaketak eginen dira eta eguerdian hasiko da besta

Fermin ETXEKOLONEA

Eguerdian, 14:00-etan botako den altxaferoak emanen dio hasiera aurtengo Uritzako bestari. Bazkaria eginen da ondotik, eta arratsaldean segituko dute ekitaldiek.

Dena den, goizean goizetik hasiko dira auzotarrak prestaketekin. Auzolanean txabola prestatuko da, mahaiak eta aulkiak ere paratuko dira eta bazkaria martxan jarri ere bai. Entsalada, paella, bildotsa eta postrea izanen da menua.

Bazkalondoan, berriz, Moja eta Ainhoarekin musika izanen da.

Hortik aurrera, seguru bat baino gehiago izanen direla berendu-afaria egiteko geldituko direnak.

Maiatzeko aingeruak

Maiatzeko igandetan egin diren mezetan, loreak eskaintzen aritu diren herriko sei neska gaztek akitu dute oraingoz beraien betebeharrak. Bestaberri egunean tokatuko zaie urteko azken eskaintza egitea.

San Migelen bisita

Herriz herri egiten ari den itzuliaren barne, San Migel Goiaingeruaren irudia maiatzaren 31n etorri zen gure herrira bisitan.

Iturengo eskolan matrikulatzeko arazoak

Herriko zenbait gurasok Iturengo eskolan



ARGAZKIA: IZASKUN ZUBIALDE

Musikari gaztetxoek saioa

Mendaur Trikitixa Eskolan ari diren herriko panderojole hauek ikasturte bukarako kontzertua eskaini zuten beste lagunekin batera Aurtizko frontoian. Saio polita eskaini zuten maiatzaren 30ean.



ARGAZKIA: AMAIA

Lehenengo Jaunartzea

Argazkian ageri diren Naroa eta Julen Santesteban lehenusuek maiatzaren 29an egin zuten Lehenengo Jaunartzea. Egun polita izan zen beraientzat eta beraien familientzat.

haurrak matrikulatzeko arazoak dituzte. Esku-

bide hori ukatu izanasalatu nahi dugu lerro hau-

en bidez, eta gure elkartasuna adierazi.

APARAN, S.A.
BRIKOLAJA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarniak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab.



Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE



**BORTZIRI
UNSION ANAIK**
Sukalderako altzariak

Berezu etxea • LESAKA
Tel: 948 637 266 • 607 226 691 • Fax: 948 637 511

ITUREN

OSPAKIZUNAK → EKAINEKO HIRUGARREN IGANDEA

Trinitate Eguna ospatuko da ekainaren 19an Mendaurko kaxkoan

Mendaurrera bisita egin ondotik, bestak enbaltseetan segituko du

Arkaitz MINDEGIA

Igande honetan zortzi, ekainaren 19an, ospatuko da Trinitate Eguna. Ohiturari jarraituz, goizez Mendaurko ermitan mezak izanen dira eta eguerdian enbaltseetan bazkaria egingen da Ibintza Kultur Taldeak antolatuta edo baita norberak eramanda ere.

Bazkalondotik, musikarekin ilunabarra arte giro bikaina izanen da enbaltseetan eta gaua hurbiltzen den heinean, 20:00 aldera, herrira jeitsi eta Aurtizko estatuetan tragoxka hartu ondotik, Iturenen segituko du besta giroak. Iturengo plazan dantzaldia izanen da ilunabarrean.

TRINITATE EGUNEAN ABESBATZA ELIZAN

Mendaurko kaxkoan

egun handia den bitartean, San Martin elizan Iruñeko Katedraleko musika kapillak kantatuko du 11:00etako mezan.

Ekaineko iganderaren batean Nafarroako txokoak aukeratzen ditu kapilla honek kantuan aritzeko eta aldi honetan,

elizako organoa konpondua dela aprobetxatuz, eta kapillako zuzendaria herriko semea delako (Palaziokobordakoa), Ituren aukeratu dute. Eguna borobiltzeko, Elgorriagako bainuetxetik ere pasako dira eta ondotik, Donezteben bazkalduko dute.

Ikasturte bukaerako ateraldia Zumaiara

Pulunpa eskolako neska-mutikoei ikasturte bukaera hurbiltzen ari zaie, eta horrekin batera, hondarreko egunetako irteerak prestatzen ari dira. Eguraldi ona

egiten badu, ekainaren 15ean Zumaiara joatea erabaki dute, Flysch-a ikustera. Arratsaldean, Getariko hondartzara joateko asmoa dute.

Eguraldi txarrekin, ordea, ibilbidez aldatuko dute eta goizez Oliko gaztelua ikustera eta arratsaldean Tafallako igerilekuetara joanen dira.

Herriko Ostata zabalik

Obrak egin ondotik, Urko Villaba Galan eta Eloisa Castro Castro arduradun berriek zabaldu dute Herriko Ostata. Irekiera iragartzeko, ekainaren 1ean inaugurazioa egin zuten.

Lehendabiziko Jaunartzea

Igande honetan, ekainak 12, Lehendabiziko Jaunartzea egingen dute herriko bartz gaztetxo hauek: Oier Mariezkurrena, Lorea Bazterrika, Estefania Etxebeste, Mattin Altxu eta Haizea Aioroa.



ARGAZKIA: AINARA MINDEGIA

Ikasturte bukaerako kontzertua

Ikasturte guztian ikasitakoa erakutsi zuten Mendaur Trikitixa Eskolako ikasleek maiatzaren 30ean Aurtizko frontoian. Saio ederra eskaini zuten bildu zirenen gozamenerako. Bide batez, hurrengo denboraldira arte aio erran zioten trikitixa eta pandereta klaseei.

SUKALDEKO OLIOARENTZAT EDUKIONTZI

- Gaikako bilketa zerbitzua zabaldu eta hobetzeko, erabilgaitako sukaldeko olioak biltzeko edukiontzi berriak jarko ditugu kalean.
- **Kokapena:** Elizondo: Salvador eta Alduides kaleetan. Iruñea: Berueta-Ziga errepidean. Arizkun: Herriko plazan. Doneztebe: Merkabako plazan eta Aparan industrialdean. Sunbilla: Ramon Latasa plazan. Harbaitz: Frontoian-trinketean. Berr: Agerra auzoan, Iturlandeta auzoan eta Ezdegara kalean (institutoa). Leizola: Eitza kalean (Alprox) eta Arretxea kalea, 6. Igantzi: Aparkalekua-bus geltokian. Arantzua: Herri sarrerako aparkalekuan. Etxalar: Herri sarrerako aparkalekuan.

BERRIA!

BAZTAN, MALERREKA eta BORTZIRIAK

- Sukaldeko olioak bakarrik utzi. EZ kotxeakoa, ezin baidira nahastu!
- Olio ondo itxitako ontzietan utzi behar da edukiontzi barruan.
- Olio hau biodiesel bihurtuko da birziklatu ondoren.

HOSTALARITZA ZERBITZUA
Informazioa
902 366 251
www.ecogras.es

Lehen aho erabiltzen koloretan berretsiak EUI04004
Hondakin erabiltzen gaitasunak koloretan berretsiak EUI013185

ITUREN-ZUBIETA

HEZKUNTZA → ZUBIETARREK ITURENGO ESKOLAN IKASTEKO AUKERA IZAN DEZATEN

Haur Hezkuntzarako bigarren tutorea mantentzeko eskatzen segitzen dute

Eskolan hartu duten azken erantzuna ezezkoa izan da

TTIPI-TTAPA

Haur kopuru eskasagatik, duela 16 urte itxi zen Zubietako eskola. Geroztik, zuzenean Doneztebera joan beharrean, etxetik hurbilago duten Iturengo eskolara joateko aukera izan dute Zubietan. Orduko ikuskarriak hala baimendu zuen eta guraso bakoitzak erabaki izan du Doneztebera ala Iturenera eraman. Doneztebera joateko autobusa badute; aldez, Iturenera norberak eraman behar ditu haurrak.

Azken 11 ikasturteetan, Haur Hezkuntzak bi tutore izan ditu haur kopuruak hala eskatuta. Ikasturte berriari begira, aldez, ilun dago kontua. 16 ikasle izanen dira Haur Hezkuntzan eta 14 ikaslelik gora bigarren tutorea tokatzen da. Hezkuntza Departamentuak, ordea, bakarrik tokatzen zaiela esan du. Eta arrazoia, bere hitzetan, «Zubietako haurrek Donezteben matrikulatu behar dutela».

AURREMATRIKULAZIOA

Otsailean egin zuten neska-mutikoen gurasoek hurrengo ikasturterako aurrematrikulazioa. Sei ikasle berri agertu ziren: hiru zubietar eta hiru iturendar. Guztira Haur Hezkuntzan 16 ikasle izanda, «urtero bezala, bi tutore egokituko zirela pentsatu genuen», azaldu digu Begoña Ilzarbe Haur Hezkuntzako tutoreak. Gaine-



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA
Iturengo eskolako ikasleak

ra, arazorik gabe onartu ziren aurrematrikulazioak Gobernuan. Zuzendaria gerora konturatu zen plaza bakarria aurreikusia zegoela. «Laz gauza bera pasatu zen eta akats bat izan zen. Segituan zuzendu zuten. Aurten ere, akatsa zelakoan, zuzendariak ikuskariari deitu eta honek akats bat izanen zela erantzun zion», dio Ilzarbek. Baina zuzentzen ez zutela ikusita, Eskolarizazio Batzordekoekin solastu zen: «Zubietarrak ez dituztela kontuan

hartu esan zioten, Doneztebera joatea dagokiela-koz. Hortaz, Haur Hezkuntzan 16 ikasle izan ordez, 13 izanen lirateke eta 13ekin tutore bakarria».

Batera eta bestera jo zuten eskolako zuzendariak bi tutore eskatuz, baina alferrik. Guraso Elkartearengana ere joan zen eta hau Sortzen Ikasbatuaz-eko abokatuarengana: «abokatuak aurrematrikulazioak onartuak daudela eta arazorik ez zela egonen esan zigun. Arazoa administrazioa-

rena zela», kontatu digu Anuska Garrote zubietako guraso eta Iturengo eskolako Guraso Elkarte-ko lehendakariak. Arartekoarengana eta ikuskarie-arengana ere jo zuten gurasoek eta azken honek «16 urtez kapritxo bat izan dugula erantzun zigun, eta ez eskubide bat, kontent egoten ahal ginetela». Foru Aginduak dioenez baliatzen dira horretarako. Horren arabera, mapa eskolarra kontuan hartuz, zubietarrek Doneztebera joan behar dute. 16 urtetan Iturenera joatea baimendu dute, baina hori ez dago inon idatzia eta «orain legea aplikatzea erabaki dutela diote», adierazi du irakasleak. Hortik haratago, kontua da epe kanpo eman dutela abisua Gobernutik, aurrematrikulazioak onartuak daudelako eta berriki arte gurasoek ez dutelako deus-beririk izan.

tseilua... Denak bat egin eta denak mugitu dira. Baina erantzun onik ez.


Bigarren tutorea onartzeko itxaropenik ez, eta eskolatik beste proposamen bat egin zen: «musika irakaslea lanaldi erdiarekin aurreikusia dago eta lanaldi osora luzatzeko proposatu genion ikuskariari, saio batzuk Haur Hezkuntzan egiteko—dio irakasleak—. Hasieran ongi hartu zuten asmoa baina biharamunean ezezkoa eman ziguten. Ateak itxi eta baremazioa egiteko agindu digute». Plazak baino eskaera gehiago dagoenean egiten da baremazioa. Kasu honetan, 13 iturendar daude eta 14koa da muga. Zubietatik dauden hiru eskaerei erantzuteko, plaza bat dago. Gurasoak, euren aldetik, ez daude geldirik egoteko eta «borrokan segituko» dutela baieztatu digu Garrotek.

Afera beltz ikusi arren, euren eskumenak defendatzen segitzen dute: zubietarrek eskolarik hurbilenera joateko eskubidea dutela eta haur eta irakasleek hezkuntza kalitatez bermatzeko bi tutore izateko eskubidea dutela.



AZKEN ERANTZUNA
«Ateak itxi dizkigute eta baremazioa egiteko agindu digute»

Begoña ILZARBE
Haur Hezkuntzako tutorea



IKUSKARIAK ESANA
«16 urtez kapritxo bat izan dugula esan digu ikuskarriak»

Anuska GARROTE
Guraso Elkarte-ko lehendakaria

BAREMAZIOA

Eginahalak eta bi egin dituzte 2011/2012 ikasturtean bi tutore egon daitezten. Eskola, Guraso Elkarte, Ituren eta Zubietako Udalak, Eskola Kon-

SALDIAS

KULTURA → ANGEL REKALDEK ESKAINIKO DU SOLASALDIA

Nafarroako konkistaz hitzaldia emanen du Nabarraalde elkarteak

Herriko Etxean izanen da hilaren 17an, 22:00etan


Markel LIZASOAIN

Aspaldiko partez, hitzaldi bat izanen da herrian. Nabarraalde elkarte zuzendaria etorriko da hitz egitera. Elkarre horren nahia da Euskal Herriko historia erakustea jendeari, orain arte altxatu diguten historia agerraraztea. Euskal historialari asko eta onak ari dira hor lanean, agiri eta idazki zaharrak leitzen eta interpretatzen, eta horrekin batean, gauza aunditz egiten dituzte: hitzaldiak eman, liburuak ate-

ra, artikulua idatzi, bideoak proiektatu, DVDak atera, gogoetak egin, mahai inguruak... Herri guziek dute beren historia, baita Euskal Herriak ere, eta ez nolana hiko. Eskola garaian, beste herri bateko historia erakutsi digute, eta gureaz ia-ia ez dugu deus ere ikasi. Konparazio batera, zazpi euskal herriak Nafarroaren barrenean egondurak direla ehunka urtez, edo orain dela 499 urte Gaztelak beretzat hartu zuela Nafarroa gehiena. Hain zuzen, gure historiako mugari bat izan du da konkista hori, eta mugari horrek 500 urte egingen ditu heldu den urtean. Horrentzat ari da Nabarraalde hitzaldi ho-

riek ematen. Baina, hori garbiago esplikatzeko, Angel Rekalde etorriko da Saldiasera.

Nafarroako Gobernua ere ari da gauzak antolatzen konkista haren bueltan (erakusketak, jardunaldiak...), baina, zorigaitzez, eta jakina baita, historiaren bi parte inportante ari da altxatzen joan deneko urte sailtxo batean: hizkuntza eta lurraldea. Hizkuntza baita herri baten bihotza, eta herri honen lurrak beste bost baitira Nafarroa Garaiarekin eta Nafarroa Beherearekin batean: Zuberoa, Lapurdi, Gipuzkoa, Bizkaia eta Araba. Bestela esanda, armen bidez zatitu gintuztela orduko hartan,



UTZITAKO ARGAZKIA


Kartel hau da hilaren 17ko solasaldiaren iragarlea.

baina geroztik ez zaigula atzendu euskaldunak garela.

HILAREN 17AN, 22:00ETAN

Herriko etxeko ganbaran izanen da hitzaldia, garagarriaren 17an, gaueko hamarretan. Ez da deus ere ordaindu

behar. Inguruko herrietakoak ere, atozte! Hitzaldiarekin batera, bideo bat prestatua dute, eta, zerbait jakin nahi izanez gero edo zerbaitekin ez bazaudete konforme, galdetzeko eta solas egiteko modua ere izanen da akitzekin.



- Eskopeten salmenta eta konponketa
- Ehiza eta arrantza goiak
- Ehiza baimenen tramitazioa

armadenda

andueza

Paotxa Eraikina • Gorostlaga, z/g • Anaka Industrialdea
T. 943 66 72 67 - F. 943 66 71 91 • 20305 IRUN
c.andueza@euskalnet.net

OSPAKIZUNA → HAMARGARREN EDIZIOA

Larunbat honetan ospatuko da Legasan Bertizarana Eguna

09:00etan botako den suziriarekin hasiko dira ekitaldiak

TTIPI-TTAPA

Larunbat honetan, ekainak 11, Bertizarana Eguna ospatuko da. Aurten, Legasan eginen da. Aipatzekoa da, hamar bat urte badirela besta hau ospatzen hasi zela, eta orduetik urte bat Legasan eta bertzeaz Narbarten egin da, txandaka.

Bailararen eguneko egitaraua hauxe izanen da.

- 09:00etan suziria botako da.
- 09:30ean argisoinuak izanen dira Narbarten, Legasan eta Oieregin.
- 10:00etan soka zirkuitoa izanen da BKZ-ren eskutik. Bailarakoentzat bakarrik izanen da.

- 12:30ean Baztango gaiteroak karrikak alaituko dituzte.
- 14:30ean bazkaria izanen da eta ondotik bertsolariak.
- Bazkalondoa, sokatira saioa izanen da.
- Segidan dantzaldia ere izanen da Frantzisko Santxotenen eskutik.
- 22:00etan afaria eginen da.
- 00:00etan gaupasa izanen da Trikidantz taldearekin.

GARBIKETA

Lerro hauek aprobeztatuz, antolatzaileek gogoratu nahi izan dute, biharamunean, igandea, denon laguntza beharrezkoa izanen dela gauza guztiak bildu eta dena garbitzeko. Horretarako hitzordua 15:00etan egin dute.



ARGAZKIAK: NARBARTEKO ESKOLA

Aste Kulturala Narbarteako eskolan

Maiatzaren 25, 26 eta 27an, Aste Kulturala izan zuten Narbarteako eskolan. Horren barne, hilaren 25ean, Izaskun Mujika ipuin kontalaria eskolan egon zen eta, ondotik, Amaia Elizagoien bertsolari gaztearen bisita ere jaso zuten. Galdera guztiak erantzundakoan, bertso politak bota zituen. Biharamunean, Foru Poliziak eraikitako zirkuituan Bide Hezkuntza Jarduerak egin zituzten eta arratsaldean, olerki eta bertso saio eder bat eskaini zieten guraso eta senideei. Azkenik, 27an, Bertizko Parkera joan ziren egunpasa. Bazkari goxoa egin zuten berriek margotutako manttaletan.

Eskalerak igotzea... ez da oztopo! plataformak igogailu bereziak auki bereziak...

Behetik

Aforgo-biki, 14 • T. 943 368 781 • 671 073 888
www.behetik.com

EZKONTZARAKO ESKAINTZA BEREZIA

Andregaiaren erramua + elizako loreak + detaileak eginaz gero KOTXEKO LOREAK OPARI

ESTHER
NARBARTE
T. 948 59 22 00

Serpentina kanvoiak bedituga

Martxoaren 20an, Martxoaren 20an eta martxoaren 20an ditugu, Martxoaren 20an eta Martxoaren 20an, Martxoaren 20an ditugu, Martxoaren 20an eta Martxoaren 20an, Martxoaren 20an ditugu...

EZKURRA

ATZERA BEGIRA → GARAI BATEKO DEBEKUAK

Etxe susmagarriak izaten ote ziren herrian?

Kontu bitxiak topatu dira udal artxiboan begira

Fernando ETXEBERRIA

Udal artxiboan dauden dokumentu interesgarrienetako bat 1847ko urtarrilaren 8an udaletxean egindako bilkura bati buruzkoa da.

Bilera hartan zinegotziek eta familia-buruek udal konstituzionalak eta Ezkurrako auzotarrak ontzat emandako ebazpena idaztea erabaki zuten. Guzti honen helburua, justizia gobernu on baterako behar ziren alderdi guztiak dokumentu batean edukitzea zen.

Hileta-elizkizunen inguruan baldintzak garatuz hasten da idatzia, hildakoa nork eraman behar zuten esanez, herritarrek familiarekin zein tokitan elkartu be-

har zuten adieraziz, bildutakoentzako moka-dua eta abar.

Mutil gazteen itzulie dagokionez, jarrera guztiz ezkorra ageri da dokumentuan eta etxetara dirua edo jatekoa eskatzera joatea debekatu zen, askotan juxtu juxtu zebiltzalako. «Alkateak eta aguazilak ostatueta barna itzulia egin behar dute elizako ospakizunetan inor ez dagoela ziurtatzeko eta neguan 21:00etan eta udan 22:00etan ixten ez badituzte, isuna jasoko dute».

Baina benetan atentzioa deitzen duena «etxe susmagarriei» buruz idatzia dagoena da. Horrela dio: «alkateak emakume susmagarrien etxean edo logelan herriko edo kanpoko norbait dabilela susmatzen edo aurkitzen badu, edo horren kexarik jasotzen badu, atxilotu egingen du eta berehala



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

San Migelen bisita

Urtero bezala, maiatzaren 23an San Migel Goiaingeruaren irudia bisitan izan genuen herrian. Herri sarreran, Santa Kruz ermitaren ondoan, egin zitzaion ongi-torria eta ondotik, elizarako bidea kantuan egin zuten herritarrek: *Mikel, Mikel, Mikel gurea, gorde, gorde Euskal Herria* kantatuz. Biharamunean, Eratsu-nerako bidea hartu zuen.

sartuko du preso eta dagokion agintariarengana bidaliko du».

Gaiaren inguruan, herriko adinekoekin hitz egin ondotik, herrian horrelako etxeak ba ote ziren ala ez, inork ez zekiela deus adierazi zuten. Baina dokumentua argitaratu zenean, se-

guru «susmoak izanen zirela».

Badira gauza bitxi gehiago ere agirian. Esaterako, 16 urtetik bererako gazteek debekatua zuten ezkontza erlijiosoetara joatea, edo 12 urtez azpikoek ezin zuten mezara joan edo meza entzun; aurretik dotrinako azterketa gainditu behar zuten.

Gai erlijioso eta moralen ingurukoa da dokumentuaren ia erdia, gaur egun sinestezina egingen litzaiguke, udaletxean laikotasunaren inguruan ez baitugu zailtzarik.

Beranduago egin ziren dokumentu batzue-

tan irakur daiteke, dantza lotuak edo baltsak debekatzeko obsesioa zuela Udalak, deabruzko edo ohitura egokien kontrako zerbait bailiran ikusten baitzuten. Zehazki, 1954ko urtarrilaren 11n, alkateak establezimendu publiko eta ostaluetan debekatu egin zien dantza lotua «exotikoa, arrotza eta ez morala izateagatik». Horrez gain, «Udalak establezimenduren batean araua hautsi zela ikusiko balu, isilpeko eta ez morala kontsideratuko litzateke eta... edozein motatako dantzak debekatu egingen lirateke toki horretan».

UDAL ARTXIBOAN DAGOENA

«Alkateak emakume susmagarrien etxean edo logelan herriko edo kanpoko norbait dabilela susmatzen badu, atxilotu egingen du eta berehala sartuko du preso»

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

<ul style="list-style-type: none"> ☞ Langile autonomoak ☞ Nekazariek eta mendi langileak ☞ Nominak eta Aseguro Sozialak ☞ Lan-Kontrabutarako laguntzak ☞ Enpresa berri ezberdinen sortzea 	<ul style="list-style-type: none"> ☞ Diru-laguntza ezberdinak ☞ Kontabilitateak ☞ IVA eta IRPF ☞ Errenta aitortpenak ☞ Elbarritasun eta jubilazio espedienteak ☞ Bidegarritasun planak eta aurrekontuak
--	---

artekari@artekari.com

LESAKA: Siltirio, 71-behea • Tel: 948 637 050 • Faxa: 948 637 050
BURLATA: La Viña, 4 • Tel: 948 133 328 • Faxa: 948 133 713

Hematologia
Odol biokimika
Erreuma probak
Diabetes
GIB serologia
Tiroide
Hormona-probak
Tumore markatzaileak
Gernu-analisiak
Elikagaien intolerantzia

ABACDEL

Analisi klinikoak

FIATC **LACEN ABO**

Aresa **ELIAP-SITISI**

Ramón González-Vallinas

ANALISI KLINIKOETAN ESPEZIALISTA

Istingorra, 1 - behea • 20008 DONOSTIA
T. 943 210 872 • abacdel@yahoo.es
www.abacdel.com

AI SIALDIA → LEHEN DENBORALDIA BUKATZEAR

Ekainaren 19an bukatuko du denboraldia Gazte Txokoak

Antolatzaileak
pozik azaldu
dira izan duen
emaitzarekin

TTIPI-TTAPA

12 eta 16 urteko gazteei aisialdirako aukera berria eskainiz, Guraso Elkarteak Gazte-Txokoa jarri zuen abian duela zenbait hilabete. Geroztik hainbat izan dira egindako jarduerak. Dagoeneko egin du bere lehenengo denboraldia eta emaitzarekin pozik gelditu dira: «balorazioa positiboa da. Hainbat ekintza antolatu dira eta herrian harrera ona izan du», adierazi digu Guraso Elkartearen lehendakaria den Igor Elizegik. Azken txanpan sartuak diren arren, oraindik ere izanen dira ekitaldi gehiago.

Ostiral honetan, ekainak 10, merendola egin da, eta larunbatean,

hilak 11, mendi buelta megalitikoak egingen da 09:00etatik 12:00etara, Gaztetxekoen eskutik. Arratsaldean, denbora liberarako tartea izanen da eta igandean, pin pon txapelketa jokatu da.

Ekainaren 17an, mahai jokoak egingen dira eta hilaren 18an Iberora egun pasa antolatu dute. Bazkaltzeko bakoitzak berea eraman beharko du. Ekainaren 19an, igandea, egingen da denboraldiko azken festa. Merendola eta diaporama izanen dira.

Heldu den ikasturteari begira, Gazte Txokoarekin segitu nahi dute gurasoek: «gure asmoa aurtengo programa baino landuagoa eta anitzagoa izatea da eta posible bada jende gehiago inplikatzeari gure proiektuan». Halaxe azaldu digu Elizegik eta ea baduten nahia egibihurtzeko aukera.



Baiatzinikin...

Azoka eraikinaren biltegia (Umore Ona elkartearen beheko solairua) 14 urterako elkarteari dohainik uztea onartu duela Udalak? Maiatzaren 18ko aparteko bilkuran hartu zuen erabakia eta ezinduentzako sarrerak eta instalakuntza egokiak eta oztogabeak izatea da helburua.



ARGAZKIA: IGOR ELIZEGI
Gaztetxoak graffitiak egiten.



ARGAZKIA: EVA ELIZEGI

Ikasturte bukaera hurbiltzen

Oso gutxi gelditzen zaie eskolako neska-mutikoei udako oporrak hartzeko. Eta garai honetan ohikoa denez, hainbat ateraldi egiten ari dira. Maiatzaren 17an eta 18an, esaterako, Haur Hezkuntzako ikasleak Oiartzungo Arritxulo aterpetxean egon ziren –argazkia–. Lehen Hezkuntzako ikasleak Hondarribian izan ziren maiatzaren 30ean eta 31n eta DBHko lehenengo zikloko ikasleak Lizarrara joan ziren, ekainaren 13tik 17ra ikasturte bukaerako bidaia egitera.



ARGAZKIA: JOSE JAVIER ETXEBERRIA

Xumar Bakero eta Fernando Goia txapelkun musean

Maiatzaren 21ean jokatu zen Umore Ona Elkartearen antolatutako mus txapelketa. Bikote guztien artean, Xumar Bakero eta Fernando Goia izan ziren nagusi. Miel Salaberria eta Jokin Solano, berriz, txapelkunordeak izan ziren. Giro ederrean pasatu zuten arratsaldea muslariek eta pozik agertu ziren irabazleak.

Lizun
GAZTANDEGIA
Sunbilla - Tel: 948 450 862

LEITZA

OSPAKIZUNAK → HIRUGARREN EDIZIOA

18 sagardo dastatzeko aukera izanen da larunbat honetako Sagardo Egunean

Ostiralean sagardo dastaketari buruz hitzaldia izanen da

TTIPI-TTAPA

Urtetik urtera handitzen doa sagardogile kopurua eta aurten, 18 izanen dira Sagardo Egunean beraien uzta aterako dutenak. Larunbat honetan, ekainak 11, eginen da Sagardo Eguna, ALKE Kultur Taldeak antolatuta, Udalaren, Kas-kabeltza merkatarien elkartearen eta Aurrera elkartearen laguntzarekin.

Hirugarren edizioa izanen da eta 18:00etatik aurrera izanen da sagardoak dastatzeko aukera plazan.

Bezperan, berriz, hilak 10, sagardo dastaketari buruzko hitzaldia eskainiko du Guillermo Castañón etnologoak, 20:00etan Aurreran.

Kargu hartzea

Larunbat honetan hartuko dute kargua hu-

rrenago agintaldian alkatete eta zinegotzi izanen diren ordezkari berriek. Bilduko Oier Eizmendi izanen da alkatea, eta bere taldeko zortzi zinegotzik eta DNE/NEE eta UPNko zinegotzi banak osatuko dute Udala.

Kartu hartzea 13:00etan eginen da.

Mendi irteerak

Mendibil Mendi Taldeak Europako tontorretara irteera antolatu du. Ekainaren 18an, larunbata, herritik 06:00etan aterako dira eta Kantabriara ailegatuta, Fuente Dé-tik (1.078 m) abiatu eta bozpasei orduko ibilbidea egingen dute. Peña Remoña (2.244m) izanen da punturik garaiena. Biharamunean, hilak 19, El Cabletik (1.859m) aterako dira eta egingen duten gailurrik altuena Torre Blanca (2.617m) izanen da. Sei ordu inguruko ibilaldia izanen da.

Izen-ematea hilaren 9a baino lehen egin behar da mendibilaurrera@hotmail.com-en edo 636 509598ra deituz).



ARGAZKIA: BILGUNE FEMINISTA

Emakumeen curriculum bilketak izandako emaitzarekin pozik

Bilgune Feministak eta LAB sindikatuak martxan jarritako curriculum bilketaren inguruan balorazio ona egin dute. Adierazi dutenez, «argi erakutsi digu, herriko emakumeok herrian egin nahi dugula lana». 49 curriculum bildu dituzte eta dagoeneko entregatu dituzte lantegian. Horren harira, «oraingoan, Sarriopapel y Celulosa S.A. enpresak emakumeak kontuan hartu gaituela», azaldu dute eta gaineratu dute «Sarriopapel jarrera baikorrarekin agertu dela emakumeen kontratazioaren inguruan». Hala, jakinarazi dutenez, emakume batzuei deitzen hasiak dira lanean hasteko, eta lanean hasitakoak ere badira. Hemendik aurrera, jarraipena egiteko asmoa dute Bilgune Feministak eta LAB sindikatuak, baina «albiste pozgarria» dela iritzi diote. «Borrokak eta aldarrikapenak balio dutenaren adierazle, mobilizazioetatik garaipenak eratoritzen direnaren adierazle! Eskerrak eman nahi dizkizuegu Leitzaldeko emakume guztiei, elkarren arteko indarrez lortuko baitugu!».



ARGAZKIAK: HITZA/ J.M. BARRIOLA

Ekitaldiz betetako egunak

Maiatzaren 17az geroztik, gisa guztietako ekitaldiez gozatzeko aukera izan duite herritarrek Kultur Aroarekin. Hitzaldietan aukera zabala, tailerrak, kontzertuak, antzerkiak, dokumentalak, Gazte Eguna, azoka... Aurten XXXIV. aldiz egingen den Kultur Aroa oso osatua izan da.

gaztelu sol
iturgintza
kalifikazioa · saneamendua · gasa
Tfnoa: 948 510 086 · 948 510 156
Faxa: 948 610 856
LEITZA

EGUBERRIAK → OSPAKIZUNAK

Herriko aldizkariari izena jartzeko proposamenak bildu nahi dira

Horretarako kutxak jarri dira Sastinean eta okindegian

Juana Mari SAIZAR

Euskara Zerbitzuak eta Udalak aldizkari berria sortu nahi dute, eta helburu horrekin lan talde txoa biltzen hasia da. Eta aldizkariari izena jartzerakoan herri guztiak parte har dezan proposatu dute, eta horretarako Sastinean eta okindegian kutxa batzuk jarriko dira, bakoitzak bere proposamena hor sar dezan. 15 eguneko epean, bildu eta lan taldeari gehien gustatzen zaiona edo

politena iruditzen zaiona aukeratu da. Lerro hauen bidez, parte hartzeko gonbidapena egin nahi zaie herritarrei.

Eskolako enbteerak

Eskolako umeeb bi eguneko irteera egin dute berriki kostaldera. Getariko kaia, herria eta hondartza ikusi, aparejoen tailera, itsasontzian ibili, Elkanoren ipuina eta oroigarria bisita, arrantza eta mahastiak ikusi... Horiek izan ziren programaturako ekintzak. Bigarren egunean, eguraldiak ez ziren batere lagundu, baina oso gustora ibili omen ziren eta asko disfrutatu omen zuten.



ARGAZKIA: IGOÑE GOIKOETXEA

Pilotari gaztetxoak

Sortzen Ikasbatuaz-ek antolatutako eskolarteko pilota txapelketa, lau mutikok parte hartu zuten, eta maiatzaren 15ean Iruñean egin zen Sortzen-eko festan, sariak jasotzera hurbildu ziren. Idoate, Fernando Goñi eta Martiñez de Eulatek sariak banatu zizkieten, eta gainera, oroigarrietan beren sinadura jarri zieten.

Guraso Elkartearen 25. urteurreneko ospakizunak

Guraso elkarteak lanean hasi zela badira 25 urte, eta hau ospatzeko proposamena egin dute orain lanean ari direnek. Bilerak egin dituzte eta dagoeneko adostasun batera ailegatu dira: ekainaren 18an ospakizunak egingo dituzte.



Onsalo pilotan

Unai Onsalo pilotariak Franzisko Briven-en jokatutako den Eskuz Banakako 5. Munduko Kopako ligaxkan hartu du parte. Munduko txapelketako lau hoberenak aritu ziren eta Unai finalen Medinaren kontra irabazi zuen. Aurtengoan Medina ongi prestatua omen zegoen, baina zortea aresorarraren alde jarri zen.

60 aniversario
Casa Cambra
Zure erosketarengatik urteurreneko oparia

edredoi fundak
edredoi nordikoak
ohe estalkiak · albornoak
maindireak · mantelak
kuxinak · toallak

Tafalla, 13 • IRUÑEA
948 230 634

Erreka, igerileku eta hondartzarako toallak

BAZTAN

HAUTESKUNDEAK → LARUNBATEAN KARGU HARTZEA

Ezkerra edo NaBairen botoek erabakiko dute alkatetza

Baztango mapa politikoa irauli du Bilduk hauteskunde hauetan

TTIPI-TTAPA

Begoña Sanzberro buru duen UPN alderdi erregionalistak 37 botoke aldea baino ez dio atera Garbiñe Elizegiren Bildu taldeari. Biek borts zinegotzi eskuratu dituzte, eta nahiz eta boto gehien eskuratu dituen alkategaia UPNko Sanzberro den, litekeena da Bilduko zereendaburua izatea hu-

	Zentsoa	UPN	Bildu	Ezkerra	NaBai	PSN
AZPILKUETA/AMAIUR	380	75	120	63	19	2
ERRATZU	396	69	147	52	13	4
ARIZKUN	493	145	122	60	16	15
ELIZONDO-ELBETE	468	119	111	44	41	12
ELIZONDO 2	576	164	127	56	33	17
ELIZONDO 3	545	138	105	58	53	18
ELIZONDO 4	713	168	140	75	55	39
ELIZONDO 5	459	109	132	57	47	9
GARTZAIN/LEKAROS	555	156	108	53	39	19
IRURITA	679	144	162	86	44	14
ZIGA/ANIZ	215	57	61	19	8	1
ARRAIOZ/ORONOS	554	111	107	166	10	12
ALMANDOZ/BERROETA	253	69	45	28	10	34
GUZTIRA	6.286	1.524	1.487	817	388	196

rrengo agintaldiko alkatea, baldin eta, Florentino Goñi buru duen Ezkerra edo Peio Iriarteren NaBaik haren alde egiten badute larun-

bat honetan, ekainak 11. Orduan egingen baita kargu hartzea.

Hauteskunde hauetan galera izugarria izan duena NaBai izan da.

2007ko udal hauteskundeetan 1.931 boto izatetik orain 388 izatera pasatu da. Hala, duela lau urte Alderdiaren Legea tarteko, zazpi zinegotzi eskuratu zituen eta aldi honetan, bakarria eskuratu du.

Baztango Ezkerrak, bere aldetik, bi zinegotzi eskuratu ditu eta Luis Roldanen eskutik aurkeztua zen PSNk ez du ordezkariarik lortu.

Almeriako kartzelara martxa

Maiatzaren 27 eta 28ko elkartasun astearen ondoren, asteburu honetan Almeriako kartzelara joateko martxa antolatu du Baztango Amnistiaren Aldeko Mugimenduak. Hala, Iñaki Erro askatzeko eta kondena beteta duten presoak kaleratzeko eska-



PERTSONAIA

Fernando ANBUSTEGI

Miranda de Argako literatur sarietan irabazle

Kristine izeneko obra-ekin, Fernando Anbustegik irabazi du Miranda de Argako idazlan lehiaketako sari nagusia. Nafarroako herri honetan Euskararen Egunaren barne, Erdialde literatur sariak egiten dute eta helduen mailan nagusitu da elizondarra.

tuz ekainaren 10, 11 eta 12an Almeriako espetxera irteera egingen da.

Gidatzeko eta arma baimenak

Asteazken honetatik aitzinera, gida baimena eta arma baimena berritzeko mediku erreko- nozimentuak lehengo medikuaren etxean, osasun zentroaren parean egingen dira, 08:00-etatik 13:30era. Aipatu, gida baimena berritzeko ez dela argazkari behar; arma baimenerako, ordea, bai.



ARGAZKIA: AMAIURKO ESKOLA

Ikasturte bukaera prestatzen

Erearoan sartzeak, eskolako ordutegian aldaketa ekarri die neska-mutikoei eta hori ikasturtea akitzeko gero eta guttiago gelditzen den seinale da. Horren harira, jarduerak eta ateraldiak egiten ari dira ikastetxeetan. **Amaiurko** eskolan, erraterako, erearoaren 13an Yolanda Arrieta ipuingile eta idazlearekin topaketa egingen dute. Etxepare sariaren sustapenerako saioen baitan diruz lagundutako ekimena izanen da. Eta bi egun beranduago, 15ean, Iruritako frontoian, bertze herri eskolekin batera, musika kontzertua eskainiko dute 3. mailatik goitiko ikasleek. Hilaren 20an altxor bilaketa egingen dute, eskolako haundienek koxkor eta ttarendako prestatutako jolasa, hain zuzen. Eta 21ean Aritzakunera joanen dira egunpasa egitera, senide, haur, maisu-maistra zein animatzen den amaiurtar ororekin.

Bierresenea
OSTATU · JATETXEA
Jaki tipikoak · Etxeko giroa
Burrutiz buzoa · Ttxoa: 948 582 043
ORONOS · MUGAIRI

MEDEKOSTE BESTAK BERROETAN → EKAINAREN 10ETIK 13RA

Asteleheneko asto karrera *Finlandia* saioko desafiorako grabatuko da

Horrez gain, *El conquistador del fin del mundoko* protagonistak ere etorriko dira

ORTZILERIA 10 Bezpera

20:00etan suziariak bes-
tei hasiera emateko
20:30ean txopo gorat-
zea eta herriko trikiti-
lariak. **21:00etan** Mutil-
dantzak. **21:30ean** Baz-
tan-zopak. **00:00etan**
dantzaldia JALISKO
BAND taldearekin.

LAUNBETA 11 Haurren Egune

12:00etan Leurtza
Abenturaren eskutik,
puzgarriak, segway,
discgolf... **16:00etan**
Leurtza Abenturaren es-
kutik, puzgarriak, seg-
way, discgolf...
19:00etan *El Conquis-*



ARGAZKIAK: ARANTXA GAMIO

Zikiro-jatea eta asto lasterketa dira Mendekoste bestetan inoiz hutsik egiten ez duten bi ekitaldiak.

tador del fin del mundo saioko Julian Iantzi aur-
kezlea eta aurtengo parte-hartzaileen (Nakor,
Xegone, Tolas, Lur, Etxe,
Pox, Maider...) arteko
jokoak. **21:30ean** herri
afaria. **00:00etan** dan-
tzaldia SANTXOTENA-
rekin.

IGENDIA 12 Mendekoste Egune

12:00etan Meza Nagu-
sia Elizondoko abesba-
tza eta Gaztelu taldea-
rekin. **13:00etan** hamai-
ketakoa herriko plazan.
13:30ean pilota parti-

da. **18:30ean** herri kiro-
lak: Iparraldeko joko-
en torneoko II. jardunaldia
(koxkor biltzea, ingude
jasotzea, harri-jasotzea,
txinga eramatea, lasto
altzatzea eta zakulariak).
20:30ean dantzaldia
SANTXOTENArekin.
22:00etan xingar jatea.

ASTELEHENA 13 Zikiro Egune

11:00etan XXXVIII. bi-
zikleta itzulia. **12:00etan**
mus txapelketa.
14:30ean zikiro-jatea
JOXE ANJELekin.
18:00etan asto karre-
ra. Berroetako herrita-
rrak baserritarren aurka
ariko dira eta ETBko Fin-
landia programakoen
erronka ikusgarria (gra-
baketa). **21:00etan** xin-
gar jatea. **22:00etan**
Gaixoa Ni bestak aki-
zteko.

GANTORRI

Ortziralean, ekainak
10, Gantorri autobusa
egonen da.

GIZARTEA

Gaztetxearekin
bizikleta bidaia
Frantziaratz

TTIPI-TTAPA

Elizondoko Gaztetxe-
ak bizikleta bidaia
antolatu du Loirarat
(Frantzia) joateko.
Saint Nazaretik Or-
leansera arteko 280 ki-
lometroak egiteko as-
moa dago, Loira ibaia-
ri jarraikiz gizateriaren
ondare izendatutako
tokiak ezagutuz eta
herriak, gazteluak
eta naturguneak iku-
siz. Informazio bilera
ortzegun honetan, hi-
lak 9, eginen da Gaz-
tetxean, 19:00etan.

Martiko
Pol. Zainen, s/n.
31790 Bera, Nafarroa
Tel: 948 625018 Fax: 948 625036
www.martiko.com
Antzietan edukiak eta entzual

**DENDA
ORDUTEGIA**
ASTELEHENETIK
ORTZIRALEA
08:00etatik
17:00etara

Martikorekin
zu zeu
sukaldari.

ANTXITONEA
Turismo

24 ingela hainzuzekin - Apartakalekia
Aste gutxiarekin gure puztetan - Hari musikala eta TI
Gela berria sokaletan eta besterentzuekin

Bradío bariete 16, Elizonda • 948 581 807 • 948 581 853
hostal@antxitonea.com • www.antxitonea.com

BAZTAN

DIRU BILKETA KANPAINA → UZTAILAREN 24AN

Xorroxin Irratiak antolatutako Behikaka.com ekimenaren 3. edizioa martxan da

Hiru sari potolo banatuko dira aurten ere

TTIPI-TTAPA

Dirulaguntzak murritzuta, egoera ekonomikoa zaila dela-eta, Behikaka.com ekimena antolatu zuen Xorroxin Irratiak orain hiru urte dirua biltzeko. Eta aitzineko bi edizioetan izan duen arrakasta ikusita, aurten berriz egitea erabaki du. Uztailaren 24an, igandearekin, egingen da zozketa berezia.

Xorroxin Irratiaren egoitza parean dagoen zelaian egingen da zozketa. Belagaia 2.000 laukitxotan banatuko dute, bakoitza 0,5 x 1 metroko neurrikoa. Guztira 20 lerro eta 100 zutabe. Laukitxo horiek salgai jarri dira, boleto batzuen bidez eta eskualdeko ostatu eta komertzioetan erosi ahal izanen dira, bortz eurotan. Internetez eta telefonoz eskariak egingez ere eskuratu ahal izanen dira. Boletoak uztailaren 24a arte gorde behar dira, egun horretan egingen baita zozketa. Gero, zerbaki saridunen jabeek hilabete bateko epea izanen dute saria eskuratzeko. Epe horretan ez bada saridunik atera, ordezko zerbaki indarrean sartuko da eta 15 eguneko epea izanen da saria eskuratzeko.

SARIAK

Saria banatzeko arduradunak hiru behi izanen dira: Erdiz, Lore eta Zagua eta hiru sari edo lote banatuko dira: **lehendabiziko lotea:** Mugaritz jatetxea (Donostia), Ibernalo landetxea (Kanpezu, Araba), Gorraino jatetxea (Donostia), Donostiako Aquarium-eko 15 sarrera. **Bigarren lotea:** Mugaritz jatetxea (Donostia), Nekatur Landetxeen elkarte, Fiteroko bainuetxea, Hondarribiako Arroka Berri jatetxea, Donostiako Aquarium-eko 15 sarrera. **Hirugarren lotea:** Arzak jatetxea (Donostia), Txapatera landetxea (Izaba), Panticosa bainuetxea (Huesca), Samaniego Jauregi (Araba), Donostiako Aquarium-eko 15 sarrera.

Horrez gain, egun berean gauza gehiago ere zozketatuko dira ostatuan tragoxkaren bat hartzearen truke banatuko diren zerbaki bidez. Donostiako Aquarium-eko sarrerak, bizikleta bat, Lur-Lan produktu lotea, Aroa Ardoak eta Esait-eko materiala banatuko dira.

Eta eguna besta tiki moduan planteatu nahi denez, zozketaz gain, musika, zuzeneko irratia, bertsolariak, jokalariak, hoberenen komentarioak eta ostatu izanen dira.



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

Iruritako bestak

Puy eta Nieves Urtasunek botatuko txupinazoarekin hasi ziren Iruritako bestak. Baztango lehendabizikoak dira, eta ondotik etorriko dira gainerakoak.



UTZITAKO ARGAZKIA

Baztandarrak ETB1eko *Finlandia* saioan

Badirudi, baztandarrek gustua hartu diotela ETB1eko *Finlandia* saioko desafioan parte hartzeari. Heldu den astelehenean, ekainak 13, Berroetako besten barne, asto karreraren ibiliko dira herritarrak baserriaren kontra eta *Finlandia* programarako grabatua izanen da. Baina berroetarren aitzinetik Lekarozko institutuko ikasleak izan dira desafioan parte hartu dutenak. Zertan ariko eta makinak hartu eta ardiei ilea mozten aritu dira bi taldetan banatuta Arantzako Martinekoborda baserrian. Nork irabaziko ote du apustua? Hori ikusi egin behar da, larunbat gau hauetako batean emitituko duten saioan.

Okindegia	Jatetxea	
OKINDEGIA: Ogi artisaua, egunekoa eta txapata JATETXEA: Menua eta Karta (asteburuetan) Espezialitatea parrillan erretako jakietan Enkargatuz gero, bildotsa ogi-labearen erre, goxo goxoa!		Ordoki Industrialdea Tfnoa: 948 453 403 31713 ARIZKUN

AHOLKULARITZA → ZONALDEKO GUZTIENTZAT ZERBITZUA

Arartekoaren bulegotik aholkulariak etorriko dira ortzegunean

Administrazio publikoaren jardunari buruz solasten ahalko da beraiekin

TTIPI-TTAPA

Nafarroako administrazio publikoarekin zerkusua duten zalantzak edo kekak argitzeko aukera izanen dute herri-tarrek ortzegun honetan, ekainak 9. Izan ere, ekainaren 2an bezala, Nafarroako Arartekoaren Bulegotik bi aholkulari etorriko dira Elizondora, Baztango eta inguruko herrietakoei arreta zerbitzua eskaintzera.

Arizkunenea Kultur Etxean egonen dira, goizez 09:00etatik 14:00etara eta arratsaldez 16:00etatik 18:00etara.

Dohainik den zerbitzua da eta interesgariak jotzen diren gaiak planteatzen ahalko dira beraiekin. Doako telefono bat ere jakinarazi dute: 900 702900.

Bertanen hirugarren argazki lehiaketa

Bertan Baztango merkataria eta ostalariaren elkarrekin argazki lehiaketa antolatuko du aurtengo hirugarren aldiz. *Baztango inguru eta paisaiak, herriak eta herri-tarrak* izanen da gaia eta partaide bakoitzak berak egindako hiru argazki berri edo bertzeko lehiaketan egon gabekoak aurketu ahal izanen ditu. Baztanen eginak izan beharko dute

eta argazki bakoitza formatu digitalean eta fisikoan aurkeztu beharko da.

Lan bakoitza bana-ka aurkeztu beharko da, izengoiti edo izenburu batekin, gero gutunazal batean egilearen datuak eraman beharko dira.

Ekainaren 30ean akituko da lanak aurkezteko epea: eskura (astelehene-ortziralerara 09:00etatik 14:00etara) edo postaz bidali ahal izanen dira (*Bertan Baztango Merkataria Zerbitzu eta Ostalaritza elkarteak*. Bertan III. argazki lehiaketa. Arizkunenea Kultur Etxea, Jaime Urrutia karrika 14, 31700 Elizondo).

SARIAK

Epaimahaia Bertaneko kide diren argazkilaria profesionalak, udaleko ordezkariaren batek

eta Baztanen ezagunak diren eta ospea duten argazkilaria ez profesionalak osatuko dute. Argazkien originaltasuna eta sormena baloratu-ko dira eta bakarren bat gehiago berrukitua baldin badago, epaimahaia kanporatzea erabaki dezake.

Hiru argazkirik onenak sarituko dira hiru erosketara bonorekin, Bertaneko kide diren 80 tokitan gastatzeko: lehendabiziko saria 400 euroko bonoa izanen da, bigarrena 200 eurokoa eta hirugarrena 100 eurokoa.

ZOKKETA ORTZIRALEAN

Ortziral honetan, ekainak 10, bi mila euroko erosketa balearen zokketa egingen du Bertan merkatarien elkarrekin. Zokketa 20:30ean izanen da Arizkunenean.

Amaiur jaun eta jabe sokatiran

Maiatzaren 28an jokatu zen Berriozarren, Nafarroako Lauko Sokatira Txapelketako azken saioa eta baztandarrak txukun ibili ziren. Gizonen 300 kiloko kategorian, Amaiur nagusitu zen. Dena den, puntu bateko aldea baino ez zion atera Amaiur-Urrutia taldeari. Saillapenean bosgarrena izan zen Amaiur Kirol Elkarteko A.S.T. taldea. 320 kiloko kategorian ere Amaiurre-joana da aurtengo txapela. Kadete mailako txapelketan, bertalde, 290 kiloko kategorian, Basaburuak guttiatik ez zuen lortu txapela. Berriozar talde txapeldunarengandik puntu bakarrera gelditu ziren baztandarrak. Basaburu B taldea bosgarrena gelditu zen saillapen nagusian.

FLASH

Baztan filmaren bigarren zatia grabatzen

Iñaki Elizalde zinema zuzendariaren *Baztan* filmeko grabaketak aitzinera segitzen du. Joan den urteko martxoan lehendabiziko zatia grabatu zuten eta maiatzaren 30ean bigarren zatiarekin hasi ziren. Lau astez ariko dira grabaketa lanetan, hiru astez Baztanen eta azken astean hemendik kanpo. Agoteak dira pelikula honen oinarria, duela mila urte baino gehiago hain baztertuak izan ziren herri-tarren ingurukoak da. Karmelo Gomez, Unax Ugalde, Kandido Urrutia eta Txema Blasco aktore nagusienekin batera, baztandar aunitz ari da pelikula honetan parte hartzen. Urte bukaerarako akitzea espero da eta 2012 has-tapenean baliteke estreinatzea.

Bioeraikuntza hizpide

Bioeraikuntzaren adis-kideen hurrengo bilera egiteko Amaiurko Herriko Ostalariaren Aukeratu du GEA Azterketa Geobiologien Elkarrekin. Hilaren 25ean egingen da. 10:30ean aurkezpena egingen da eta ondotik, *Como construir un edificio de energia casi cero* hitzaldia izanen da eta 16:00etan bioeraikuntza irizpideak erabiliz eraikitako ia zero energiadun eraikin batera bisita. Deialdiarekia da.



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

700 behi eta aratze Erdiz, Belate eta Lizartzun

Ohiturari segituz, ekainaren 1ean, Erdiz eta Belate aldera eraman zituzten Baztango abeltzain aunitzek beraien behi eta aratzeak. Guztira 700 inguru izanen dira hiru hilabete eta erdiz Erdiz, Belate eta Lizartzun aldean ibiliko direnak.

PPSOE, Euskal Telebista digitala Nafarroan orain!
Berrira erosi taldea

URDAZUBI

AZPIEGITURAK → DANTXARINEAN

Kantauriko Ur konfederazioak Ola zubia botatzea erabaki du

Bere garaian
Zugarramurdira
gateko bidea
zen

TTIPI-TTAPA

Ugarana erreka gainetik pasatzen den Dantxarineako Ola zubia botatzen hasi dira. Horren arrazoia Kantauriko Ur Konfederazioak emandako agindua da, ebazpen baten bitartez botatzea hobe dela iritzi baitu.

Ola zubia 1985. urtean eraiki zen eta lehen, Zugarramurdira gateko sarrera ematen zuen bidea izaten zen. Orain, ordea, desagertu eginen da. Maiatzaren 30ean hasi ziren botatzen, zenbat herritarren tristorarako.



UTZITAKO ARGAZKIA

Joan den astean hasi ziren zubia botatzen.

Azkar taldearen eskerrak

Lerro hauen bidez, Azkar taldeko burua den Santiago Villaresek eskerrak eman nahi izan

dizkie joan den maiatzaren 22ko udal hauteskundeetan bere taldearen alde botoa eman zuten guztiei.

Aipatzekoa da, bertzal-

de, larunbat honetan, ekainak 11, hartuko dutela kargua hurrengo agintaldian alkate eta zinegotzi izanen diren ordezkariak.

LANA

1.110 langaberekin joan da maiatza

TTIPI-TTAPA

Langabe kopurua pixkanaka jausten ari da eskualdean udaberri honetan. 1.110 langabe zeuden maiatz honetako Doneztebeko Enplegu Bulegoan izena emanak, apirilean baino 38 guttiago (%3,31ko jautsiera). Maiatzean 385 kontratu egin ziren Doneztebeko Enplegu Bulegoaren bitartez eta horietatik 46 izan ziren mugagabeak. Adina eta sexuari dagokionez, 25 urtez goitiko gizasemeen artean beheiti egin du langabeziak (499tik 471ra), eta adin tarte horretako emakumeen artean 521etik 495era jautsi da. 25 urtez beheitiko artean, aldiz, goiti egin du. Adin tarte horretako emakumeetan 50etik 56ra eta gizasemeetan, 78tik 88ra igo da. Lan arloei dagokionez, zerbitzuen arloak jarraitzen du langabe gehien izaten, nahiz eta maiatzean 696tik 671ra jautsi den.



SOULE

hileta artea

Tfnoa. 948 453 444

Mug.: 629 659 583

ARIZKUN



MONTXO

OSTATUA



Dantxarineatik
2 km-tara

TABAKO-DENDA
ANZAN-BORDA • URDAZUBI

Egunero irekia 10:30etik 02:30era

T. 902 210 800 • www.venta-peio.com

VENTA
PEIO

Bere (Administratiboa) | Dantxarinean | Euzkoan | Luzean

32100 BERRA | 32112 URDAGU | 32100 BERRA | 32000 LUZENA



ZUGARRAMURDI

OSPAKIZUNAK → IV. SORGINAREN EGUNA

Dena prest dago ekainaren 18an eginen den Sorginen Egunerako

Musika, hitzaldiak, bisita gidatuak, ikuskizunak, errituala, Akelarrea... izanen dira

Koro eta Margari

Heldu den ekainaren 18an, larunbatarekin, Sorginaren Eguna ospatuko dugu herrian, aurtengoan laugarren aldiz.

Hiru tokitan antolatutak dira ekitaldiak: karrikan musika eta dantzak izanen dira, eta egun guztian merkatu-postuak. Museoan hiru hitzaldi emanen dira, gai hauekin: *Muga, deabruaren tokia* (frantsesez); *Zugarramurdiko sorginak, fikzioa edo errealitatea* (gaztelaraz) eta *azkena, Sorginak lehen eta orain, Afrikan eta hemen* (eskuaraz). Lezean bisita gidatuak eginen dira, erritual bat, antzerkia eta piroteknia ikusizuna ere bai.

Egun pulit bat izaten da hau, eta gainera, gure antzinako «sor-

ginen» izen ona berreskuratzeko aukera.

EKITALDIAK GOIZ ETA ARRATSALDEZ

• Egun guztian artisau azoka izanen da behe-tiko karrikan eta sorginen margo erakusketa, berriz, Sorginen Museoan.

• 11:00etan trikitilariak herriko karriketan barrena.

• 11:30ean haurren bigarren ipuin eta margo lehiaketaren sari bana-keta Museoan.

• 12:00etan hitzaldia Museoan (gaztelaraz).

• 13:00etan bi sorginek gidatutako bisita eginen da lezean.

• 15:00etan hitzaldia Museoan (frantsesez).

• 17:00etan hitzaldia Museoan (eskuaraz).

• 17:30ean karrika ikus-kizuna behe-tiko karrikatik plazara.

• 18:00etan bi sorginek gidatutako bisita lezean.

• 19:00etan herriko haur dantzariak emanaldia eskainiko dute plazan.

• 20:00etan eskaintza errituala lezean.

• 21:30ean Akelarrearen antzezpena eginen da lezean.



ARGAZKIA: ONDIKOL

Joan den urteko Sorginaren Egunean antzerki pulita eskaini zen plazan.



ARGAZKIA: KORO ETA MARGARI

Antzerkia igandean

Berako *Emitza* antzerki taldeak bere azkeneko lana eskainiko du Zugarramurdin. *Dios mio, haz que esta noche no nos corten la luz* du titulua, eta seguraski umorea eta irri egiteko manera ez da falta izanen. Igande honetan, ekainak 12, izanen da, 18:00etan Museoan. Eta sarrera urrik da. Aipatzekoa da, antzerki talde huntan hiru zuamurdiar aritzen direla: Asun, Inma eta Ione. Beraz, ikus-tera gateko bertze motibo bat ere badugu.



ARGAZKIA: SORGINEN MUSEOA

Museoen Nazioarteko Eguna

Maiatzaren 18a Museoen Nazioarteko Eguna zela aprobetxatuz, Sorginen Museoan zozketa bat egin zen. Pasatu ziren ia 300 bisitariek euren datuekin txartel batzuk bete eta sorginaren eltzean bota zituzten. Sariduna Luis Arroyo Mayoral izan zen, Madrigo talde batekin etorria. Bertako produktuen saskia eraman zuen.

**Iñaki Alzuyet margoak**
Pintura dekoratiboa eta industriala • Fatxadak • Barnesledeak
Dekoratiboa: estukoak, belakurak
Lakatsa eta berriztatzeak kabinen • Pladuna
Haini eta eguna arnadorekin garbitzen da
Itur-ttppi etxea - Landibar Auzoa - 31711 URDIZUBI
Tel: 659 862 417 - pinturasalzuyet@yahoo.es

SENPERE

KULTURA → UZTAILAREN 10EAN AHETZEN

Mattin bertsularia omenduko dute heriotzaren 30garren urtemugan

Ahetezkoaren espos laguna Mari Olandegi senpertia eta bertsulari alaia zen

Franck DOLOSOR

Heldu den uztailaren 22an, hiru hamarkada beteko dira Ahetezko Mattinen boza eta irria isildu zirela. Bertsulari huren izena eta izana gogoratzeko omenaldia prestatzen ari dira bere sorterrian Herriko Etxeko arduradunak, Euskal Kultur Erakundea eta Bertsularien Lagunakelkartea. Mattin zenak lotura hertsia zuen Senpererekin maiz etortzen baitzen hunat kantatzerat, Ibarrungo eta Helbarrungo bestetarat, bertzeak bertze, Xalbadorrekin zombait aldiz. Adineko senpertia guziek gogoan dute oraino ahez-tarrarekin egin zituzten irriak Sarako besten karietarat konparazione. Bere andrea Mari, duela sei urte zendua hura ere, senpertia zen eta biziki atxikia zen sorterrari. Ez da dudarik herriar frango joanen dela beraz auzo herrirat, Ahetezkerat uztailaren 10ean, omenaldi egunean.

EGITARAU ZABALA

Huna hemen omenaldi egun horren egitaraua. 10:00etan, meza Jarrailari koralarrekin, Euskal Irratietan zabaldua izanen dena zuzenean. Ondotik, Mattinen oroi-



tariaren aitzinean, *Agur Jaunak* abestuko da lehenik eta Ahetezko auzapezaren hitz hartzea. Segidan, Jose Mari Iriondo, Mattin ongi ezagutu zuen kazetariak hitzaldia eskainiko du.

Mattinen bizia laburbiltzen duen plaka baten agertzea egingen da eta gero Aurrekua dantzatuko da. Txomin Ezpondaren bertsuek ere bere lekua izanen dute ekitaldian. Aperitifa izanen da herriko plazan.

Gero, bazkaria izanen da Ahetezko Hiriartera ostatuan. Bazkariaren prezioa 23 eurokoa da eta izenak eman behar dira lehenbailehen deituz 05 59 41 95 22 telefono zenbakira.

Bazkalondoan, 16:00etan, bertsu saioa egingen da Ahetezko eskolan Michel Aire *Xalbador*, Odei Barroso, Ekhi Erremundeguy, Jose Lurraiki koralarrekin, Euskal Irratietan zabaldua izanen dena zuzenean. Ondotik, Mattinen oroi-



ARGAZKIAK: TRECUI FAMILIAREN BILDUMA

Mattin Trecu eta Mari Olandegi jaun-andereak lanean beren etxeko lurretan Mulienean. Ahetezko bertsularia Euskal Herri osoko plazetan, Parisen eta Ameriketean ere aritu zen kantuz. Itsasoaren bertze alderat joan zen bere lagun haundiarekin Fernando Aire *Xalbador* urepeldarrarekin, argazkian eskuinean.

FRANCK DOLOSOR
FRANCK DOLOSOR

BILTEGIA 948 630 102 • FAUSTINO 647 810 152
Bidasoa, 76 - atea 21-22 • 31780 BERA

AZKAINA

Euskaraz Bizi Eguna ospatuko da larunbatean

TTIPI-TTAPA

Euskal Herri euskaldunaren bidean urrats bat gehiago eman eta euskaraz bizi den herriaren erakusleho izan nahi du Azkainek larunbat huntan egingen den Euskaraz Bizi Eguna. Besta eta aldarrikapena uztartuz, euskaltzale andana batu nahi du Euskal Herrian Euskaraz erakundeak ekainaren 11n.

Auzolanetik abiatutako egitarau zabala prestatu dute horretarako. Azkaineko pilota plaza inguruan bilduko da eguna: 13:00etan hasiko da eguna ongi etorri goxo batekin (kafe/bixkotxak). Kale animazioarekin alaituko da gunea egunean zehar.

15:00etan herri-bazkaria antolatu dute eta horren ondotik txiste tailer parte hartzailea izanen da. 18:00etan, esku huska pilota partida: Jon Paterne eta Andoni Alberdi, Ibai Arregi eta Orkatz Aranoren kontra. Iluntzean, berriz, kontzertuek hartuko dute lekua: Izate eta Xarma taldeekin igaroko dira Gaztetetik.

Antolatzaileek aipatu dutenez, «euskaraz bizitzearen aldeko hautua indartzeko eguna da Euskaraz Bizi Eguna; euskaldunok sasi artetik salto egin eta garenaz harro gaude la erakusteko eguna». Hitzordua Azkainen.

KIROLA → INTEGRAZIO BATZORDEAREN ALDE

Donapaulek irabazi du Euskal Herriko I. Errugbi txapelketa

Gasteizko Gaztedik ezustea eman zuen finalean sartuz eta Sara hirugarren izan zen

Joanes GARCIA

Joan den maiatzaren 28an iragan den eguna arrakastatsua izan da. Zazpi probintziak bildu dituen txapelketa eguzkipean iragan da. Lehiak gogorrek izan dira, baina kiroltasun osoz jokatuak.

Gasteizko Gaztedi taldeak ezustea sortu zuen finalerako sailkatuz. Finalean Donapau-

leko 'bluiak' taldearen kontra lehiatu zuten. Partida 10-10eko berdinketarekin bukatu zen, baina Donapaulek entsegu gehiago sartu baitzituen Baxe Nafarrek izan ziren Euskal Herriko lehen txapelidunak. Taldeen portaera goraiatzekoa da.

Sailkapena honelakoa da: 1. Donapaule, 2. Gasteiz, 3. Sara, 4. Hernani, 5. Azkaine, 6. Mendikota, 7. Getxo, 8. Baztan.

Egun hori, Integrazio Batzordearen aldeko ekimena ere izan zen. Iluntzean, xapito zoragarrian 500 lagun bildu zituen zikiroko irabazialek artearen alde izan ziren.

Olhain ikastolaren besta ospatuko da ekainaren 12an

Joanes GARCIA

70 ikasle inguru dituen ikastolak, haren urteroko besta antolatuko du ekainaren 12an, igandean.

Egitaraua herrikoia bezain polita antolatuko dute. 11:30ean ikasleek kantu pare bat eskainiko dituzte. Ondotik, Karlos Aizpuruk zuzentzen duen bertso eskolako ikasleek bertso sorta bat botako dute. Eguerdian txotxa emanen da Ikastolako gaiteroak giroturik.

Ikastolako burasonek, kantuen bidez, sa-

garnotegi bazkaria animatuko dute. Ohiko menua izanen da 22 eurotan: bakailua, txuleta, gasna, pastiza, kafea, ttotta... Haurrentzat bazkaria, berriz, 6 eurotan izanen da.

Arratsaldea borobiltzeko Txalapartaz taldea entzunen da. Egunean zehar puzgarriak egonen dira haurrentzako.

Erreserbak egiteko deitu 0559542758 edo 0673900352 telefonoetara. Txartelak salgai daude Herriko Etxeo Edantegian.



ARGAZKIAK: JOANES GARCIA

Errugbiko txapelketako finalistak kontent, bere sariak hartu eta gero.

Kuxkuxtu txarangak zintzur bustitzea alaitu zuen. Ondotik, Xutik eta DJ Balporesek gorputzak dantzan ezarri zituzten.

Oroitzapenetik bidaiarat ikusgarria integrazio batzordearen alde

Ahalmen urriagoko haurren eskolatzearan alde egiten duen elkar-teak, bertze sustengurak errezibitu ditu. Izan ere, aitzineko aleetan maiz aipatu dugun Oroitzapenetik bidaiarat ikusgarriaren antolatzaileek Euskal Herriko errugbi txapelketa aprobetxatu nahi izan dute elkarteko kide den Dominique Idiarti 6.700 eu-



ARGAZKIAK: JOANES GARCIA

Gasteizko jokalariek pozez txoratuak egindako lanarekin.

roko txeketa emaiteko. Bultzatzaile eta antolatzaile izan den Zazpiak Bat elkar-teak,

Olhain ikastolaren eta Etxola gaztetxearen laguntza ukan du. Milesker denei!

HERRIKO ETXEKO EDXNTEGIA
CAFÉ DE LA MAIRIE
T: 0559542519
Mozan eta Winoque
SARA

Lentena
Barruntzak
Mertzen
Jantz-likoak
Purten Matak
Kaifogoria
Beneke plaza 10 31770 Lezoa
T: 948 627 514

EDARIAK

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel. Fax: 948 63 10 27

EZKONTZAK

German Deskarga Oiartzabal eta **Sandra Legasa Rosa**, Lesakakoak, maiatzaren 28an Lesakan.
Basilio Elizondo Etxenike eta **Go-tzone Ariztegi Oiaregi**, Beintza-Labaiengoa eta Aurtizkoa, maiatzaren 21ean Iturenen.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

SORTZEAK

Oihan Arraztoa Vicente, Iruritakoa, maiatzaren 21ean.
Xabi Hernandorena Iturria, Zugarramurdikoa, maiatzaren 24an.
Andde Pelletrat Xurio, Zugarramurdikoa, maiatzaren 25ean.
Eneko Pintado Ribero, Lesakakoa, maiatzaren 22an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

HERIOTZAK

Severiano Mitxelena Jorajuria, Sunbillakoa, maiatzaren 18an, 76 urte.
Jose M^a Iñarrea Argain, Berakoa, maiatzaren 20an, 79 urte.
Teresa Etxegarai Lastiri, Erratzukoa, maiatzaren 21ean, 85 urte.
Pedro Erasun Saldias, Beintza-Labaiengoa, maiatzaren 24an, 89 urte.
M^a Consuelo Ripa Garbisu, Iruritakoa, maiatzaren 21ean, 63 urte.
M^a Lourdes Fagoaga Alzuri, Arantzakoa, maiatzaren 23an, 67 urte.
Manuel Goñi Iturriria, Lekarozkoa, maiatzaren 31n, 41 urte.
Andres Elizalde Mariezkurrena, Eratsungoa, maiatzaren 31n, 82 urte.
Antonio Barrenetxe Iantzi, Berroetakoa, maiatzaren 31n, 93 urte.



M^a Lourdes FAGOAGA ALZURI
Arantzan, 2011ko maiatzaren 23an, 67 urte zituela

*Argi bat itzali da hemen lurrean,
berri bat biztu da han zeru ederrean.
Gure oroimenean izanen zara betiko,
ez agurririk ez adiorik, gero arte baizik.*

ZURE FAMILIA



Javier GONZALEZ PELLEJERO
Beran, 2011ko hilbeltzaren 28an

*Eskerririk asko
gure ondoan egon zaretenei eta,
batez ere, bere sentiberatasuna
eta puntu umoretsua gogorarazi
diguzueniei.*

ZURE FAMILIA



Severiano MITXELENA JORAJURIA
Iruñean, 2011ko maiatzaren 18an

*Senar ona, aita zoragarria,
atautxi ezin hobea eta senide paregabea.*

*Erraza izan da zu maitatzea,
baina ezinezkoa zu ahaztea.*

*Nahiz eta urruti egon,
beti gure bihotzean egongo zara.*

ZURE FAMILIA

TXIRRINDULARITZA → ITALIAKO GIROA

Mikel Nieve leitzarra garaile izan da Giroko etaparik menditsuenean

Profesionalerako bigarren garaipena eskuratu du

TTIPI-TTAPA | LEITZA

Coneglianon hasi eta Gardeccia-Val di Fossan bukatu zen Italiako Giroko hamabosgarren etapa. Itzuliko saiorik menditsuena izan zen, etapa erregina ere deitua eta 230 kilometroko ibilbidea zuena. Eta helmugara ailegatzeko lehen auzan eta Mikel Nieve (Leitza, 1984) izan zen.

Euskaltel-Euskadi taldean ari da leitzarra eta maiatzaren 22ko etaparen 07.27.14ko den-

bora egin zuen. Hasi-ratik jarri zen aurrean Nieve baina oso etapa borrokatua izan zen. Garzellirekin ibili zen lehen, honek alde egin zuenean minutu bat pasara egon zelako Euskaltelekoa atzetik. Azkeneko mendatean, ordea, harrapatu eta helmugara artean aldea handituz joan zen Leitzako gaztea.

Maiatzaren 29an bukatu zen Giroa eta sailkapen nagusian hamai-kagarren gelditu zen Nieve, txapeldunarengandik 16 minutu eta 18 segundora.

Giroko etapa irabazita, bigarren garaipena eskuratu du profesionalerako. Joan den ur-



ARGAZKIA: SIROTTI/CYCLINGFANS.COM

Mikel Nieve Leitzako txirrindularia, Italiako Giroko etapa nagusiko podiumean.

tean Espainiako Vuelta-ko etapa bat irabazi zuen, Kantabriako Coto-bello mendatean amai-

tu zena, hain zuzen.

Orbea-Oreka SDA taldearekin egin zuen debuta profesional mai-

lan Mikel Nivek 2008an eta 2009. urteaz geroztik Euskaltel-Euskadi taldean dabil.

Etxera bueltan herritarren omenaldia jaso du Nivek

TTIPI-TTAPA | LEITZA

Hiru itzuli handietatik bitako etapa nagusiak irabazi ondoren ongi merezitako omenaldia jaso zuen Mikel Nievek sorterrian maiatzaren 30ean. Leitzako Udalak egindako deialdiari hainbat herritarrek erantzun zioten eta udal-letxeko karrapea jendez gainezka zegoen ospakizunean. Lehenik, bere lagunek herriko txi-

rrindulari elkartearen maillotak jantzita arkuak egin zioten gorpulekin. Arkuaren azpitik pasatuta, Joseba Sagastibeltzak Aurrekua dantzatu zion Nivek.

Solasaldien txandan, Jon Arangoa zinegotziak zorionak eman zizkion izandako emailtzengatik eta Xabier Zabalo jarduneko alkateak txapela jarri zion, leitzar guzuen izenean. Ge-



UTZITAKO ARGAZKIA

Herriko txirrindulari elkarteko lagunak gogoz omendu zuten Mikel Nieve.

ro, Miel Mari Elosegiluz eta Jose Luis Barberia Zili bertsolariek txirrindulariaren lana go-raipatu zuten bertsoan. Herriko txirrindulari gazteenek zurez egindako Euskal Herriko es-

kudoa oparitu zioten eta Jose Luis Larraldekin Mikel Nieve bera txikitzen agertzen zeneko argazki bat oparitu zion. Bere lagun taldearen izenean, Eneko Anduezak lora-sorta eskaini zion.

Nivek emozioz eta txanpaina irekiz esker-tu zuen herritarrek eskainitako ongietorria eta «horrelako garaipen gehiago herrira ekartzeko gogoz» dagoela azpimarratu zuen.

HERRI KIROLAK → ZAZPI MODALITATETAN LEHIAN

Iparraldeko Joko Torneoko bigarren saioa jokatu da igandean Berroetan

Partehartzaile gehienak eskualdekoak dira

TTIPI-TTAPA | BERROETA

Txokor biltzea, ingude altxatzea, txinga eramatea, harri-alkatzea, lasto-alkatzea, orga joko eta zaku lasterketa. Zazpi modalitate horietan ari dira Iparraldeko Joko Torneoan parte hartzen ari diren kirolariak.

Ekainaren 5ean Urdazubini jokatu zen probarekin hasi zen txapelketako lehia eta orain bertze bi jardunaldi gelditzen dira: igandean, ekai-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Fernando Etxegarai txokor biltzen, eta gibealeko aldean Andoni Lasaga lan berean.

nak 12, Berroetan 18:30etik aitzinera jokatu dena eta uztailearen 3an Betelun, 18:00etan hasita eginen dena. Probak banakakoak dira eta

guztira hiru jardunaldi izanen dira eta liga sistema erabiliko da.

PARTE HARTZAILEAK

Txokor biltzen Fernan-

do Etxegarai (Bera), Andoni Lasaga (Etxalar), Eder Goldarazena (Berriozar), Iñaki Ekisoain (Berriozar), Unai Iantzi (Aniz) eta Mikel Iantzi (Eli-

zondo) ari dira.

Ingude altxatzen, Lazaro Bujan (Leitza), Iker Lizarraga (Berriozar) eta Patxi Baraibar (Leitza) agian.

Txingekin, lau leitzar: Miguel Angel Sukuntza, Josetxo Urrutia, Lazaro Bujan eta Patxi Baraibar eta Imanol Martin (Berriozar).

Harri altxatzen Josetxo Urrutia (Leitza) eta Xabier Ariztegi Santxin (Etxalar).

Lasto altxatzen bikoteka sei lagun: Iñaki Bereau eta Eneko Telletxea (Igantz), Karlos Sein eta Arkaitz Retegi (Igantz), eta Oskar Telletxea (Igantz) eta Xabier Galarregi (Etxalar).

ERREMONTA → FRONTOI MOTZEAN ETA LUZEAN

Ezustekorik gabe Uterga eta San Migel Udaberriko Torneoan txapeldun

Matxin III.a eta Urrutia I.a izan dituzte kontrario

TTIPI-TTAPA | DONEZTEBE

Azken partida galduraren, Udaberriko Erremonte Torneoko txapela Xanti Uterga eta Julen San Migel doneztebarrentzat izan da. Txapelketaren berezitasuna partidak frontoi motzean eta luzean jokatu direla da eta lehenbiziko lehian lortutako abantailari esker lortu

dute txapela Doneztebekoek. Txapeldunordeak, berriz, Matxin III.a eta Miguel Mari Urrutia saldiastarra izan dira.

Maiatzaren 15ean frontoi motzeko finala jokatu zuten Donezteben eta 19 tantoko aldearekin irabazi zuten Utergak eta San Migel, 21-40. Abantaila hori baliatu zuten doneztebarrek, maiatzaren 21ean Hernaniko Galarrera pilotalekuan jokatu zen frontoi luzeko partidari. Matxin III.a eta saldiastarra nagusitu ziren, 38-40ko markagai-



UTZITAKO ARGAZKIA

Uterga eta San Migel urdinez eta Matxin III.a eta Urrutia gorritz.

luarekin, baina Utergak eta San Migel aitzi-

netik lortua zuten errenda horri esker txapela

Doneztebera eraman zuten.

PILOTA → BURUZ BURUKO TXAPELKETA

Ekainaren 19an jokatu du Olaizola II.ak Xalaren aurkako finala

Astebeteko atzerapena eskatu du goizuetarrak

TTIPI-TTAPA | GOIZUETA

Buruz buruko txapelketako finala ekainaren 19an, igandea, jokatu da. Berez, partida ekainaren 12an jokatzea bazen ere, Aimar Olaizola goizuetarra eskuin eskuko minez dago eta astebeteko atzerapena eskatu du.

Maiatzaren 29an Bengoetxea VI.aren aurka jokatu du finalerdian goizuetarrak partida eskuko minarekin bu-

katu zuela adierazi zuen. Arautegiak atzerapenerako aukera ematen du eta EPELeke epaile bakarrak onartu egin dio. Goizuetarraren eskuko minak luze-ra joko balu, bere ordez finalerdietan aritu den pilotari batek jokatu luke finala. Baina goizuetarrak aitzinera segitzen badu, finalean arerio Yves Salaberri Xalaren izan da. Mikel Idoateri 22-19 irabazita lortu zuen finalerako txartela.

Finala Bilboko Bizkaia pilotalekuan jokatu da. Hasieran, Donostiako Atano III.a ere aukeren artean egon arren,

azkenean Bilbokoaren alde egin dute. Tokia ere dezentez gehiago du, Bilbokoak 3.000 ikuslerentzako tokia baitu eta Atanonek 1.800 inguru sar daitezke.

FINALERDIETAN
GOIZUETA ETA LEITZA

Berriz ere Leitza eta Goizuela aurrez aurre jarri ditu pilotak. Aldi honetan Aimar Olaizola eta Oinatz Bengoetxea izan dira protagonistak. Atano III.a pilotalekuan Eskuz Banakako Txapelketako finalerdia jokatu zuten maiatzaren 29an eta 22-15eko markagailuarekin garaipena goizuetarrentzat izan zen.



ARTXIBOKO ARGAZKIA
Olaizola II.a.

AIZKORA → BANAKAKO TXAPELKETA

Igande honetan jokatu dira Banakako Aizkolari Txapelketako finalak Azpeitian

15 eta 19 urtez azpikoenak eta Urrezko Mailakoak izanen dira

TTIPI-TTAPA

Eusko Label Banakako Aizkolarien Txapelketako finalak jokatu dira igande honetan,

ekainak 12, Azpeitiko Izarraitz pilotalekuan, 12:00etatik aitzinera. Hiru kategorietako finalak jokatu dira, 15 urtez azpikoena, 19 urtez azpikoena eta Urrezko Mailakoa. 23 urtez behetikoei joan den ekainaren 5ean jokatzea zuten finala.

15 urtez azpikoetan, Iker Vicente (Otsagabia,



UTZITAKO ARGAZKIA

Leitzako bi ordezkari izanen dira igande finalean: Eneko Saralegi (ezkerrean) eta Mikel Zabaleta (eskuinean).

1997) eta **Mikel Zabaleta** (Leitza, 1997) ariko dira aurrez-aurre.

19 urtez azpikoetan, Eneko Otaño (Beizama, 1994) eta **Eneko Saralegi** (Leitza, 1993) ariko dira.

23 urtez azpikoetan, **Oihan Larretxeak** (Be-

ra, 1990) eta Aitzol Atutxa II.ak (Dima, 1988) jokatzea zuten ekainaren 5ean baina lerro hauek idazterakoan oraindik ez genuen emaitza berririk. Egun horretan egitekoa zen, Urrezko Mailako 3. eta 4. posturako lehia ere, Iñaki

Azurmendi (Arriaran) eta **Jon Rekondoren** (Leitza, 1985) artean.

Igande honetako azken lehian, Urrezko Mailan, Aitzol Atutxa II.a eta Juan Jose Lopez Azpilkueta (Lezaun) atzerako dira txapelaren bila.

ekainak 09-22

Informazioa bidaltzeko: info@ttipi.net edo 948 63 54 58

Bestak	Ospakizunak	Kontzertuak
		
BERROETA 2011.06.10-13 Mendekoste bestak ospatuko dituzte asteburuan Ortziralean hasi eta astelehena bitarte ospatuko dituzte bestak. ETB2ko <i>El Conquistador del fin del Mundoko</i> partehar-tzaileak gonbidatuak daude.	LEITZA 2011.06.11 Sagardo Eguna ospatuko da hirugarren urtez ALKE Kultur Taldearen eskutik Sagardo Eguna egingen da larunbat honetan. Bezperan, sagardo dastaketari buruzko hitzaldia ere izanen dute Aurreran.	ELIZONDO 2010.06.11 Koma taldearen kontzertua Lur dantzalekuan Sasoi bukaera hurbiltzen ari da Lur dantzalekura. Larunbat ean Koma taldeak kontzertua eskainiko du eta hilaren 18an Joseina Etxeberria izanen da.

Kontzertuak

ELIZONDO

Koma taldea Lurren**Ekainaren 11n**

Komaren kontzertua, 00:30etik aitzinera. Sarrera: aitzinetik 15 euro, bertan 18 euro.

Joseina Etxeberria Lurren**Ekainaren 18an**

01:00etatik aitzinera DJ lanetan ariko da. Sarrera: 9 euro eta kontsumizio bat doan 03.30 arte.

LESAKA

Lesakako Soinularien kontzertua**Ekainaren 10ean,** Lesakako Alhondigan 20:00etan.**Musika Bandaren kontzertua****Ekainaren 20an,** Alhondigan 18:00etan.**Erakusketak**

ELIZONDO

Argazki erakusketa**Ekainaren 15era arte** *Conocer Navarra, maneras de vivir* lehiaketaren 3. edizioaren erakusketa Arizkunenean.**Pintura eta eskultura erakusketa****Maiatzaren 24tik****ekainaren 18ra** Arcade 64 kolektiboaren autore aunitzen pintura eta eskultura erakusketa.**Hitzaldiak**

SALDIAS

Nafarroako konkistaz**Ekainaren 17an** eskainiko du Nabarralde Angel Rekaldek 22:00etan Herriko Etxean.**Lehiaketak**

BAZTAN

Bertan Elkarreak 3. argazki lehiaketa**Ekainaren 30ean** akituko da lanak aurkezteko epea, *Baztango inguru eta paisaiak, herriak eta herritarrak* gaiaren inguruan. Xehetasunak 45. orrian.**Bestak**

BERROETA

Mendekoste bestak**Ekainaren 10etik 13ra** ospatuko dira.

Xehetasunak 43. orrian.

BERA

Aitzateko bestak**Ekainaren 17tik 19ra** ospatuko dira.**Ospakizunak**

BERA

Kaxerna Gaztetxearen 5. urteurrena**Ekainaren 6tik 12ra** hainbat ekitaldi antolatu dira. Xehetasunak 25. orrian.

PROPOSAMENA

BERA

Kaxerna Gaztetxeak bosgarren urteurrena5 urte bete ditu Berako Kaxerna Gaztetxeak eta hori ospatzen ari dira aste osoan. Egunero izanen da zerbait, baina halere, larunbata izanen da egunik *potenteena*. Goizean mural margotzea, presoen aldeko topa eta urtebetetze bazkaria izanen dira. Arratsaldean, kalejira-potea, makarroiak afaltzeko eta bukatzeko, Whiskey Mama eta talde sorpresa batekin kontzertua izanen dira.

LEITZA

III. Sagardo Eguna**Ekainaren 10 eta 11n** Xehetasunak 40. orrian.

DONEZTEBE

Errekaren Eguna**Ekainaren 17 eta 18an** proiektzioa zineman, mus txapelketa, eskubaloi partidak, judo erakustaldia, dantzak, afari herrikoia, eta gaupasa Jalisko Band taldearekin. Xehetasunak 32. orrian.

ITUREN

Trinitate Eguna**Ekainaren 19an** Mendaurko kaxkoko baselizan hainbat lagun bilduko dira eta San Martin elizan, 11:00etako mezan Iruñeko Katedraleko Musika Kaperaren kontzertua.

LEGASA

Bertizaranako Eguna**Ekainaren 11n** ospatuko da. Dianak, soka zirkuitoa, bazkaria, afaria eta gauoasa Trikidantz taldearekin. Xehetasunak 37. orrian.

ZUGARRAMURDI

Sorginen Eguna**Ekainaren 18an** ospatuko da 4. edizioa. Artisau azoka, margo erakusketa, hitzaldiak, bisita gidatuak, dantza, antzerkia, eskaintza errituala lezean... Xehetasunak 47. orrian.

SUNBILLA

Malerrekako Gazte Eguna**Ekainaren 18an** ospatuko da. Jokuak, hitzaldia, bazkaria, animazioa, kontzertuak... Xehetasunak 31. orrian.

SARA

Olhain Ikastolaren Eguna

Ekainaren 12an.
Xehetasunak 49. or.

AZKAINE

Euskaraz Bizi Eguna

Ekainaren 11n
antolatu du Euskal Herrian Euskaraz erakundeak. Xehetasunak 48. orrian.

Mendi irteerak

BAZTAN

Mendigoizaleen ateraldiak

Ekainaren 12an
Artikutzara aterako dira Baztango Mendigoizaleak. (07:30).
Ekainaren 19an
Baztan Herriz Herri eginen dute Baztango Mendigoizaleak.

BERA

Larun Ttiki taldearen ateraldiak

Ekainaren 12an
Larunerat ateraldia eginen du Larun Ttiki Mendi Taldeak. (09:00, kotxez Lizuniagaraino). Ondotik bazkaria Lizuniagan. Izen emateko azken eguna ekainak 9.

GOIZUETA

Mendi buelta megalitikoak

Ekainaren 11n
mendi buelta megalitikoak Gaztetxekeen eskutik, (09:00-12:00).

LEITZA

Europako tontorretara

Ekainaren 18an eta 19an Europako tontorretarako ateraldia, Mendibil Mendi Taldeak antolatuta. Xehetasunak 40 orrian.

Gertaera guztiak ikusteko, begiratu:
www.ttipi.net
(agenda)

ENTRETENIMENDURAKO GAIAK

Liburua



Zorionak Marko

ENEKO BIDEGAIN

Elkar, 2011

Karramarro gazte eta bihurri bat da Marko, bere lagun Oskar maskordunarekin eta Txarli txirlarekin hainbat abentura biziko dituen. Itsasoa jolasleku ederrez beterik baitago, baina kasu! Kontuz ibili behar bi hankadun izaki beldurgarriekin. Marko karramarro gaztearen abenturak eta kalenturak irakurgai izanen dira Eneko Bidegainen liburu berri honetan. Elkarrek duen Xaguxar haur eta gazte literaturako bilduma osatzen du Bidegainen liburu honekin.

Haurrendako literatura lehen lana du Eneko Bidegain kazetari eta idazle baionarrak. Aurretik bi nobela ditu argitaratuak *Anbroxio* eta *Mahatsen begia*. Baita hiru saiakera liburu ere, *Iparretarrak, erakunde politiko armatu baten historia*, *Gerla Handia, muga sakona* eta *Patxa. Besta bai, borroka ere bai*.

Musika




Estankona

ESTANKONA

Elkar, 2011

Estankona bakarkako lehen diskoan *Estankona* da. Tautologia. Rockaren izpiritua barruan, amerikarra zein anglosajoiak. Kantuetan badago tentsioa, indarra, bilakaera, helmuga eta irteera toki berean. Puntuaren zirkulua beti itxi egiten da kantuetan. Kantuetan historiak datoz. Poza, alaitasuna eta tristezia. Kantuek bilakaera dutenean, kantuen garapena da kontuan hartzen dena. Estankona bakarlariek abesti guztiei erantsi die gorago edo beherago joateko antsia eta gogoak. Musika oinarri trinkoetan hartu du babes, Itxaso Etxebeste eta Jimmy Arrabit musikariek ederki interpretatu dute Borja Estankonaren desioa, jakin dute bikain nola uztartu haren ahotsa eta gitarra biluziak. Gitarra-jotzaileak ihes egiten dio soinu fardelei, arin joan nahi du, emeki eta fereka amultsuetan gorde nahi ditu indarrak.

Internet



Euskarazko irakurleei pixka bat zirikatuz

WWW.EZTENA.ORG

Euskarazko irakurleei eztena sartzeko sortutako web orrialdea da; pixka bat zirikatu, eta liburuetatik kanpo ere irakurtzeko beste moduak dauzela erakutsi nahi dute. Fantasia zein beldurrezko idazkiak aitzakia hartuz irakurleak tentatu egin nahi dituzte eurek sortatuako narrazio eta poemekin. Irakurtzeaz gain idatzi ere egin dezakezu web orriara. Irakurleei eta idazteko zaletasuna dutenei eztena sartu nahi diete. Euskal literaturari beste bulzadatxo bat eman eta, bide batez, lotsatuta dagoen idazle orori, bere testuak kaleratzeko, argitatzeko aukera eman. Ipuin gazi gozoak, ilunak, itzalen artean gustora dabilzanentzat. Euren orrialdean dioten bezala: Kontakizun oro delako dena eta 'eztena'.

Nire aukera



Josetxo APEZETXEA
Xorroxineko esatari erratzuarra

«Kontzertuetara gaten naiz baina irratian aditzen dut musika gehien»

Irratiak denbora ematen dio Josetxori gustuko afizioei ekiteko. Musika saioa gidatzen du Xorroxinen eta musika aditza ere gogoko du, «oraindik kontzertuetara gatea gustatzen zait, baina gero eta gutiago. Gehiena irratian aditzen dut», dio. Aita margolaria izanik, berak ere haur denboran margoak erabili zituen, baina orai guti. «Hori bai, erakusketetara eta gatea gustatzen zait». Baratzean ere zerbait aritzen da, «etxerako haina ematen du, beti ere karakolekin borrokatuz». Kirol arloan, «txirrindularitza ikusteko eta uda partean praktikatzeko ere gustatzen zait. Izpegira gan-torri egin eta guti gehiago, ateraldi motzak egiten ditut». Asteburuan gan-torrika ibiltzen da Erratzu eta Baiona artean eta ez du plan berezirik egiteko ohiturarik. Kanpora egindako ateraldietan, «23 urterekin Berlinera bakarrik egindako bidaia gogoan du» eta Mexikon ere gustora ibili da. Kanada edo Australiara ailegatzea gustatuko litzaioke.

ETXEBIZITZAK
salgai

ERATSUN. 3 borda salgai, lur eremuarekin. ☎943 217817.

ETXALAR. Lizaietako parajeon zaharberritze-ko den borda salgai. ☎661 121540.

DONEZTEBE. Zazpigerutze plazan 115 m²ko pisua salgai. 3 logela, 2 bainugela eta trastelekua. Eguzkitsua eta estreina-tu gabea. ☎630 948271.

ANZABAL
INMOBILIARIA**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN**

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE eta BIDASOA alderdian

- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurra behar ditugu.

ZUGARRAMURDI

- Baserria salgai 80.000 metro²ko lur eremuarekin.
- Etxe adosatuak bere lurra-
rekin salgai.

Tel. 948 580 804
Faxa. 948 581459
anzabal@anzabal.com

ELIZONDO. Paularen apartamentua salgai. Guztiz ekipatua eta dena kanpora eta hegoaldera begira. 2 logela, sukaldia, bainugela, egongela eta trastelekua. ☎639 003860.

BERA. 89 m²ko pisua salgai. 4. solairuan. 3 logela, bainugela, komuna, sukaldia, egongela, trastelekua eta balkoia. Gas naturala, berogailua eta igo-gailuarekin. ☎681 017423 (deitu arratsalde).

ORONOZ-MUGAIRI.

100 m²ko etxebizitza salgai. Mobleztatua. 3 logela, egongela, sukaldia, bainugela, biomasa galdara duen berogailua, leihoak etxo-sareekin, jakin gordailua eta kanpora ematen duen trastelekua. Urbanizazio pribatua.

MERKATU TTIKIA

948 63 54 58

info@ttiipi.net edo www.ttiipi.net

SAIL HONETAN IRAGARKIA JARTZEKO 8€ ORDAINDU BEHAR DA ARGAZKIAREKIN JARRI NAHI IZANEZ GERO 10€

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta TELEBISTA eta INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako 3008 0080 56 0703304329 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

tuan. Lorategi handia. Aparkalekuak guztientzako eremuan. 228.000 euro. ☎620 679145.



ETXALAR. Bi solairuko etxebizitza adostatuak salgai, errentan emateko edo erosteko aukerarekin. Estreinatua gabe, zuzenean promotorearengandik. Garajea eta txokoa ere bai. Denak kanpora ematen du. ☎669 432480/629 443405.

ETXEBIZITZAK**errentan emateko**

IRUÑEA. Milagrosa auzoan ikasleentzako pisua

errentan emateko. 3 logela ditu eta Nafarroako Unibertsitate Publikoaren ondoan dago. 680 euro hilabetean. ☎626 938312.

LESAKA. Pisua errentan emateko. 4 logela, egongela, sukaldia eta komuna. Gela guztiak kanpora ematen dute, argitsuak. Mobleztatua. ☎686 378154.

BERA. Pisua errentan emateko. 2 logela sukaldia, egongela, komuna eta garajea. ☎647 840210.

DONEZTEBE. Herri erdian pisua errentan emateko. Sukaldia, bi-logela, egongela, bainugela eta trastelekua. Berogailuarekin. Oso argitsuak. Egoera onean. ☎661 905009 (deitu eguerdi eta ilunabarretan).

GARAJEAK/LOKALAK**errentan eman**

LESAKA. Eltzeta plazan

lurrazpiko garaje itxia errentan emateko. ☎618 962937.

ZERBITZUAK**zurginak**

ARANTZA
Zurgindegia.....

- Klase guztetako zurgin lanak
- Eskate surretantuek konpromisurik gabe

Jose Miguel Errota
Tel. 948 635 545 • M. 609 477 277
GARA - ARANTZA

ZERBITZUAK**denetarik**

BORDA
ISOLAMENDUAK

Termikoak | Akustikoak
Susten kontrakoak

Pladur lanak • Eraberritzeak
Eraikuntza • Industriadak
Dekorazioak • Sobri modularrak

Tel. 948 637 545 • M. 609 477 277
TTIPI • www.ttiipi.net

LANA**eskaintzak**

OIZ. Jatetxe batean fregaderan lan egiteko langilea behar da igande eta jaiegunetan. ☎948 451951.

Gas Natural y Union Fenosako kolaboratzaileak enpresa ertain eta ttikietan aritzeko **komertzial autonomoa** behar du. Interesatuak: rrhh.candidatos@yahoo.com edo 696 278130.

ZUGARRAMURDI. Uztailan eta abuztuan ostalaritzan lanean aritzeko neska edo mutila behar da. Euskara eta gaztelaniaz jakitea nahitaezkoak dira eta frantsesez jakinez gero, hobe. ☎675 7114988.

LANA**eskariak**

LEITZA ETA INGURUKO HERRIETAN. Neska euskaldun batek haurrak eta adinekoak zainduko lituzke. ☎695 716894.

Emakume batek adinekoak zainduko lituzke interna moduan. ☎678 397046.

BERA. Emakume euskalduna etxeak garbitzen, dendaren batean lanean... ariko litzateke. Manipulatuzaile karneta duena. ☎680 338153.

SUNBILLA. Neska euskaldunak adinekoak edo haurrak zaintzen edo dendetan lan egiten luke, esperientziarekin. ☎680 911915.

BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA
(maiatzaren 5tik 13ra bitarteko prezioak)

ZERRIKIA 

Zerrikumea
(19 kilo): 35,00 € (-1,00)

Zerri gizena
1,295 € kilo. (+0,013)

Zerramak:
0,500€ Kg/bizirik. (+0,013)

BEHIKIA 

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal

Extra 4,07 (=)

1.koa 3,77 (=)

2.koa 3,53 (=)

Urruxak: €/kg. Kanal

Extra 4,15 (=)

1.koa 3,87 (=)

2.koa 3,73 (=)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze ttikiak
(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:
urruxak 120,00 (=)
idixkoak 210,00 (=)

Aretze nabarrak:
urruxak 110,00 (=)
idixkoak 130,00 (=)

Zaldikoak: €/k
Sortuberriak: 2,85/2,95
Zaldi-behorrak: 1,75/1,95

Bildotsak: €/k
6-8 kilokoak: 5,50/6,20
8-10 kilokoak: 4,60/4,90

MOTORRA
tailerrak

MENDAUR MOTOR
948 450333 • DONEZTEBE

SUZUKI
(gasolina eta diesela)
MITSUBISHI
(luze eta laburrak)
TURISMOAK



MOTORRA
salerosketak

Derby cross city motorra salgai. 125 c.c. 2009ko urrikoa. 11.000 kilometro. Etxearen garrantia urrribitarte. Transmisio kit berria, tubo eskape berria eta gurpilak erdiberriak. Prezioa: 1.400 euro. ☎653 087191.



Suzuki Bandit 650 GSF N Abs-rekin salgai. 2007ko ekain bukaerakoa. Egoera onean eta oso ondo zaindua, garajejan jasoa. Erosleak berrestrenatuko luke, lehen eskukoa erosi eta ez baita asko erabilia. 9.830 kilometro. Berrikuspen guztiak egunean. Osagarriak: Led keinukari txikiak, matrikula eramaila, atzeko lohi-babesa, erradiadore estalkia, erortze topeak, Rizoma eskulekuak. Salneurria: 4.700 euro negoziagarriak. ☎687 570079 edo mrmblogs@gmail.com



Yamaha XT 350 motorra salgai. ☎620 135721.



ANIMALIAK
oparitzeko

3 zakurkume oparitzeko. Euskal ardizakurrak, hilabete batekoak. ☎948 510224.

Arratoi zakurrak oparitzeko. ☎948 580231.

Zakurkumeak oparitzeko. Artzain zakurra eta spaniolen arteko nahasketa. ☎679 892622 (deitu 20:00etatik aitzinera).



ANIMALIAK
salgai

Oilagorretarako hiru zakurkume eme salgai. Ama setterra eta aita spaniel arrazakoa. ☎678 024636.

Poney beltza salgai. Ile ederra lepo gainean eta

isatsean. ☎948 637327.

4 urteko **behor arabiarra** salgai, raid lasterketan ibiltzen den Anduri zaldiaren kumea. ☎628 538652.

LEITZA. Golden eta labradorren arteko zakurkumeak salgai. 180 eta 200 euro artean. ☎616 647150/636 677933.



ANIMALIAK
erosi

Bertako arrazakoa den ardi **zakurkumea** erosi edo hartuko nuke. ☎646 961374.

DENETARIK
salerosketak

BAZTAN. Etxe sarrera-



DONEZTEBEKO AVIA GASOLINDEGIA
Leitzako Errepidea | DONEZTEBE | T 948 451 679 | www.doneztebe.com

Eraman itzazu jarrita
Zure kotxearen neumatikoak debaldet!

100 neumatikoak

Club Avia baxerria erabili eta zure autoerrenda 4 neumatikoekin zuzketan sartuko duzu

BERAKOUDALA
AYUNTAMIENTO DE BERA

TOKIKO GOBERNU BATZORDEAREN AKORDIOA / HIRIGINTZA

Berako Udaleko Tokiko Gobernu Batzardeak, 2011ko maiatzaren 12an egindako bilkuran, ondoko Xehetasun Azterlanak onetsi zituen hasiera batez:

- Sara karrika, 19.ean (9. poligonoko 378. lur-zatia), Javier Huci López-ek sustatua.
- A-291 (3. poligonoko, 291. lur-zatia), Promociones Tablajerobaita SL-k sustatua.

Espedienteak jendeurrean izanen dira hogeiki egunez, dagokion iragarria NAOn argitara ematen denetik.

Bera, 2011.05.25 ALKATEA, Josu Iratzoki Agirre

rako haritzeko ate mazioa salgai. ☎ 679 228189.

SUNBILLA. Su egurra salgai, lotean edo xehe-tua. ☎659 867287 /699 461394.

Ruger 44 **riflea** salgai. Oso egoera onean. ☎948

630449 / 677 592133.

Minerala botatzeko **abonadora** (VICON), **belarra biltzeko eta nahasteko makinak** (KHUN) eta 2 mila litroko **zisterna** salgai. ☎649 575549.

Bulegoko altzariak salgai. ☎ 609 445769.

TTIPI-TTAPAK ZURE LAGUNTZA BEHAR DU
Zure laguntza eskertzeko
DOKUMENTU-POLTSA
bat izanen duzu opari

gure bezeroak aukeratzeko proiektuak

can
proiektu zenbakia
15.996

Eska ezazu TTIPI-TTAPAren proiektua aukeratu izanaren frogagarria Nafarroako Kutxaren zure bulegoan eta ekar ezazu TTIPI-TTAPAra abenduaren 30a baino lehen.

urtebetetzeak

Argazki soila: 4€; bikoitza: 8€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,35€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekoa; 4) www.ttipi.net bitartez



Iturengo **OIHAN MARTINEZ LEITZARI**; zorionak gure futbolariari, zorionak gure mutil kozkorari, zorionak ta urte askotarako, zorionak ta muxu bat zuretako.



Lesakako **AMAIUR** eta **AINITZE MARTINEZ OLAZABAL** gure bi sorgintxoek ekainaren 16an 3 urte beteko dituzte. Zorionak eta muxuak Igantzitik osaba Josu, izeba Mofi eta Txaskiren partetik; Lesakatik izeba Nek, osaba Tomax eta Beñaten partetik eta Bekarrotatik besarkadak amaxti, attona eta Mixiren partetik.



Sunbillako **JOANES BERTIZ GRAJIRENAK** urtea beteko du ekainaren 12an. Zorionak etxeko kukuxuari! Muxu handi bat atta, ama, Sunbilla eta Beintzako familiaren partetik. Prestatu berendu goxoa!



Zorionak Sunbillako **IGOR** eta **JOANES BERTIZ** atta-seeie! Ekainaren 24an eta 12an urteak beteko dituzte. Muxu handi bana Sunbilla eta Beintzako familiaren partetik. Prestatu bazkari goxoxoa, gosetzen hasiak gara eta!



Lesakako Beheko-Errotako **AINITZE** eta **AMAIUREK** 3 urte beteko dituzte ekainaren 16an. Sasi guztien gainetik eta hodei guztien azpitik maite zaituztegu! Attato eta amatto.



Iruritako **JOSE ARRAZTOAK** eta **CRISPINA MENDIKOAK** maiatzaren 24an Urrezko Ezteiak egin dituzte. Zorionak familia guztia- ren partetik eta muxu bana.



EKIÑE GOÑI OSKOTZ arantzarrak 2 urte bete ditu maiatzaren 31n. Zorionak eta muxu bana Oizko familiaren partetik. Ongi pasal!



Arantzako **EKIÑE GOÑI OSKOTZI** aunitz urtez atautxi-amaxti, atta-ama, izeba eta zure anaia Egoitzen partetik. Muxu haundi bana eta ez izan hain bihurria!



Andereño **MIRARIK** urteak beteko ditu ekainaren 10ean. Aunitz urtez lagunen eta Saioaren partetik! Ea noiz jaten dugun berriz txokolia e!



Amaxti **MARGARIK** urteak beteko ditu ekainaren 17an. Aunitz urtez sende, seme-alaba, biloba eta birbiloba guztien partetik.



Sunbillako izeba **KONSUELO IRIARTE IBARRAK** ekainaren 2an urteak bete ditu. Aunitz urtez bere familiaren partetik eta berexiki Garaine eta Iraideren partetik. Mila muxu.



Urdazubiko **ASUNZIONEK** 90 urte bete ditu eta Sunbillako **PAULEK** guttixeago maiatzaren 19an. Zorionak aunitz bie familiaren partetik.



Leitzako **OINATZ** eta **JUDITH MARIEZKURRENAK** urtek beteko dituzte ekainaren 9an eta 10ean. Urte askoz potxolis! Ongi ongi pasa zuen eguna eta joan prestatzen ari goxo goxo bat etxeko morenari! Muxu haundi bana!



Legasako **ANDER ZELAIETA EULATEK** urtea beteko du ekainaren 13an. Zorionak eta muxu haundi bat Igantziko familiaren partetik.



Sunbillako atautxi **PAKO PETRIRENA ARRETXEAK** 60 urte beteko ditu ekainaren 13an. Aunitz urtez familia guztia- ren partetik baina berexiki Garaine eta Iraide sorgintxo- en partetik. Ongi pasa eguna atautxi!



OIHANA NIETO CABELLERO Aresoko neska panpoxak urteak bete ditu ekainaren 5ean. Merendatzera azalduko gara, goxoa prestatu e! Aresoko lagunak.



BEÑAT AIESTARAN BERRUET lesakarrak urtea bete du ekainaren 7an. Zorionak eta muxu bat familiaren partetik.



Zorionak Lesakako **BEÑAT** eta **OINATZ AIESTARAN!** **BEÑATEK** ekainaren 7an urtea bete du eta **OINATZEK** ekainaren 16an 2 urte beteko ditu. Muxu pila familiaren partetik.



NAHIA eta **EKAIN TELLETXEA ODRIUZOLA** donamariarrek 3 urte beteko dituzte ekainaren 21ean. Zorionak gure sagutxo maiteak! Muxu bat Lesakako osaba haundiaren eta izebaren partetik.



Donamariako **NAHIA** eta **EKAIN TELLETXEAK** 3 urte beteko dituzte ekainaren 21ean. Zorionak eta punto pelota! Muxu haundi bat familia guztia- ren partetik. Txintxo ibili!



Oronozko **ANTOR BARAIBAR GORTARI** bihurriak 4 urte beteko ditu ekainaren 8an. Muxu bat gure traktore gidariari amaxto, atta eta Maiale- nen partetik.



Elizondoko **ANE TELLETXEA GALARRREGIK** ekainaren 16an 6 urte beteko ditu. Zorionak Eneko eta Xabierren partetik.



Etxalarko **MANEX DANBORIENA IBARRAK** 4 urte beteko ditu ekainaren 8an. Zorionak familiaren partetik. Berenduaren espero- an egonen gara.



UNAI ALTZUGARAI ARANBILLET beratarrak 7 urte bete ditu ekainaren 4an. Zorionak Almandozko familiaren partetik.



ANE BARRIKART ZIA oiztarrek 2 urte bete ditu maiatzaren 28an. Zorionak zure familiaren partetik *ttiripi - ttina!*



BEÑAT eta **MIKEL PORTU BARINAGAREMENTERIA** leitzarrek 3 urte beteko dituzte ekainaren 29an. Zorionak Lesakako familia- ren eta bereziki Orti, Lexuri, Nahia, Elorri eta Aiert lehengusuen partetik.



Zugarramurdi-Kanboko **MAIKA LEKUONA OLAIZOLAK** Lehenbiziko Jaunartzea egin du maiatzaren 29an. Muxu haundi bat eta zorionak Sunbillako lehengusu Pablo Irazoki eta familiaren partetik.



Zorionak **UXUE** eta **AIMAR LEKUONA** lehengusuei. Ekainaren 7an eta 10ean 3 eta 10 urte beteko dituzte. Muxu eder bana familiaren partetik.

ttipi-ttapa

aldizkaria etxera bidaltzea nahi baduzu, deitu telefono honetara:

(0034) 948 63 54 58 · www.ttipi.net

- Hego Euskal Herria 37€
- Europa 55€
- Baztan, Urdazubi eta Maierreka 31€
- Amerika eta Australia 123€
- Ipar Euskal Herria 55€
- Loitza 15€



ESKANTZA
BEREZIAK

sofa eta
liburutegietan



DENDA
BERRANTOLATU DUGU

3. solairuan
OUTLET eta LIKIDAZIOAK

%50

arteko deskontuak

Muebles 
Telletxea

Rosa Seminario, 12 • DONEZTEBE
T. 948 450 258 • 948 451 811
info@mueblestelletxea.com
www.mueblestelletxea.com

TTIPI TXARTELArekin BETI IRABAZTEN DA!

543. ALEKO IRABAZLEAK

* PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOTS LIBURUA + CDa

Edurne ARRET XEA ADANSA | ITUREN

* IBAIZABAL LUXOREKO MISTERIOA LIBURUA

Miguel Angel CORDOBA SAHARREA | ELIZONDO

* ONINART KAMISETA

Isabel ERRANDONEA ALZUGUREN | BERA

* TRANSHUMATZIA CDa ELKAR

M^a Karmen IRUNGARAI ALEMAN | IRLURITA

* TTIPI SASKIA

Milagros ALZUGUREN ESTEBERENA | BERA

ttipi txartela

ttipi-txapa

Aizara Míndegia
46326741-Z
apurtzeak: 2012/03
Zk. 21510

DESKONTUAK | ZOZKETAK
ALDIZKARIA MUSUTRUK

Eskatu zurea 948 63 54 58 telefonoan

erein
argitaletxea



2 LIBURU
Erein argitaletxea
www.erein.com



AQUARIUM
DONOSTIA

AQUARIUM 2 SARRERA
Donostiako Aquarium-a
www.aquariumss.com



Lanku

HAINBESTE, HAIN GITXI CDa
Lanku argitaletxea
www.lanku.com



ARKUPE
Gozotegia - Txokolategia

TXOKOLATE LOTEA
Arkupe gozotegia
www.arkupegozotegia.com



onddo
14. 2014.

KAMISETA BAT
Onddo ta punto
www.onddotapiunto.com



TTARTALO

KURRIN HAURRENDAKO LIBURUA
Ttartalo argitaletxea
www.ttartalo.com

DESKONTUAK

AYLA

argazkigintza fotografia
%10 kamet argazkietan

DATUCELAY

%10 Bateria eta amortiguadoretan

Kalita Gama

%10 herizerian

edurne
HAUR ARGOPAZENDIA

%5 30 eta 19 gutxi, askatu 190



ETXARTE

%10eko deskontua